

IRUNGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA



B DOKUMENTUA PLANGINTZA ESPARRUEN FITXAK (2. LIBURUKIA)



2015EKO URTARRILA

AURKIBIDE OROKORRA

A DOKUMENTUA

ANTOLAMENDUAREN MEMORIA

B DOKUMENTUA

HIRIGINTZA ARAUAK

PLANGINTZA ESPARRUEN FITXAK (I. LIBURUKIA)

PLANGINTZA ESPARRUEN FITXAK (II. LIBURUKIA)

C DOKUMENTUA

ARKITEKTURA ONDAREAREN KATALOGOA

ARKEOLOGIA ONDAREAREN KATALOGOA

D DOKUMENTUA

EKONOMIA-FINANTZA BIDERAGARRITASUNAREN

ETA EKONOMI IRAUNKORTASUNAREN MEMORIA

E DOKUMENTUA

ANTOLAMENDUAREN PLANOAK

ANTOLAMENDU XEHEA 1:2.000

KATALOGO PLANOAK

F DOKUMENTUA

INGURUMEN IRAUNKORTASUNAREN TXOSTENA

NEKAZARITZAREN ALORREAN AZTERKETA ETA EBALUAZIOA

ONDORIOEN NEURRIAK JARRAIPENERAKO

LABURPEN EZ TEKNIKOA

ADIERAZPEN ARGIA ETA ULERGARRIA

G DOKUMENTUA

HERRITARREN PARTE HARTZEAREN MEMORIA

ERAKUNDEEN TXOSTENEN MEMORIA

ERANSKIN OSAGARRIA

IRUNGO HAPNAREN DIAGNOSTIKOA, EBALUAZIOA

ETA EGOKITZAPENA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO

BERDINTASUNARI BURUZ



B DOKUMENTUA

PLANGINTZA ESPARRUEN FITXAK

(2. LIBURUKIA)

PLANGINTZA ESPARRUAK
II. LIBURUKIA

ESPARRUA: LOPEZ BECERRA	5.1.01	2
ESPARRUA: MENDIBIL	5.2.04	8
ESPARRUA: ARIZMENDI ALMIRANTEA	5.2.06	13
ESPARRUA: KASINOA	5.2.08	18
ESPARRUA: IKUST ALAIA	5.2.09	23
ESPARRUA: ARTALEKU	5.2.10	29
ESPARRUA: MIREN – NEKANE LURSAILA	5.2.14	33
ESPARRUA: ALDAPETA	5.2.16	37
ESPARRUA: BIDASOA	5.3.03	42
ESPARRUA: ISTILLAGA - DUMBOA	5.3.06	46
ESPARRUA: FERMIN CALBETON	5.3.10	50
ESPARRUA: SAN JUAN - ETXEANDIA	5.3.11	56
ESPARRUA: KORROKOITZ	5.3.13	60
ESPARRUA: PAPINEA	5.3.14	65
ESPARRUA: LARTZABAL	6.1.01	71
ESPARRUA: OÑAURRE	6.2.01	75
ESPARRUA: OÑA	6.2.02	81
ESPARRUA: TXENPERENEA	6.2.06	85
ESPARRUA: ALEI	6.2.08	92
ESPARRUA: HEGOALDEKO INGURABIDEA ETA LOTURA	6.2.09	97
ESPARRUA: ALARDE	6.3.01	101
ESPARRUA: GAIN - GAINEAN	6.3.03	107
ESPARRUA: OSINBIRIBIL	7.1.01	111
ESPARRUA: ALTZUKAITZ	7.2.02	115
ESPARRUA: ARBES	7.2.04	119
ESPARRUA: ERMITA	7.2.05	123
ESPARRUA: MATXALAGAIN	7.2.08	128
ESPARRUA: AZKEN PORTU	8.1.02	136
ESPARRUA: ARTIA	8.1.03	141
ESPARRUA: JOSE M ^a FRANCO	8.1.05	145
ESPARRUA: GAZTELUZAHAR	8.1.07	149
ESPARRUA: HARROBIETA	8.1.11	153
ESPARRUA: ERNAUTENEA	8.2.03	157
ESPARRUA: BLAIA	8.2.05	162
ESPARRUA: GAZTELUBERRI	8.2.06	170
ESPARRUA: GAZTELU	8.2.07	176
ESPARRUA: LASTAOLA POSTETXEA	8.3.04	180
ESPARRUA: MENDIPE	8.3.05	187
ESPARRUA: PAUSU	8.3.12	193
ESPARRUA: URUNE	9.1.01	198
ESPARRUA: EPELE	9.1.02	201
OLABERRIAKO HARANA BABESTEKO PLAN BEREZIA		204
IBARROLAKO HARANA BABESTEKO PLAN BEREZIA		208

ESPARRUA: LOPEZ BECERRA**5.1.01****HIRIGINTZA ZEHAZTAPENAK:****1.- DESKRIBAPENA**

Lopez Becerra aldean, Euskotrenen burdinbideak Renferenen paraleloan aurreikusitako burdinbideetara eraman eta gero, aurreko Plan Nagusiak egiten zuen proposamenari eusten zaio, baina batez ere kale honen Mendebaldeko frontean jardungo da.

Jarduera honek, Geltoki aldean planteatutako jarduera multzotik berex, Aureliano Lopez Becerra kalea burdinbide zortasunik gabeko hiri bide izatea bila du.

Hiri bide berri honek segida izango luke Colon Ibilbidearen azpian irekitako tunel baten bidez, aipatu ibilbidearen Iparraldeko antolamendu berriarekin; honako hau geltoki ingurua esparrura biltzen da. Colon Ibilbidearen Iparraldean irekiko den bide berri hori burdinbideen azpian egokitutako zorupeko igarobide berri batekin osatuko da, eta honek bat egingo du Lope de Irigoien kalearekin.

Esparru honetarako aurreikusitako antolamenduan bizileku aurrealde jarraitua eratzea proposatzen da Lopez Becerra kale aldera haren Mendebaldean, proposaturiko eraikuntza Aduana kale inguruan dauden eraikinekin lotuta, eta Ekialdeko gune jakin batzuetan esku hartzea proposatzen da halaber, bertan dauden lerrokadurei konponbidea eman ahal izateko.

Honenbestez, eta aurreko plangintzan planteatutakoa gogoan, esparru honetatik kanpora geratzen dira Lopez Becerra kalearen Ekialdeko eraikin gehienak; aitzitik, mantendu egingo dira kalearen mendebaldean dauden eraikinen eta lursailen gaineko eraginak.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU NAGUSIAK

Jarduera honen helburu nagusia da bide fronte berri eta egoki bat antolatzea eta Colon Ibilbidearen eta Lopez Becerra kalearen artean oinezkoentzako bide egoki bat antolatzea Pio XII plazaraino.

Jarduera honen helburua ere bada Pio XII Plaza eta Colon Ibilbidearen azpiko zorupeko igarobidea lotuko dituen bide bat egitea; bide hau erdialdearen eta, Lope de Irigoien kalearen bidez, N-1 errepidearen arteko lotunearen atala izango da. Bideak lotzeko proposamen honek, baina, Lopez Becerra kaleko egungo sestrei eustea eskatzen du.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA

- HIRIGINTZA SAILKAPENA

Hiri Zorua.....azalera: 16.777,61 m²a

- KALIFIKAZIO GLOBALA

- **Bizilekuak (R)**.....azalera: 12.524,85 m²a

- Hirigintza eraikigarritasuna:

- Sestra gainean.....27.300,00 m²s

- Sestrapean Eraikinaren % 100 sestra gainean

- Erabilera erregimena:

Plan Nagusi honen Arautegiaren 2.2.3. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Bizileku alorreko Hirigintza Eraikigarritasunaren gehikuntzaren erregimena babes publikoko etxebizitzaren eta hornidura bizitokiaren estandarrekiko.

- Hirigintza eraikigarritasun gorena27.300 m²s

- Bizilekuak ez diren erabilera baimenduen eraikigarritasuna 4.300 m²s (*)

- Gauzatutako eraikigarritasuna 2.652 m²s (*)

- Bizileku erabileraren eraikigarritasunaren gehikuntza 20.348 m²s (*)

(*) Baimendutako erabileraren ehunekoaren arabera eta dauden eraikinen arabera kalkulaturako eraikigarritasunak.

-

- Babes publikoko etxebizitza (Gutxieneko ehunekoa) % 40
Ildo horretatik erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke erabiliko da bizileku erabilerarako eraikigarritasun gehikuntzaren % 20 gutxienez.

- Hornidura bizitokiak 1,50 m²a /100 m²s
305,22 m²a-ko azalera kalkulatu da hornidura bizitokiei begira zehaztutako erreserba. Erreserba hori 6.1.01 Lartzabal esparruan aurreikusten da.

- **Bide Sistema Orokorra (V)**.....azalera: 4.252,76 m²a

- AIREKO ZORTASUNAK. ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK

Esparru osorako 49,00 kota finkatu da itsas mailarekiko altuera goren gisa eta haren gainetik ez da inolako eraikuntzarik irtengo, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipoiak, igogailuen kutxak, kartelak, dekorazio erremateak bezalako elementu guztiak barne. Era berean, kota hori ezin izango dute gainditu dagoen lurrian egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek, zutoinak, antenak, aerosorgailuak, haien palak barne, kartelak, energia elektrikoa

garraiatzeko lineak, telekomunikazio azpiegiturak eta abar, eta ezta ibilgailuentzako baimendutako galibo gorenak ere.

Plan Nagusi honen A sortan “Hirigintza eraginak” dagokion eremuko planoan islatu dira zehatz burubide horiek.

Plan Nagusi honek arauen arabera finkaturiko eraikigarritasuna gauzatu ahal izateko, goian azaldutakoaren arabera definituriko altuera gorenaren mugak bete beharko dira betiere. Muga horien ondorioz eraikigarritasuna ezin bada osorik gauzatu, eta kontuan izanik, daukaten funtzio sozialagatik, jabetza eskubidearekiko legezko mugak direla Aireko Zortasunak, ondorio horietarako hartu daitekeen erabakiak ez du kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

- **ANTOLAMENDU XEHEA ZEHAZTEKO ERREGIMENA**

Esparru honetan Hiri Antolamendurako Plan Berezi bat egingo da. Horrenbestez, Plan Nagusi honek garapenerako plangintza baten esku uzten du antolamendu xehearen zehaztapena.

- **PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA**

Udal barrutian aurrera eramano hiriaren bilakaerarako eta lurzorua okupatzeko estrategiaren arabera, aurreikusi da Plan Nagusiaren programazio denboraren barnean gauzatuko dela esparrua.

Hiri Antolamendurako Plan Berezia idatzi eta onartuko da Plan Nagusi hau behin betikoz onartzen den egunetik kontatzen hasita gehienez ere lau urteko epean.

Esparru honetan aintzat hartutako Sistema Orokorreko Bidea definitu da berau lortu, gauzatu eta kostuak jasotzeko.

4.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHEA

Esparru honetan burura eramano beharreko Hiri Antolamendurako Plan Bereziak ezarriko ditu hirigintza erregimen xeheari dagozkion baldintzak. Horri dagokionean, plangintza xehe honek, indarrean dagoen legeriak xedaturikoarekin bat, esparruaren barnean tokiko sistemetako sareko berdeguneetarako eta espazio libreetarako aurreikusitako erreserba egokitu ahal izango da. Tokiko beste hornidura publikoetarako gorde beharreko zoruari dagokionean, 4.342,60 m²a azalera, aintzat hartuko da 4.2.07 “Kostorbe” esparruan kokatzeko aukera.

- **BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK**

Bizileku horniduretarako zehaztutako erreserba 6.1.01 “Lartzabal” esparruan egokitzeko aukera aurreikusten da.

Esku hartzea aurreikusi da Lopez Becerra kalearen mendebaldeko aurrealdean (esku hartze puntuala kantoian, ekialdeko aurrealdean). Zokalo bat egokituko da 20.00ko kotan, Colon Ibilbidearen eta Pio XII plazaren artean oinezkoentzako lotura

bideratzeko maila berean. Zokalo horren gaineko eraikigarritasunaren profilak beheko solairua, bost goiko solairu eta atikoa atzera emana izango ditu gehienez Lopez Becerra kalera ematen duen aurrealdean eta beheko solairua eta bost goiko solairu profilari eutsiko dio kale ortogonaletako aurrealdeetan, eta horrenbestez, bertan dauden eraikinekiko loturretan. Azken profil hori dute haiek ere.

Esparru honetan dauden eraikinak, lehendik ere bazeuden eraikinen kategoria gisa jasoak izango dira Plan Berezian. Nolanahi ere, eta Plangintza onartzen ez den bitartean, 2/2006 Legearen 101. artikuluan zehaztutakoaren arabera izango dira haietan gauzatzen diren lanen izaera eta irismena:

- Baimendu ahal izango dira eraikina gutxieneko bizigarritasun eta osasungarritasun baldintzetan mantentzeko beharrezkotzat hartzen diren obrak eta hirugarrenetikiko kalteak saihesteko direnak.
- Ez dira baimenduko bolumenaren hobekuntza edo gehikuntza dakarten obra partzialak. Salbuespen gisa sendotze obra partzialak eta noiz-nolakoak baimendu ahal izango dira 15 urteko epean eraikina desjabetzea edo eraistea aurreikusi ez denean, obra horiek egin nahi diren datatik aurrera kontatuta eta obra horiek higiezinari balio handiagoa ematea ez dakartenean.
- Esparruan bizileku erabilera baimendua dagoenez, eraikinak dauden bitartean, haietan dauden erabilerak bateragarritzat hartzen dira hirigintza antolamenduarekin, baina ezin da besterik erantsi, bulegorako edo merkataritzarako ez bada bederen, eta hori eraikinaren erregimena eta bizi aldia aldatu gabe betiere. Ustezko erabilera berri horiek behin-behineko izaera izango dute eta 2/2006 Legearen 36. artikulua xedaturiko baldintzetan baimenduko ditu Udalak.

Azkenik, eta Hirigintza Jarduerarako Programa onartzen ez den bitartean (2/2006 Legearen 32. art.) ezin izango dira baimendu ez lurren zatiketa, eta ez hirigintza eraldaketa dakarten ekintzak eta erabilerak ere.

5.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA

Esparru honetan sustatu beharreko Hiri Antolamendurako Plan Bereziak eta berau garatzeko xedean formulatu beharreko beste dokumentu eta proiektuek zehaztuko dute Esparru hau gauzatzeko berariazko erregimena.

6.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Izaera orokorrez, Ingurumen Iraunkortasun Txostenean eta Plan Nagusiaren Hirigintza Arauen dokumentuan horiei begira xedaturikoa beteko da. Zehatz esateko, honako haiek dira, besteak beste, esparru honetan eragina duten baldintzatzailleak:

- **Eragin Akustikoak:**

Dagokion hirigintza eta ingurumen tramitazioa bideratu ahal izateko, eremuko eragin akustiko orokorra aurreikusteko moduko zarataren mapak eta ebaluazio akustikoak bilduko dituen Eragin Akustikoaren Azterketa egin beharko da.

- **Burdinbide sektoreko legeria eta zortasunen eragina:**

Esparru honetarako, burdinbide sektorearen mugako eremutik hurbil edo jarraian egoteagatik, eta burdinbide ardatzen mugako eremuetan aurrera eraman daitezkeen jardueretarako baldintza bereziak arautzen dituen 391/2003 Legearen arabera, honako muga hauek hartuko dira kontuan: 8 metroko jabari publikoko eremua, 70 metroko babes eremua, eta 50 metroko eraikuntza muga, hiri eremuetan 20 metrora murriztuko dena, aipaturiko Lege horren 13., 14. eta 16. artikuluetan aipatu bezala. Era berean, 15. artikuluen arabera, kontuan izango da burdinbide azpiegiturretan jabari publiko eta babes eremuetan edozein eratako obra edo instalazio finko edo behin-behineko instalazioa egiteko, horien xedea edo horietan bidera daitekeen jarduera mota aldatzeko eta zuhaitzak landatu edo botatzeko, Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoaren, eremuko mugakide gisa, baimena beharko da aurretik.

Eraikuntzaren mugalerroari dagokionean, Sustapen Ministerioaren uztailaren 6ko 2230/2005 Aginduaren arabera: "hiri eremuetatik doazen interes orokorreko trenbide sareko linea zatietan, baldin eta dagokion hirigintza plangintzak onartzen badu, burdinbide plataformaren kanpoaldeko erpinetik 20 metrora egongo da eraikuntzaren mugalerroa. Hala ere, aipatutako distantzia hori murriztu ahal izango da kasu berezietan, baldin eta egin nahi den murrizketa hori hirigintza antolamendua hobetzeko bada eta burdinbidearen ustiapenari kalterik eragiten ez badio, interesatuak aurrez eskaera egin eta dagokion espediente administratiboa tramitatu ondoren. Betiere horren aldeko iritzia eman beharko du dagokion burdinbide azpiegituraren administratzaileak"

Era berean, eraikuntzarako lizentzia lortzeko, burdinbidearen mugan dauden eraikuntza berriko proiektuek burdinbideak eraikinen barnealdean eragingo dituen zarata eta bibrazioen mailaren berariazko azterketa beharko dute, eta baita proiektu horiek hartutako neurriak ere, eraikuntzaren barnean bibrazio pertzepzioaren indizeak eta zarataren mailak indarrean dagoen arloko legeriak onartutakoa ez duela gaindituko ziurtatu ahal izateko.

Era berean, EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legeak, eta zehatz esateko, 41/2001 Dekretuak onartutako Trenbide Sareko Lurraldearen Arloko Planak eta bidean dagoen Aldaketak aurreikusitakoa errespetatu eta hartara egokituko da antolamendua.

- **Aireko Zortasunei dagokien legeria:**

Esparru hau Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuaren barruan dagoenez, obrei ekiteko baimena lortu ahal izateko Arloko Arautegia eta aireko zortasunen esparruan aplikagarria den legeria eta hartatik eratorritako eragin akustikoei buruzko legeria bete beharko dira. Ildo horretatik:

- Aintzat hartuko da hirigintza fitxa honetako 3. atalean –Hirigintza Erregimen Egiturazalea– finkatutakoa.
- Esparru hau garatuko duen Plan Bereziaren, Plan Partzialaren edo kideko tresnaren edo, hala behar badu, onartutako plangintzaren berrikuspen edo aldaketaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 10. artikuluan xedaturikoari jarraiki, esparru honetan ez dira Donostiako Aireportuan dabilzan aireontzientzako arriskutsu izan litekeen ke, hauts edo gisakorik igortzen duten instalazioak baimenduko, ez eta aske dabilzan hegaztientzako babesgune izan litezkeen instalazioak ere.
- Kontuan edukiko dira eguzki-argiaren balizko islapenak teilatu eta estalkietan, baita aireontzien tripulazioarentzako traba izan litezkeen eta aireko operazioen segurtasuna arriskuan jar dezaketen bestelako argi-iturri guztiak ere.
- Aireko Zortasunei buruzko 2490/1974 Dekretuak aldatutako 584/1972 Dekretuaren 15. Artikuluko b) atalean xedatutakoari jarraiki, debekatuta dago Aireko Nabigaziorako irradi-instalazioen Segurtasun Eremuetan edozein eraikin eraikitzea edo lur eremuaren eraketaren aldi baterako edo betiko aldaketa burura eramatea, bertako gainazala edo haren gainean dauden elementuak aldatzea, Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs) aldeztu aurretik baimena ematen ez badu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 16. Artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, ezinbestekoa da aldeko txostena eragozpenak mugatzen dituzten azalerak gainditu ez arren aireko irradi-instalazioen funtzionamendu egokia nahasi dezaketen erradiazio elektromagnetikoak sorrarazi ditzakeen irradi-igorleak edo bestelako gailuak paratu ahal izateko.
- Aireko Legezko Zortasun Eremuen esparruan edozein eraikin edo egitura egiteko eta horretarako behar diren bitartekoak jartzeko (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne), aldeztu aurretik aldeko txostena eman beharko du Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs), 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako 582/72 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera.


Bestalde, A sailean “Hirigintza eraginak” dagokion planoan, Plan Nagusi honen dokumentazio grafikoaren barnean baitago hura, islatzen da esparru honen antolamenduaren aurrerapena, bertan definituriko Aireko Zortasunen azalera mugatzaileen mailaren marrei gainjarria, eta baita esparru honetarako zehaztutako eraikuntzaren altuera gorena ere eta, behin antolamendua garatu ondoren aurreikusitako lurraren sestra kotak ere, hala behar badu.

Adierazitako baldintzatzaleak arautzen dituzten eta indarrean dauden irizpideak aplikatuko dira kasu hauetan guztietan.

Ingurumen izaerako neurriei dagokienez, Plan Nagusi honetara jasotako Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean azaldutako babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko xedapenak izango dira aplikagarri.

ÁMBITO: LÓPEZ DE BECERRA

5.1.01



Plano de Calificación Global

Escala: 1/ 2.000

ESPARRUA: MENDIBIL**5.2.04****HIRIGINTZA ZEHAZTAPENAK:****1.- DESKRIBAPENA**

Hiriaren iparraldean dago esparru hau, Mendibilgo egungo parkearen mendebaldeari atxikita.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU NAGUSIAK

Bizileku eraikin bat eraikitzea aurreikusten da dauden lerrokadurekin eta profilekin. Parkera iristeko oinezkoentzako sarbidea Migel de Astigar kalearen luzapena izatea aurreikusten da, baina kale horri eman behar zaion oinezkoentzako tratamenduak aukera eman beharko du, gainera, bidean bira egiteko eta gurpildunak bertako bizileku erabileretara iristeko. Hori guztia Jaizkibel aldera dagoen ikus-zabaltasunari eutsita.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA**- HIRIGINTZA SAILKAPENA**

Hiri Zorua.....azalera: 1.640,38 m²a

- KALIFIKAZIO GLOBALA

- Bizilekuak (R).....azalera: 1.640,38 m²a

- Hirigintza eraikigarritasuna:

- Sestra gainean.....420,00 m²s

- Sestraperan Eraikinaren % 100 sestra gainean

- Erabilera erregimena:

Plan Nagusi honen Arautegiaren 2.2.3. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Bizileku alorreko Hirigintza Eraikigarritasunaren gehikuntzaren erregimena babes publikoko etxebizitzaren eta hornidura bizitokien estandarrekiko.

- Hirigintza eraikigarritasun gorena 420 m²s

- Bizilekuak ez diren erabilera baimenduen eraikigarritasuna 0 m²s (*)

- Gauzatutako eraikigarritasuna 0 m²s (*)

- Bizileku erabileraren eraikigarritasunaren gehikuntza 420 m²s (*)

(*) Baimendutako erabileren ehunekoaren arabera eta dauden eraikinen arabera kalkulaturako eraikigarritasunak.

- Babes publikoko etxebizitza (Gutxieneko ehunekoa) % 0
Hornidurarako Jarduera

- Hornidura bizitokiak 1,50 m²a /100 m²s
6,30 m²a-ko azalera kalkulatu da hornidura bizitokiei begira zehaztutako erreserba. 6.1.01 Lartzabal esparruan aurreikusten da berau.

- AIREKO ZORTASUNAK ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK

Esparru osorako 49,00 kota finkatu da itsas mailarekiko altuera goren gisa eta haren gainetik ez da inolako eraikuntzarik irtengo, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipoak, igogailuen kutxak, kartelak, dekorazio erremateak bezalako elementu guztiak barne. Era berean, kota hori ezin izango dute gainditu dagoen lurrian egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek, zutoinak, antenak, aerosorgailuak, haien palak barne, kartelak, energia elektrikoa garraiatzeko lineak, telekomunikazio azpiegiturak eta abar, eta ezta ibilgailuentzako baimendutako galibo gorenak ere.

Plan Nagusi honen A sortan "Hirigintza eraginak" dagokion eremuko planoan islatu dira zehatz burubide horiek.

Plan Nagusi honek arauen arabera finkaturiko eraikigarritasuna gauzatu ahal izateko, goian azaldutakoaren arabera definituriko altuera gorenaren mugak bete beharko dira betiere. Muga horien ondorioz eraikigarritasuna ezin bada osorik gauzatu, eta kontuan izanik, daukaten funtzio sozialagatik, jabetza eskubidearekiko legezko mugak direla Aireko Zortasunak, ondorio horietarako hartu daitekeen erabakiak ez du kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

- ANTOLAMENDU XEHEA ZEHAZTEKO ERREGIMENA

Esparru honetan Hiri Antolamendurako Plan Berezi bat egingo da. Horrenbestez, Plan Nagusi honek garapenerako plangintza baten esku uzten du antolamendu xehearen zehaztapena.

- PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA

Udal barrutian aurrera eramaniko hiriaren bilakaerarako eta lurzorua okupatzeko estrategiaren arabera, aurreikusi da Plan Nagusiaren programazio denboraren barnean gauzatuko dela esparrua.

Plan Berezi bat egin eta onartuko da gehienez ere lau urteko epean garatuko dela ziurtatzeko, Plan Nagusi hau betiko onartzen denetik aurrera kontatuta.

4.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHEA

- KALIFIKAZIO XEHEA

Esparru honetan garatu beharreko Hiri Antolamendurako Plan Bereziak zehaztuko ditu hirigintza erregimen xehearen baldintzak. Tokiko sistema sareko hornidura eta ekipamenduetarako lurren erreserba egitea aurreikusten da. Indarrean dagoen legeriaren arabera eta lekuko baldintzak kontuan harturik finkatu da aipatutako erreserba hori.

- **BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK**

Bizileku horniduretarako zehaztutako erreserba 6.1.01 “Lartzabal” esparruan egokitzeko aukera aurreikusten da.

Behe solairua eta altuera bakarreko etxebizitza izango da profil gorena, eta esparruaren hegoaldean dagoeneko eraikita dauden eraikinen antzeko tipologia eta okupazioari eutsiko zaie, eraikuntzen aurrealdeko eta atzealdeko lerrokadurak mantenduz.

5.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA

Esparru honetan sustatu beharreko Plan Bereziak eta berau garatzeko xedean formulatu beharreko beste dokumentu eta proiektuek zehaztutakoa izango da esparru hau gauzatzeko berariazko erregimena.

6.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Izaera orokorrez, Ingurumen Iraunkortasun Txostenean eta Plan Nagusiaren Hirigintza Arauen dokumentuan horiei begira xedaturikoa beteko da. Zehatz esateko, honako hauek dira, besteak beste, esparru honetan eragina duten baldintzatzailleak:

- **Burdinbide sektoreko legeria eta zortasunen eragina:**

Esparru honetarako, burdinbide sektorearen mugako eremutik hurbil edo jarraian egoteagatik, eta burdinbide ardatzen mugako eremuetan aurrera eraman daitezkeen jardueretarako baldintza bereziak arautzen dituen 391/2003 Legearen arabera, honako muga hauek hartuko dira kontuan: 8 metroko jabari publikoko eremua, 70 metroko babes eremua, eta 50 metroko eraikuntza muga, hiri eremuetan 20 metrora murriztuko dena, aipaturiko Lege horren 13., 14. eta 16. artikuluetan aipatu bezala. Era berean, 15. artikuluen arabera, kontuan izango da burdinbide azpiegituretan jabari publiko eta babes eremuetan edozein eratako obra edo instalazio finko edo behin-behineko instalazioa egiteko, horien xedea edo horietan bidera daitekeen jarduera mota aldatzeko eta zuhaitzak landatu edo botatzeko, Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoaren, eremuko mugakide gisa, eta Burdinbide Azpiegituren Administrazioaren (ADIF) baimena beharko da aurretik, hala behar badu.”

Eraikuntzaren mugalerroari dagokionean, Sustapen Ministerioaren uztailaren 6ko 2230/2005 Aginduaren arabera: “hiri eremuetatik doazen interes orokorreko trenbide sareko linea zatietan, baldin eta dagokion hirigintza plangintzak onartzen badu, burdinbide plataformaren kanpoaldeko erpinetik 20 metrora egongo da eraikuntzaren mugalerroa. Hala ere, aipatutako distantzia hori murriztu ahal izango da kasu berezietan, baldin eta egin nahi den murrizketa hori hirigintza antolamendua hobetzeko bada eta burdinbidearen ustiapenari kalterik eragiten ez

badio, interesatuak aurrez eskaera egin eta dagokion espediente administratiboa tramitatu ondoren. Betiere horren aldeko iritzia eman beharko du dagokion burdinbide azpiegituraren administratzaileak"

Era berean, eraikuntzarako lizentzia lortzeko, burdinbidearen mugan dauden eraikuntza berriko proiektuek burdinbideak eraikinen barnealdean eragingo dituen zarata eta bibrazioen mailaren berariazko azterketa beharko dute, eta baita proiektu horiek hartutako neurriak ere, eraikuntzaren barnean bibrazio pertzepzioaren indizeak eta zarataren mailak indarrean dagoen arloko legeriak onartutakoa ez duela gaindituko ziurtatu ahal izateko.

Era berean, EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legeak, eta zehatz esateko, 41/2001 Dekretuak onartutako Trenbide Sareko Lurraldearen Arloko Planak eta bidean dagoen Aldaketak aurreikusitakoa errespetatu eta hartara egokituko da antolamendua.

- Eragin Akustikoak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuan zehaztutakoak beteko dira.

Dagokion hirigintza eta ingurumen tramitazioa bideratu ahal izateko, eremuko eragin akustiko orokorra aurreikusteko moduko zarataren mapak eta ebaluazio akustikoak bilduko dituen Eragin Akustikoaren Azterketa egin beharko da.

- Aireko Zortasunei dagokien legeria:

Esparru hau Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuaren barruan dagoenez, obrei ekiteko baimena lortu ahal izateko Arloko Arautegia eta aireko zortasunen esparruan aplikagarria den legeria eta hartatik eratorritako eragin akustikoei buruzko legeria bete beharko dira. Ildo horretatik:

- Aintzat hartuko da hirigintza fitxa honetako 3. atalean –Hirigintza Erregimen Egituratzalea– finkatutakoa.
- Esparru hau garatuko duen Plan Bereziaren, Plan Partzialaren edo kideko tresnaren edo, hala behar badu, onartutako plangintzaren berrikuspen edo aldaketaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 10. artikuluan xedaturikoari jarraiki, esparru honetan ez dira Donostiako Aireportuan dabilzan aireontzientzako arriskutsu izan litekeen ke, hauts edo gisakorik igortzen duten instalazioak baimenduko, ez eta aske dabilzan hegaztientzako babesgune izan litezkeen instalazioak ere.

- Kontuan edukiko dira eguzki-argiaren balizko islapenak teilatu eta estalkietan, baita aireontzien tripulazioarentzako traba izan litezkeen eta aireko operazioen segurtasuna arriskuan jar dezaketen bestelako argi-iturri guztiak ere.
- Aireko Zortasunei buruzko 2490/1974 Dekretuak aldatutako 584/1972 Dekretuaren 15. Artikuluko b) atalean xedatutakoari jarraiki, debekatuta dago Aireko Nabigaziorako irrati-instalazioen Segurtasun Eremuetan edozein eraikin eraikitzea edo lur eremuaren eraketaren aldi baterako edo betiko aldaketa burura eramatea, bertako gainazala edo haren gainean dauden elementuak aldatzea, Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs) aldeztu aurretik baimena ematen ez badu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 16. Artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, ezinbestekoa da aldeko txostena eragozpenak mugatzen dituzten azalerak gainditu ez arren aireko irrati-instalazioen funtzionamendu egokia nahasi dezaketen erradiazio elektromagnetikoak sorrarazi ditzakeen irrati-igorleak edo bestelako gailuak paratu ahal izateko.
- Aireko Legezko Zortasun Eremuen esparruan edozein eraikin edo egitura egiteko eta horretarako behar diren bitartekoak jartzeko (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne), aldeztu aurretik aldeko txostena eman behar du Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs), 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako 582/72 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera.


Bestalde, A sailean "Hirigintza eraginak" dagokion planoan, Plan Nagusi honen dokumentazio grafikoaren barnean baitago hura, islatzen da esparru honen antolamenduaren aurrerapena, bertan definituriko Aireko Zortasunen azalera mugatzaileen mailaren marrei gainjarria, eta baita esparru honetarako zehaztutako eraikuntzaren altuera gorena ere eta, behin antolamendua garatu ondoren aurreikusitako lurraren sestra kotak ere, hala behar badu.

Adierazitako baldintzatzaileak arautzen dituzten eta indarrean dauden irizpideak aplikatuko dira kasu hauetan guztietan.

Ingurumen izaerako neurriei dagokienez, Plan Nagusi honetara jasotako Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean azaldutako babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko xedapenak izango dira aplikagarri.

ÁMBITO: MENDIBIL

5.2.04



Plano de Calificación Global

Escala: 1/ 1.000

ESPARRUA: ARIZMENDI ALMIRANTEA**5.2.06****HIRIGINTZA ZEHAZTAPENAK:****1.- DESKRIBAPENA**

1999ko Plan Nagusiak finkatutako hirigintza alorreko burubide orokorrak garatzeko prozesuan dago esparru hau, tokiko ezaugarri tipologikoekin bat datorren bizileku alde bat antolatu ahal izateko.

1999ko Plan Nagusian zehaztutako hirigintza burubideak garatu ahal izateko, 2006ko azaroaren 29an behin betiko onartu zen zegokion Hiri Antolamendurako Plan Berezia.

Plan Nagusi honek sendotu egiten ditu 1999ko Plan Nagusian finkatutako hirigintza alorreko burubide orokorrak, baina sendotutako hiri ingurunean dagoen hirigintza erakigarritasunarekin bat etorririk, zehaztutako hirigintza eraikigarritasunaren gehikuntza bat ahalbidetzen du.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU NAGUSIAK

- Iparralde Hiribidearen ondoko bide sarea osatzea, Arizmendi Almirantea kalea luzatuz eta aipatu bideak Mendibilgo bizileku aldean zerbitzatzen dituen beste lursail zatiak antolatuz.
- Gudari kalearen aurrealdean dauden 4 bizileku eraikinak sendotzea.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA**- HIRIGINTZA SAILKAPENA**

Hiri Zorua.....azalera: 9.765,80 m²a

- KALIFIKAZIO GLOBALA

- **Bizilekuak (R)**.....azalera: 9.765,80 m²a

- Hirigintza eraikigarritasuna:

- Sestra gainean..... 0,80 m²s / m²a

- Sestrapean Eraikinaren % 100 sestra gainean

- Erabilera erregimena:

Plan Nagusi honen Arautegiaren 2.2.3. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Bizileku alorreko Hirigintza Eraikigarritasunaren gehikuntzaren erregimena babes publikoko etxebizitzaren eta hornidura bizitokien estandarrekiko.

1999ko Plan Nagusiaren hirigintza alorreko burubideak garatzeko prozesuan dago esparrua, eta beraz, Plangintza honetan jada zehaztutakoa da babestutako etxebizitzaren eta hornidura bizitokiaren estandarrak finkatzeko erregimen juridikoa.

Zentzu horretan, 1999ko Plan Nagusiak ez du hirigintza eraikigarritasunaren ehuneko jakin bat babestutako etxebizitzak eraikitzeko obligazioa aurreikusten.

Plan Nagusi honek bizitoki alorreko hirigintza eraikigarritasunaren gehikuntza ahalbidetzen du aurrez zehaztutakoaren aldean. Hortaz, burura eramaten baldin bada, babestutako etxebizitzaren ehuneko berriak soilik aipatutako gehikuntzari aplikatuko zaizkio.

- Hirigintza eraikigarritasun gorena 7.813,00 m²s
- Bizilekuak ez diren erabilera baimenduen eraikigarritasuna 0 m²s (*)
- Gauzatutako eraikigarritasuna 3.189,70 m²s (*)
- PN berriaren finkatutako bizitoki alorreko eraikigarritasuna 4.623,30 m²s (*)
- 1999ko Plan Nagusiaren finkatutako bizitoki alorreko eraikigarritasuna 3.748,30 m

- Bizileku erabileraren eraikigarritasunaren gehikuntza 875 m²s

(*) Baimendutako erabileraren ehunekoaren arabera eta dauden eraikinen arabera kalkulaturako eraikigarritasunak.

- Babes publikoko etxebizitza (Gutxieneko ehunekoa) % 40
Ildo horretatik erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko erabiliko da bizileku erabilerarako eraikigarritasun gehikuntzaren % 20 gutxienez. Babes publikoko etxebizitza 6.2.08 "Alei" esparruan egokitzeko aukera aurreikusten da.

- Hornidura bizitokiak 1,50 m²a /100 m²s
69,35 m²a-ko azaleran aurreikusten da hornidura bizitokietarako zehaztutako erreserba (PN berriak 4.623,30 m²s-an finkatutako bizitoki eraikigarritasunari dagokionez) eta 6.1.01 "Lartzabal" esparruan egokitzea aurreikusten da.

- AIREKO ZORTASUNAK. ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK

Esparru osorako 49,00 kota finkatu da itsas mailarekiko altuera goren gisa eta haren gainetik ez da inolako eraikuntzarik irtengo, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipak, igogailuen kutxak, kartelak, dekorazio erremateak bezalako elementu guztiak barne. Era berean, kota hori ezin izango dute gainditu dagoen lurrian egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek, zutoinak, antenak, aerosorgailuak, haien palak barne, kartelak, energia elektrikoa garraiatzeko lineak, telekomunikazio azpiegiturak eta abar, eta ezta ibilgailuentzako baimendutako galibo gorenak ere.

Plan Nagusi honen A sortan "Hirigintza eraginak" dagokion eremuko planoan islatu dira zehatz burubide horiek.

Plan Nagusi honek arauen arabera finkaturiko eraikigarritasuna gauzatu ahal izateko, goian azaldutakoaren arabera definituriko altuera gorenaren mugak bete beharko dira betiere. Muga horien ondorioz eraikigarritasuna ezin bada osorik gauzatu, eta kontuan izanik, daukaten funtzio sozialagatik, jabetza eskubidearekiko legezko mugak direla Aireko Zortasunak, ondorio horietarako hartu daitekeen erabakiak ez du kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

- **ANTOLAMENDU XEHEA ZEHAZTEKO ERREGIMENA**

Esparru honi begira Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren Aldaketa bat idatziko da. Plan Nagusi honek, beraz, garapenerako plangintzaren esku uzten du antolamendu xehearen zehaztapena.

- **PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA**

Udal barrutian aurrera eramaniko hiriaren bilakaerarako eta lurzorua okupatzeko estrategiaren arabera, aurreikusi da Plan Nagusiaren programazio denboraren barnean gauzatuko dela esparrua.

Hiri Antolamendurako Plan Berezia idatzi eta onartuko da Plan Nagusi hau behin betikoz onartzen den egunetik kontatzen hasita gehienez ere lau urteko epean.

4.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHEA

Onartutako Hiri Antolamendurako Plan Bereziak ezartzen ditu hirigintza erregimen xeheari dagozkion baldintzak, nahiz aldaketa batzuk izan daitezkeen Plangintza Nagusiaren esparruan.

Plan Nagusi honek, aurrekoaren aldean, hirigintza eraikigarritasunaren gehikuntza ahalbidetzen duenez, hori burura eramaten bada onartutako Hirigintza Antolamendurako Plan Bereziaren Aldaketa eskatuko da.

Kasu horretan, plangintza xehe honek, indarrean dagoen legeriak xedaturikoarekin bat, esparruaren barnean tokiko sistemetako sareko berdeguneetarako eta espazio libreetarako aurreikusitako erreserba definitu beharko du. Horrekin loturik, eta erreserba horietarako, 4.342,60 m²a azalera berdeguneetarako eta espazio libreetarako, eta 175,00 m²a azalera beste hornidura publikoetarako, aintzat hartuko da horiek 4.2.07 "Kostorbe" esparruan kokatzeko aukera.

- **BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK**

Orain onartzen den eraikigarritasunaren gehikuntza bizileku eraikinetan banatuko da eta gehienezko profila beheko solairua, goiko bi solairu eta estalkipeko solairua izango da, RP-05 kalifikazio xeherako definitutakoarekin bat. Etxebizitzan erabilera osagarrietarako zokalo baten gainean egokituko dira eraikuntza horiek, eta sestrapean aintzat hartu da haren eraikigarritasuna.

5.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA

Esparru honetan sustatu beharreko Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren Aldaketak eta berau garatzeko xedean formulatu beharreko beste dokumentu eta proiektuek zehaztutakoa izango da esparru hau gauatzeko berariazko erregimena.

6.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Izaera orokorrez, Ingurumen Iraunkortasun Txostenean eta Plan Nagusiaren Hirigintza Arauen dokumentuan horiei begira xedaturikoa beteko da. Zehatz esateko, honako hauek dira, besteak beste, esparru honetan eragina duten baldintzatzailleak:

- **Eragin Akustikoak:**

Dagokion hirigintza eta ingurumen tramitazioa bideratu ahal izateko, eremuko eragin akustiko orokorra aurreikusteko moduko zarataren mapak eta ebaluazio akustikoak bilduko dituen Eragin Akustikoaren Azterketa egin beharko da.

- **Aireko Zortasunei dagokien legeria:**

Esparru hau Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuaren barruan dagoenez, obrei ekiteko baimena lortu ahal izateko Arloko Arautegia eta aireko zortasunen esparruan aplikagarria den legeria eta hartatik eratorritako eragin akustikoei buruzko legeria bete beharko dira. Ildo horretatik:

- Aintzat hartuko da hirigintza fitxa honetako 3. atalean –Hirigintza Erregimen Egituratzaillea– finkatutakoa.
- Esparru hau garatuko duen Plan Bereziaren, Plan Partzialaren edo kideko tresnaren edo, hala behar badu, onartutako plangintzaren berrikuspen edo aldaketaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 10. artikuluan xedaturikoari jarraiki, esparru honetan ez dira Donostiako Aireportuan dabilzan aireontzientzako arriskutsu izan litekeen ke, hauts edo gisakorik igortzen duten instalazioak baimenduko, ez eta aske dabilzan hegaztientzako babesgune izan litezkeen instalazioak ere.
- Kontuan edukiko dira eguzki-argiaren balizko islapenak teilatu eta estalkietan, baita aireontzien tripulazioarentzako traba izan litezkeen eta aireko operazioen segurtasuna arriskuan jar dezaketen bestelako argi-iturri guztiak ere.
- Aireko Zortasunei buruzko 2490/1974 Dekretuak aldatutako 584/1972 Dekretuaren 15. Artikuluko b) atalean xedatutakoari jarraiki, debekatuta dago

Aireko Nabigaziorako irrati-instalazioen Segurtasun Eremuetan edozein eraikin eraikitzea edo lur eremuaren eraketaren aldi baterako edo betiko aldaketa burura eramatea, bertako gainazala edo haren gainean dauden elementuak aldatzea, Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs) alde zuzenetik baimena ematen ez badu.

- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 16. Artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, ezinbestekoa da aldeko txostena eragozpenak mugatzen dituzten azalerak gainditu ez arren aireko irrati-instalazioen funtzionamendu egokia nahasi dezaketen erradiazio elektromagnetikoak sorrarazi ditzakeen irrati-gorleak edo bestelako gailuak paratu ahal izateko.
- Aireko Legezko Zortasun Eremuen esparruan edozein eraikin edo egitura egiteko eta horretarako behar diren bitartekoak jartzeko (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne), alde zuzenetik aldeko txostena eman behar du Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs), 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako 582/72 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera.


Bestalde, A sailean "Hirigintza eraginak" dagokion planoan, Plan Nagusi honen dokumentazio grafikoaren barnean baitago hura, islatzen da esparru honen antolamenduaren aurrerapena, bertan definituriko Aireko Zortasunen azalera mugatzaileen mailaren marrei gainjarria, eta baita esparru honetarako zehaztutako eraikuntzaren altuera gorena ere eta, behin antolamendua garatu ondoren aurreikusitako lurraren sestra kotak ere, hala behar badu.

Adierazitako baldintzatzaileak arautzen dituzten eta indarrean dauden irizpideak aplikatuko dira kasu hauetan guztietan.

Ingurumen izaerako neurriei dagokienez, Plan Nagusi honetara jasotako Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean azaldutako babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko xedapenak izango dira aplikagarri.

ÁMBITO: ALMIRANTE ARIZMENDI

5.2.06



Plano de Calificación Global

Escala: 1/ 1.500

ESPARRUA: KASINOA**5.2.08****HIRIGINTZA ZEHAZTAPENAK:****1.- DESKRIBAPENA**

Udalerriaren erdialdean dago egungo Kasinoaren orube eraikiaren aztarnarekin bat datorren esparru hau, Colon Ibilbidean, Jose Ramon Agirretxe plazaren ondoan.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU NAGUSIAK

Esparru honetako eraikuntza osatu gabea osatzea, Jose Ramon Agirretxe plazari begira dagoen egungo lerrokadura zuzenduz eta, oraingoan, Berrotaran kaleak zehaztutako lerrokaduraren luzapen gisa antolatuz. Behe oin, sei solairu eta atzera eramandako atikoak osatutako perfila proposatzen da, gisa honetan egungo mehelinak Luis Mariano plazaren aurrean eragiten duen inpaktua arintzeko.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA**- HIRIGINTZA SAILKAPENA**

Hiri Zorua.....azalera: 454,43 m²a

- KALIFIKAZIO GLOBALA

- **Bizilekuak (R)**.....azalera: 454,43 m²a

- Hirigintza eraikigarritasuna:

- Sestra ganean.....2.650,00 m²s

- Sestrapean Eraikinaren % 100 sestra ganean

- Erabilera erregimena:

Plan Nagusi honen Arautegiaren 2.2.3. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Bizileku alorreko Hirigintza Eraikigarritasunaren gehikuntzaren erregimena babes publikoko etxebizitzaren eta hornidura bizitokien estandarrekiko.

- Hirigintza eraikigarritasun gorena 2.650 m²s

- Bizilekuak ez diren erabilera baimenduen eraikigarritasuna...986 m²s (*)

- Gauzatutako eraikigarritasuna0 m²s (*)

- Bizileku erabileraren eraikigarritasunaren gehikuntza1.664 m²s (*)

(*) Baimendutako erabileraren ehunekoaren arabera eta dauden eraikinen arabera kalkulaturako eraikigarritasunak.

- Babes publikoko etxebizitza (Gutxieneko ehunekoa) % 0
Hornidurarako Jarduera

- Hornidura bizitokiak 1,50 m²a/100 m²s
24,96 m²a-ko azalera kalkulatu da hornidura bizitokiei begira zehaztutako erreserba. 6.1.01 Lartzabal esparruan egokitzea aurreikusten da.

- AIREKO ZORTASUNAK ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK

Esparru osorako 49,00 kota finkatu da itsas mailarekiko altuera goren gisa eta haren gainetik ez da inolako eraikuntzarik irtengo, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipoak, igogailuen kutxak, kartelak, dekorazio erremateak bezalako elementu guztiak barne. Era berean, kota hori ezin izango dute gainditu dagoen lurrian egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek, zutoinak, antenak, aerosorgailuak, haien palak barne, kartelak, energia elektrikoa garraiatzeko lineak, telekomunikazio azpiegiturak eta abar, eta ezta ibilgailuentzako baimendutako galibo gorenak ere.

Plan Nagusi honen A sortan "Hirigintza eraginak" dagokion eremuko planoan islatu dira zehatz burubide horiek.

Plan Nagusi honek arauen arabera finkaturiko eraikigarritasuna gauzatu ahal izateko, goian azaldutakoaren arabera definituriko altuera gorenaren mugak bete beharko dira betiere. Muga horien ondorioz eraikigarritasuna ezin bada osorik gauzatu, eta kontuan izanik, daukaten funtzio sozialagatik, jabetza eskubidearekiko legezko mugak direla Aireko Zortasunak, ondorio horietarako hartu daitekeen erabakiak ez du kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

- ANTOLAMENDU XEHEA ZEHAZTEKO ERREGIMENA

Plan Nagusi honetan zehazten da esparruaren antolamendu xehea.

- PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA

Udal barrutian aurrera eramaniko hiriaren bilakaerarako eta lurzorua okupatzeko estrategiaren arabera, aurreikusi da Plan Nagusiaren programazio denboraren barnean gauzatuko dela esparrua.

Xehetasun Azterketa bat egin eta onartuko da gehienez ere lau urteko epean garatuko dela ziurtatzeko, Plan Nagusi hau betiko onartzen denetik aurrera kontatuta.

4.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHEA

- KALIFIKAZIO XEHEA

Plan Nagusi honek zehazten du hiri zoruko esparru honetako kalifikazio xehea. Tokiko sistema sareko hornidura eta ekipamenduetarako lurren erreserba egitea aurreikusten da. Indarrean dagoen legeriaren arabera eta lekuko baldintzak kontuan harturik finkatu da aipatutako erreserba hori. Horrekin loturik, tokiko beste

hornidura publikoetarako erreserbarako, 5,00 metro karratuko sabaia izango duen alternatiba hartu da aintzat hirigintza eraikigarritasunaren sestra gaineko 25,00 metro karratuko sabaiko, inolako eraikuntza eta urbanizazio kosturik gabe.

- Bizilekuak (R)

- Bidea ondoan Lerrokaturiko bizilekua (RV).....azalera: 350,11 m²a
 - Eraikigarritasun fisikoa:
 - Sestra gainean2.650,00 m²s
 - SestrareanEraikinaren % 100 sestra gainean
 - Plan Nagusi honen kalifikazio xeheari begira zehaztutakoarekin bat etorriko da erabilerarako erregimena.
- Oinezkoentzako Espazio Libreak (LL)azalera: 104,32 m²a

- ZORUAREN KATEGORIZAZIOA

Esparru honetara bildutako lur eremuak, aurrez esleiturikoaren nahiz aurrez zegoenaren aldean eraikigarritasun ponderatua gehitu izanagatik, sendotu gabeko hiri zoruak dira.

- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK

Bizileku horniduretarako zehaztutako erreserba 6.1.01 "Lartzabal" esparruan egokitzeko aukera aurreikusten da.

Eraikuntza berriaren profil gorena beheko solairua, goiko sei solairu eta atikoko solairua atzera emana izango da.

Kasinoaren egungo eraikina "husteko", barnealdea erabat berreraikitzeke eta solairu berriak egiteko aukera ematen duen babes-mailarekin jaso dago Katalogoan.

Halatan, hala Katalogoan nola fitxa honetan proposaturikoaren arabera, Kasinoaren eraikina sendotu egingo da haren jatorrizko bolumetria eta hiriko jauregitxo itxurako arkitektura mantentzeko, eta antolamendutik kanpo geratuko da beheko solairuko atzeko aldeko gorputz irtena, 1973. urtean egindako berritze baten ondorioa.

Nolanahi ere, hartan egin daitezkeen obren izaera eta hedadura 2/2006 Legearen 101. artikuluan xedaturikoaren arabera izango da:

- Baimendu ahal izango dira eraikina gutxieneko bizigarritasun eta osasungarritasun baldintzetan mantentzeko beharrezkotzat hartzen diren obrak eta hirugarrenetikiko kalteak saihesteko direnak.
- Ez dira baimenduko bolumenaren hobekuntza edo gehikuntza dakarten obra partzialak. Salbuespen gisa sendotze obra partzialak eta noiz-nolakoak baimendu ahal izango dira 15 urteko epean eraikina desjabetzea edo eraistea

aurreikusi ez denean, obra horiek egin nahi diren datatik aurrera kontatuta eta obra horiek higiezinari balio handiagoa ematea ez dakartenean.

- Esparruan bizileku erabilera baimendua dagoenez, eraikinak dauden bitartean, haietan dauden erabilerak bateragarritzat hartzen dira hirigintza antolamenduarekin, baina ezin da besterik erantsi, bulegorako edo merkataritzarako ez bada bederen, eta hori eraikinaren erregimena eta bizi aldia aldatu gabe betiere. Ustezko erabilera berri horiek behin-behineko izaera izango dute eta 2/2006 Legearen 36. artikulua xedaturiko baldintzetan baimenduko ditu Udalak.

Azkenik, eta Hirigintza Jarduerarako Programa onartzen ez den bitartean (2/2006 Legearen 32. art.) ezin izango dira baimendu ez lurren zatiketa, eta ez hirigintza eraldaketa dakarten ekintzak eta erabilerak ere.

5.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA

Esparru hau garatu ahal izateko Xehetasun Azterketa bat egin behar da.

Esparru honetan sustatu beharreko Xehetasun Azterketak eta berau garatzeko xedean formulatu beharreko beste dokumentu eta proiektuek zehaztutakoa izango da esparru hau gauzatze berariazko erregimena.

Planteatutako garapenaren gauzatzea Hornidura Jarduerak berezko duten modalitateari egokituko zaio.

6.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Izaera orokorrez, Ingurumen Iraunkortasun Txostenean eta Plan Nagusiaren Hirigintza Arauen dokumentuan horiei begira xedaturikoa beteko da. Zehatz esateko, honako hauek dira, besteak beste, esparru honetan eragina duten baldintzatzaileak:

- Aireko Zortasunei dagokien legeria:

Esparru hau Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuaren barruan dagoenez, obrei ekiteko baimena lortu ahal izateko Arloko Arautegia eta aireko zortasunen esparruan aplikagarria den legeria eta hartatik eratorritako eragin akustikoei buruzko legeria bete beharko dira. Ildo horretatik:

- Aintzat hartuko da hirigintza fitxa honetako 3. atalean –Hirigintza Erregimen Egituratzailerak– finkatutakoa.
- Esparru hau garatuko duen Plan Bereziaren, Plan Partzialaren edo kideko tresnaren edo, hala behar badu, onartutako plangintzaren berrikuspen edo aldaketaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege

Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu.

- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 10. artikuluan xedaturikoari jarraiki, esparru honetan ez dira Donostiako Aireportuan dabilzan aireontzientzako arriskutsu izan litekeen ke, hauts edo gisakorik igortzen duten instalazioak baimenduko, ez eta aske dabilzan hegaztientzako babesgune izan litezkeen instalazioak ere.
- Kontuan edukiko dira eguzki-argiaren balizko islapenak teilatu eta estalkietan, baita aireontzien tripulazioarentzako traba izan litezkeen eta aireko operazioen segurtasuna arriskuan jar dezaketen bestelako argi-iturri guztiak ere.
- Aireko Zortasunei buruzko 2490/1974 Dekretuak aldatutako 584/1972 Dekretuaren 15. Artikuluko b) atalean xedatutakoari jarraiki, debekatuta dago Aireko Nabigaziorako irradi-instalazioen Segurtasun Eremuetan edozein eraikin eraikitzea edo lur eremuaren eraketaren aldi baterako edo betiko aldaketa burura eramatea, bertako gainazala edo haren gainean dauden elementuak aldatzea, Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs) aldeztu aurretik baimena ematen ez bada.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 16. Artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, ezinbestekoa da aldeko txostena eragozpenak mugatzen dituzten azalera gainditu ez arren aireko irradi-instalazioen funtzionamendu egokia nahasi dezaketen erradiazio elektromagnetikoak sorrarazi ditzakeen irradigorleak edo bestelako gailuak paratu ahal izateko.
- Aireko Legezko Zortasun Eremuen esparruan edozein eraikin edo egitura egiteko eta horretarako behar diren bitartekoak jartzeko (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne), aldeztu aurretik aldeko txostena eman beharko du Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs), 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako 582/72 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera.

Udalerriaren erdialdean dago esparru hau, Lartzabal, Larruginen eta Aduana kaleen artean, eta ekipamenduei leku egitea aurreikusten da bertan. Xede horretan Plan Nagusi honek jaso egiten ditu Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren espedienteak ezarritako antolamendurako irizpideak, helburuak eta soluzioak. Aipatu dokumentua 2011ko urtarrilaren 4an onartu zuten behin betikoz.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Laguntza eta hornidura bizigunearen erabileretarako aurreikusitako lursail bitako bolumenak antolatzea eta lerrokadurak eta sestrak zehaztea. Larruginen eta Aduana kaleak berdindu egin beharko dira, inguruko bideen lerrokadurak aintzat hartuta.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA**- HIRIGINTZA SAILKAPENA**

Hiri Zorua.....azalera: 3, 385,40 m²a

- KALIFIKAZIO GLOBALA

- **Bizilekua (R)**.....azalera: 3, 131,00 m²a

- Hirigintza eraikigarritasuna:

- Sestra gainean.....0,00 m²s

- Sestrapean0,00 m²s

- Erabilera erregimena:

- Erabilera nagusia:..... Ekipamendu komunitarioa

- Baimendutako erabilerak:.....Laguntza eta Hornidura bizilekuak

- Bizileku eraikuntzaren gehikuntzaren erregimena hornidura bizitokien estandarrekiko.

Hornidura bizitokien erreserbarako azalera: 995 m²a

Esparru honetan jarraian adierazten diren esparruetan aurreikusitako hornidura bizitokien erreserba aurreikusten da. Honatx azalera: 5. 1. 01 "Lopez de Becerra" (305,22 m²a), 5. 2. 04 "Mendibil" (6,30 m²a), 5. 2. 06 "Almirante Arizmendi" (69,35 m²a), 5. 2. 08 "Casino" (24,96 m²a), 5. 2. 09 "Ikust Alaia" (62,25 m²a), 5. 2. 16 "Aldapeta" (82,37 m²a), 5. 3. 10 "Fermín

Calbetón” (11,19 m²a), 8. 2. 06 “Gazteluberri” 52,14 m²a), 8. 3. 04 “Lastaola Postetxea” (138,70 m²a) eta 8. 3. 05 “Mendipe” (220,25 m²a).

- Beste esparru batzuetan aurreikusiriko hornidura bizilekuetarako erreserbak egiteko aukera aurreikusten da esparru honetan.

- **Bide Sistema Orokorra (V)**.....azalera : 254,40 m²a

- **AIREKO ZORTASUNAK. ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK**

Esparru osorako 49,00 kota finkatu da itsas mailarekiko altuera goren gisa eta haren gainetik ez da inolako eraikuntzarik irtengo, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipoak, igogailuen kutxak, kartelak, dekorazio erremateak bezalako elementu guztiak barne. Era berean, kota hori ezin izango dute gainditu dagoen lurrian egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek, zutoinak, antenak, aerosorgailuak, haien palak barne, kartelak, energia elektrikoa garraiatzeko lineak, telekomunikazio azpiegiturak eta abar, eta ezta ibilgailuentzako baimendutako galibo gorenak ere.

Plan Nagusi honen A sortan “Hirigintza eraginak” dagokion eremuko planoan islatu dira zehatz burubide horiek.

Plan Nagusi honek arauen arabera finkaturiko eraikigarritasuna gauzatu ahal izateko, goian azaldutakoaren arabera definituriko altuera gorenaren mugak bete beharko dira betiere. Muga horien ondorioz eraikigarritasuna ezin bada osorik gauzatu, eta kontuan izanik, daukaten funtzio sozialagatik, jabetza eskubidearekiko legezko mugak direla Aireko Zortasunak, ondorio horietarako hartu daitekeen erabakiak ez du kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

- **ANTOLAMENDU XEHEA ZEHAZTEKO ERREGIMENA**

Plan Nagusi honek garapenerako plangintzaren esku uzten du antolamendu xehearen zehaztapena.

- **PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA**

Esparru hau gauzatze bidean da egun.

4.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHEA

Onartutako Hiri Antolamendurako Plan Bereziak zehazten du hirigintza erregimen xehea, baina aintzat hartu beharko dira Plan Nagusi honetara jasotako aldaketak.

- **KALIFIKAZIO XEHEA**

Plangintza xehe honen esparruan bi lursail zehazten dira. Laguntza Ekipamendurako izango da bata, 1.401 m²-ko lurrazalarekin, eta Hornidura Ekipamenduetarako (Bizileku Hornidurak) izango da bestea, 995 m²-ko

lurrazalarekin. Bestalde, honako eraikigarritasun fisiko guztizkoak zehazten dira lursail bi hauetako bakoitzean:

- Bizilekua (R)

- Eraikigarritasun fisikoa (Laguntzarako ekipamendua):
 - Sestra gainean.....2.400,00 m²s
 - Sestrapean1.401,00 m²s
- Eraikigarritasun fisikoa (Hornidura bizilekuen ekipamendua):
 - Sestra gainean.....2.928,00 m²s
 - Sestrapean810,00 m²s

5.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA

Esparru hau gauzatze bidean da tramite bidean den Hiri Antolamendurako Plan Bereziak eta berau garatzeko xedean formulatutako eta formulatu beharreko beste dokumentu eta proiektuek definitutako zehaztapenen arabera.

6.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Izaera orokorrez, Ingurumen Iraunkortasun Txostenean eta Plan Nagusiaren Hirigintza Arauen dokumentuan horiei begira xedaturikoa beteko da. Zehatz esateko, honako hauek dira, besteak beste, esparru honetan eragina duten baldintzatzaileak:

- Aireko Zortasunei dagokien legeria:

Esparru hau Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuaren barnean dagoenez, beharreko obra baimena lortzeko, Arloko Araudia eta aireko zortasunei eta horietatik etorritako soinu eraginei dagokienean aplikatu beharreko legeria beteko dira. Zentzu honetan:

- Aintzat hartuko da hirigintza fitxa honetako 3. atalean –Hirigintza Erregimen Egituratzaila– finkatutakoa.
- Esparru hau garatuko duen Plan Bereziaren, Plan Partzialaren edo kideko tresnaren edo, hala behar badu, onartutako plangintzaren berrikuspen edo aldaketaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 10. artikuluan xedaturikoari jarraiki, esparru honetan ez dira Donostiako Aireportuan dabilzan aireontzientzako arriskutsu izan litekeen ke, hauts edo gisakorik igortzen duten instalazioak baimenduko, ez eta aske dabilzan hegaztientzako babesgune izan litezkeen instalazioak ere.


- Kontuan edukiko dira eguzki-argiaren balizko islapenak teilatu eta estalkietan, baita aireontzien tripulazioarentzako traba izan litezkeen eta aireko operazioen segurtasuna arriskuan jar dezaketen bestelako argi-iturri guztiak ere.
- Aireko Zortasunei buruzko 2490/1974 Dekretuak aldatutako 584/1972 Dekretuaren 15. Artikuluko b) atalean xedatutakoari jarraiki, debekatuta dago Aireko Nabigaziorako irrati-instalazioen Segurtasun Eremuetan edozein eraikin eraikitzea edo lur eremuaren eraketaren aldi baterako edo betiko aldaketa burura eramatea, bertako gainazala edo haren gainean dauden elementuak aldatzea, Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs) aldeztu aurretik baimena ematen ez bada.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 16. Artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, ezinbestekoa da aldeko txostena eragozpenak mugatzen dituzten azalera gainditu ez arren aireko irrati-instalazioen funtzionamendu egokia nahasi dezaketen erradiazio elektromagnetikoak sorrarazi ditzakeen irrati-igorleak edo bestelako gailuak paratu ahal izateko.
- Aireko Legezko Zortasun Eremuen esparruan edozein eraikin edo egitura egiteko eta horretarako behar diren bitartekoak jartzeko (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne), aldeztu aurretik aldeko txostena eman behar du Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs), 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako 582/72 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera.

Bestalde, A sailean "Hirigintza eraginak" dagokion planoan, Plan Nagusi honen dokumentazio grafikoaren barnean baitago hura, islatzen da esparru honen antolamenduaren aurrerapena, bertan definituriko Aireko Zortasunen azalera mugatzaileen mailaren marrei gainjarria, eta baita esparru honetarako zehaztutako eraikuntzaren altuera gorena ere eta, behin antolamendua garatu ondoren aurreikusitako lurraren sestra kotak ere, hala behar bada.

Adierazitako baldintzatzaileak arautzen dituzten eta indarrean dauden irizpideak aplikatuko dira kasu hauetan guztietan.

ÁMBITO: LARTZABAL

6.1.01



Plano de Calificación Global

Escala: 1/ 1.000

ESPARRUA: OÑAURRE**6.2.01****HIRIGINTZA ZEHAZTAPENAK:****1.- DESKRIBAPENA**

Hiriaren Erdialdean / Hego mendebaldean dago esparru hau, Elizatxo Hiribidearen, Arretxe-Ugalde Industrialdearen, Lapitzeren Mendebaldeko etxebizitza familiabakarren eta AP-8 autopistaren arteko espazio batean.

Une honetan gauzatzen ari dira esparru hau, 2011ko irailaren 19an 6.2.01 Oñaurre esparruari begira betikoz onartutako Plan Nagusiaren 23. Aldaketan jasotako xedapen egituratzaileei jarraiki. Plan Nagusi honek jaso egiten du haren edukia.

Era berean, 2011ko abenduaren 28an betikoz onartutako Plan Partzialaren 2. Aldaketan zehazten da antolamendu xehea.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Jaso egiten dira aipatu Plan Nagusiaren 23. Aldaketan antolamenduari begira jada zehaztutako irizpideak eta helburu nagusiak, honako zehaztapen hauekin:

1. Bizileku hazkunderari dagokionez:

- Alde batetik, sendotu egiten da mazelaren behe aldeko etxebizitza kolektiboen lursailtako etxebizitza garapenari buruz indarrean dagoen antolamendua, haren gauzatzea (Babes Ofizialeko 300 etxebizitza eta 48 etxebizitza libre prezio itunduarekin) bat etor dadin plangintzaren berrikuspen honekin; eta bestetik mazelaren goiko aldeko Plan Partzialaren Aldaketak hartzen duen eremua (Plan Partzialaren 1. Aldaketaren arabera 18 libre).
- Mazelaren erdialdean baimendutako hirigintza eraikigarritasun handiagoa gauzatuko da, indarrean dagoen Plan Partzialak antolatutako dentsitate apaleko eraikuntza tipologiaren ordez etxebizitza kolektiboa egokituko baita.
- Dagoeneko kalifikatuta dagoen Sistema Orokorrekin eta lur eremuaren formarekin bat etorririk, sektorearen perimetroko eraikigarritasunaren handitzeak eskatutako Sistema Orokorreko Espazio Libreak zehazten dira. Hegoaldeko Ingurabidearen antolamenduaren arabera aurreikuspenetara mugatzen da (galtzen du azalera).

2. Bide egituratzaileei dagokienez:

- Une honetan bide egituratzaile gisa zehaztutako zoruari Bideen Sistema Orokorren izaera ematen zaio, eta Hegoaldeko Ingurabidearen atala izango da, izen hori ematen baitzaio Plan Nagusia Berrikusteko dokumentuan.
- Elizatxo Hiribideari, egun bide egituratzaile gisa kalifikatuari, Bideen Sistema orokorraren izaera aitortzen zaio.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA

- HIRIGINTZA SAILKAPENA

Zoru urbanizagarri sektorizatua.....azalera: 119, 361,62 m²a
 Sektoreari esleitutako Hiri zorua.....azalera: 2, 730,42 m²a

- **Bizilekua (R)**.....azalera: 101, 327,04 m²a

- Hiri Zoruanazalera : 830,10 m²a

- Hirigintza eraikigarritasuna sestra gainean eta sestrapean: 0,00 m²a

- Zoru urbanizagarri Sektorizatuan.....azalera: 100, 022,90 m²a

- Hirigintza eraikigarritasuna:

- Sestra gainean60.600,00 m²s

- Sestrapean40.400,00 m²s

- Erabilera erregimena:

Plan Nagusi honen Arautegiaren 2.2.3. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Baimendutako erabilerak:

- Hirugarren sektorekoak 1.800,00 m²s sestra gainean

- Etxebizitzaren eraikigarritasunaren hazkundearen erregimen juridikoa bat dator onartutako garapenerako plangintzak zehaztutakoarekin.

- **Bide Sistema Orokorra (V)**.....azalera: 11, 875,00 m²a

- Zoru urbanizagarri Sektorizatuan.....azalera: 11, 875,00 m²a

- **Sistema Orokorreko Espazio Libreak (L)**azalera: 8, 890,00 m²a

- Zoru urbanizagarri Sektorizatuan.....azalera: 8, 890,00 m²a

- AIREKO ZORTASUNAK. ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK

Plan Nagusiaren 23. Aldaketaren espedienteari loturik Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak lehenik 2011ko abenduaren 13an eta gero Plan Partzialaren 2. Aldaketarekin loturik 2011ko martxoaren 7an igorritako bi txostenekin bat etorriz, esparru osorako 78,00 kota finkatu da itsas mailarekiko altuera goren gisa eta haren gainetik ez da inolako eraikuntzarik irtengo, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipoak, igogailuen kutxak, kartelak, dekorazio erremateak bezalako elementu guztiak barne. Era berean, kota hori ezin izango dute gainditu dagoen lurrean egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek, zutoinak, antenak, aerosorgailuak, haien palak barne, kartelak, energia elektrikoa garraiatzeko lineak, telekomunikazio azpiegiturak eta abar, eta ezta ibilgailuentzako baimendutako galibo gorenak ere.

Plan Nagusi honen A sortan "Hirigintza eraginak" dagokion eremuko planoan islatu dira zehatz burubide horiek.

Plan Nagusi honek arauen arabera finkaturiko eraikigarritasuna gauzatu ahal izateko, goian azaldutakoaren arabera definituriko altuera gorenaren mugak bete beharko dira betiere. Muga horien ondorioz eraikigarritasuna ezin bada osorik gauzatu, eta kontuan izanik, daukaten funtzio sozialagatik, jabetza eskubidearekiko legezko mugak direla Aireko Zortasunak, ondorio horietarako hartu daitekeen erabakiak ez du kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

- ANTOLAMENDU XEHEA ZEHAZTEKO ERREGIMENA

Sektorizatutako zoru urbanizagarriari dagokionez, Plan Nagusi honek garapenerako plangintzaren esku uzten du antolamendu xehearen zehaztapena.

Sektore honi atxikiriko hiri zoruari begira, berriz, Plan Nagusi honek zehazten du antolamendu xehea, 2007ko urriaren 31n betikoz onartutako Plan Partzialaren dokumentuan zoru honi begira zehaztutakoarekin bat etorririk.

- PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA

Esparru hau gauzatze bidean da egun.

4.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHEA

- KALIFIKAZIO XEHEA

Zoru urbanizagarri sektorizatuan, onartutako garapenerako plangintzak zehazten du hirigintza erregimen xehea, Plan Nagusi honetan xedaturikoarekin bat etorritik, izenetan egin beharreko egokitzapenak izan ezik, nola bizileku hornidurarako lursailean, AD izena hartuko baitu, hala laguntza eta ikastetxe pribatuaren ekipamenduetarako lursailetan, aurrerantzean EM eta EP izendatua izango baita.

Sektore honi atxikiriko hiri zoruan honako kalifikazio xehe hau aurreikusten du Plan Nagusi honek:

- Bizilekua (R)

- Tokiko Hiri bidea (VL)azalera : 209,57 m²a
Piketazaharra kalearekiko lotura
- Tokiko Hiri bidea (VL)azalera : 543,32 m²a
Belitz kaleko lotune aldean
- Hiri Bide Banatzailea (VD)azalera: 1, 918,91 m²a
Belitz kaleko lotune aldean
- Etxebizitza Familiabakarra (RU)azalera: 58,62 m²a
Belitz kaleko lotune aldean

- ZORUAREN KATEGORIZAZIOA

Esparrura bildutako lur eremuak, hiri zoru gisa sailkatuak eta sektoreari atxikiak, sendotu gabeko hiri zorua dira, sendotutako hirigintzarik ez dutelako edo nahikoa ez delako.

5.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA

Esparru hau gauzatze bidean da onartutako eta indarrean dagoen plangintzak eta berau garatzeko xedean formulatutako edo formulatu beharreko beste dokumentu eta proiektuek definitutako zehaztapenen arabera.

6.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Izaera orokorrez, Ingurumen Iraunkortasun Txostenean eta Plan Nagusiaren Hirigintza Arauen dokumentuan horiei begira xedaturikoa beteko da. Zehatz esateko, honako hauek dira, besteak beste, esparru honetan eragina duten baldintzatzaileak:

- **Errepide alorreko legeria. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Saila.**

AP-8 autopistako lurren ondoan egonik eta haren gaineko eskuduntza Foru Aldundiarena dela kontuan izanik, aipatu foru erakundeak erabakitakoa egingo da.

- **Eragin Akustikoak:**

Berariaz aintzat hartuko dira AP-8 autopista hartzen duten zarataren mapa estrategikoak (MER), 362-C/2009 Foru Arauan definituak eta Errege Dekretuaren aplikazioa kurba isofonoei dagokienean, dagozkion neurri zuzentzaileak jasotzeko beharra dagoela egiaztatzen bada.

- **Aireko Zortasunei dagokien legeria:**

Esparru hau Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuaren barnean dagoenez, beharreko obra baimena lortzeko, Arloko Araudia eta aireko zortasunei eta horietatik etorritako soinu eraginei dagokienean aplikatu beharreko legeria beteko dira. Zentzu honetan:

- Aintzat hartuko da hirigintza fitxa honetako 3. atalean –Hirigintza Erregimen Egiturazailea– finkatutakoa.
- Esparru hau garatuko duen Plan Bereziaren, Plan Partzialaren edo kideko tresnaren edo, hala behar badu, onartutako plangintzaren berrikuspen edo aldaketaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 10. artikuluan xedaturikoari jarraiki, esparru honetan ez dira Donostiako Aireportuan dabilzan aireontzientzako arriskutsu izan litekeen ke, hauts edo gisakorik igortzen duten instalazioak baimenduko, ez eta aske dabilzan hegaztientzako babesgune izan litezkeen instalazioak ere.
- Kontuan edukiko dira eguzki-argiaren balizko islapenak teiltatu eta estalkietan, baita aireontzien tripulazioarentzako traba izan litezkeen eta aireko operazioen segurtasuna arriskuan jar dezaketen bestelako argi-iturri guztiak ere.
- Aireko Zortasunei buruzko 2490/1974 Dekretuak aldatutako 584/1972 Dekretuaren 15. Artikuluko b) atalean xedatutakoari jarraiki, debekatuta dago Aireko Nabigaziorako irrati-instalazioen Segurtasun Eremuetan edozein eraikin eraikitzea edo lur eremuaren eraketaren aldi baterako edo betiko aldaketa burura eramatea, bertako gainazala edo haren gainean dauden elementuak aldatzea, Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs) aldeztu aurretik baimena ematen ez badu.

- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 16. Artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, ezinbestekoa da aldeko txostena eragozpenak mugatzen dituzten azalera gaintu ez arren aireko irradi-instalazioen funtzionamendu egokia nahasi dezaketen erradiazio elektromagnetikoak sorrarazi ditzakeen irradigorleak edo bestelako gailuak paratu ahal izateko.
- Aireko Legezko Zortasun Eremuen esparruan edozein eraikin edo egitura egiteko eta horretarako behar diren bitartekoak jartzeko (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne), aldez aurretik aldeko txostena eman beharko du Aireko Segurtasunerako Estatuko Agentziak (AESAs), 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako 582/72 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera.


Bestalde, A sailean "Hirigintza eraginak" dagokion planoan, Plan Nagusi honen dokumentazio grafikoaren barnean baitago hura, islatzen da esparru honen antolamenduaren aurrerapena, bertan definituriko Aireko Zortasunen azalera mugatzaileen mailaren marrei gainjarria, eta baita esparru honetarako zehaztutako eraikuntzaren altuera gorena ere eta, behin antolamendua garatu ondoren aurreikusitako lurraren sestra kotak ere, hala behar badu.

Adierazitako baldintzatzailleak arautzen dituzten eta indarrean dauden irizpideak aplikatuko dira kasu hauetan guztietan.

Esparru honetan dago Alatriza baserria, historia eta arkitektura intereseko eraikin/elementu eraikia. Eraikin hau Plan Nagusi honen arabera Katalogora biltzen da dokumentu honetan adierazitako kategoriarekin.

ÁMBITO: OÑAURRE

6.2.01



Plano de Calificación Global

Escala: 1/ 5.000

ÁMBITO: OÑAURRE

6.2.01



Plano de Calificación Pormenorizada

Escala: 1/ 2000

ESPARRUA: OÑA**6.2.02****HIRIGINTZA ZEHAZTAPENAK:****1.- DESKRIBAPENA**

Udalerriaren erdialdean dago esparru hau, eta bere baitara biltzen du Olagizon kalearekiko bidegurutzean aurreikusitako biribilgunetik Gipuzkoa hiribidearekin bat egiteko biribilgunerainokoa. Elizatxo hiribideko eta inguruko bideen eta oinezkoentzako bideen ezaugarriak hobetzea bila da, betiere kontuan izanik hiriaren erdigunera iristeko bidea dela.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

- Bide honen luzeran aldaketa batzuk egitea, Martindozenearako egungo sarbidearen puntu gorena saihesteko. Honek aukera emango luke Alai-Txoko eta Oñako Baroiaren finken artean lotura bat egiteko maila berean, finka biei emandako espazio libre publikoaren kalifikazioak batuz.
- Elizatxo hiribidea berregituratu eta handitu beharko da, egungo bideekiko lotuneak egokituz.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA**- HIRIGINTZA SAILKAPENA**

Hiri Zorua.....azalera: 13, 553,64 m²a

- KALIFIKAZIO GLOBALA

- **Sistema Orokorreko Espazio Libreak (L)**azalera: 6, 600,22 m²a
- **Bide Sistema Orokorra (V)**.....azalera: 6, 953,42 m²a

- ANTOLAMENDU XEHEA ZEHAZTEKO ERREGIMENA

Esparru honetan Plan Berezi bat egingo da. Horrenbestez, Plan Nagusi honek garapenerako plangintza baten esku uzten du antolamendu xehearen zehaztapena.

- PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA

Udal barrutian aurrera eramaniko hiriaren bilakaerarako eta lurzorua okupatzeko estrategiaren arabera, aurreikusi da Plan Nagusiaren programazio denboraren barnean gauzatuko dela esparrua.

Aipatutako Plan Partziala idatzi eta onartuko da Plan Nagusi hau behin betikoz onartzen den egunetik kontatzen hasita gehienez ere lau urteko epean.

4.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHEA

Esparru honetan garatu beharreko Plan Bereziak zehaztuko ditu hirigintza erregimen xeheari dagozkion baldintzak.

- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK

Esparru honetan dauden eraikinak, lehendik ere bazeuden eraikinen kategoria gisa jasoak izango dira Plan Berezian. Nolanahi ere, langintza onartzen ez den bitartean, 2/2006 Legearen 101. artikuluan zehaztutakoaren arabera izango dira haietan gauzatzen diren lanen izaera eta irismena.

- Baimendu ahal izango dira eraikina gutxieneko bizigarritasun eta osasungarritasun baldintzetan mantentzeko beharrezkotzat hartzen diren obrak eta hirugarrenetik kalteak saihesteko direnak.
- Ez dira baimenduko bolumenaren hobekuntza edo gehikuntza dakarten obra partzialak. Salbuespen gisa sendotze obra partzialak eta noiz-nolakoak baimendu ahal izango dira 15 urteko epean eraikina desjabetzea edo eraistea aurreikusi ez denean, obra horiek egin nahi diren datatik aurrera kontatuta eta obra horiek higiezinari balio handiagoa ematea ez dakartenean.
- Esparruan bizileku erabilera baimendua dagoenez, eraikinak dauden bitartean, haietan dauden erabilerak bateragarritzat hartzen dira hirigintza antolamenduarekin, baina ezin da besterik erantsi, bulegorako edo merkataritzarako ez bada bederen, eta hori eraikinaren erregimena eta bizi aldia aldatu gabe betiere. Ustezko erabilera berri horiek behin-behineko izaera izango dute eta 2/2006 Legearen 36. artikulua xedaturiko baldintzetan baimenduko ditu Udalak.

Azkenik, eta Hirigintza Jarduerarako Programa onartzen ez den bitartean (2/2006 Legearen 32. art.) ezin izango dira baimendu ez lurren zatiketa, eta ez hirigintza eraldaketa dakarten ekintzak eta erabilerak ere.

5.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA

Esparru honetan sustatu beharreko Hiri Antolamendurako Plan Bereziak eta berau garatzeko xedean formulatu beharreko beste dokumentu eta proiektuek zehaztuko dute Esparru hau gauzatzeko berariazko erregimena.

6.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Izaera orokorrez, Ingurumen Iraunkortasun Txostenean eta Plan Nagusiaren Hirigintza Arauen dokumentuan horiei begira xedaturikoa beteko da. Zehatz esateko, honako hauek dira, besteak beste, esparru honetan eragina duten baldintzatzailleak:

- Aireko Zortasunei dagokien legeria:

Esparru hau Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuaren barnean dagoenez, beharreko obra baimena lortzeko, Arloko Araudia eta aireko zortasunei eta horietatik etorritako soinu eraginei dagokienean aplikatu beharreko legeria beteko dira. Zentzu honetan:


- Esparru hau garatuko duen Plan Bereziaren, Plan Partzialaren edo kideko tresnaren edo, hala behar badu, onartutako plangintzaren berrikuspen edo aldaketaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 10. artikuluan xedaturikoari jarraiki, esparru honetan ez dira Donostiako Aireportuan dabilzan aireontzientzako arriskutsu izan litekeen ke, hauts edo gisakorik igortzen duten instalazioak baimenduko, ez eta aske dabilzan hegaztientzako babesgune izan litezkeen instalazioak ere.
- Kontuan edukiko dira eguzki-argiaren balizko islapenak teilatu eta estalkietan, baita aireontzien tripulazioarentzako traba izan litezkeen eta aireko operazioen segurtasuna arriskuan jar dezaketen bestelako argi-iturri guztiak ere.
- Aireko Zortasunei buruzko 2490/1974 Dekretuak aldatutako 584/1972 Dekretuaren 15. Artikuluko b) atalean xedatutakoari jarraiki, debekatuta dago Aireko Nabigaziorako irradi-instalazioen Segurtasun Eremuetan edozein eraikin eraikitzea edo lur eremuaren eraketaren aldi baterako edo betiko aldaketa burura eramatea, bertako gainazala edo haren gainean dauden elementuak aldatzea, Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AES) alde aurretik baimena ematen ez badu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 16. Artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, ezinbestekoa da aldeko txostena eragozpenak mugatzen dituzten

azalerak gainditu ez arren aireko irrati-instalazioen funtzionamendu egokia nahasi dezaketen erradiazio elektromagnetikoak sorrarazi ditzakeen irrati-igorleak edo bestelako gailuak paratu ahal izateko.

- Aireko Legezko Zortasun Eremuen esparruan edozein eraikin edo egitura egiteko eta horretarako behar diren bitartekoak jartzeko (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne), aldez aurretik aldeko txostena eman beharko du Aireko Segurtasunerako Estatuko Agentziak (AESAs), 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako 582/72 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera.

Bestalde, A sailean "Hirigintza eraginak" dagokion planoan, Plan Nagusi honen dokumentazio grafikoaren barnean baitago hura, islatzen da esparru honen antolamenduaren aurrerapena, bertan definituriko Aireko Zortasunen azalera mugatzaileen mailaren marrei gainjarria, eta baita esparru honetarako zehaztutako eraikuntzaren altuera gorena ere eta, behin antolamendua garatu ondoren aurreikusitako lurraren sestra kotak ere, hala behar badu.

Adierazitako baldintzatzaileak arautzen dituzten eta indarrean dauden irizpideak aplikatuko dira kasu hauetan guztietan.



Plano de Calificación Global

Escala: 1/ 3.000

ESPARRUA: TXENPERENEA**6.2.06****HIRIGINTZA ZEHAZTAPENAK:****1.- DESKRIBAPENA**

1999ko Plan Nagusiak finkatutako hirigintza alorreko burubide orokorrak garatzeko prozesuan dago esparru hau, Lapitzeko auzoaren eta autopistaren arteko mazelan bizileku alde berri bat antolatu ahal izateko.

1999ko Plan Nagusian finkatutako hirigintza alorreko burubideak garatu ahal izateko, Sektorizazio Plan baten xede izan zen esparru hau, Udalbatzak 2009ko uztailaren 7an betikoz onartutako Sektorizazio Planaren xede, eta bertan finkatu ziren antolamendurako oinarritzko baldintzak. Aipatu Sektorizazio Planak aintzat hartu zuen antolamendu xehea, baina berau puntualki aldatuta (bestela kokatzen da STR lursaila) geratu zen.

Sektoreari atxikiriko hiri zorua du esparruak, hiri egiturara egokiro biltzeko behar-beharrezkoa delako.

Plan Nagusi honek aurrez zehaztutako hirigintza alorreko eraikigarritasunaren gehikuntza ahalbidetzen du alde honetako topografia eta ezaugarriak kontuan izanik jardueraren bideragarritasuna hobetzeko xedean.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Plan Nagusi honen garapenak kontuan edukiko ditu Sektorizazio Planean finkatutako antolamendurako oinarritzko baldintzak, eta honako irizpide eta helburu hauek zehaztuko ditu:

- Esparruaren antolamendua ahalbidetzea bizileku programa baten bidez, babes ofizialeko etxebizitza multzo bat eraiki ahal izateko. Etxebizitza multzo hau tokiko hirigintza baldintzetara egokituko da, eta kontserbatu egingo da Altzulegarre Baserria.
- "Aireko zortasunetatik etorritako baldintzak errespetatzea, eraikuntza aprobetxamenduaren altuera mugatuz (eraikuntzen kota gorena, haien elementu guztiak barne, esate baterako, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipamenduak, igogailu-kaxak, kartelak, apaindura erremateak eta beste.) 78.00 metrora itsas-mailatik gora, lursailetan etorkizunean eraikuntzak egiteko baimena bermatu ahal izateko.
- Mazelan egokitua den arren, segida eman beharko dio hiri sareari. Antolamenduak ziurtatu egingo du egungo hiri sarearekin behar bezala uztartzea, lotura eta bideen jarraipena ziurtatzeko. Ildo honetatik, Oñurre esparruan aurreikusitako Belitz kalearekin lotzeko tarteko bidearekiko lotura egokia aurreikusi beharko da.

- Ondoko Oñurre esparruan gauzaten ari den antolamenduarekin bat etorrira segida emango dio bideari, eta egungo hiri sarearekiko lotura bermatzeaz gainera, bideen arteko lotura eta segidak bermatuko ditu.
- Sendotutako hiri inguruan daudenekin koordinaturik ekipamenduetarako programa bat zehaztuko da. Halatan, kontuan edukitzen da Alai-Txoko eta Oñako Baroia parkeen hurbiltasuna. Aldi berean, lehenetsiko da ekipamenduak proposatutako espazio libre berrietan egokitzea, betiere Lapitze auzotik gertu.
- Lehen aipatutako Sektorizazio Planak finkatutako bide eskemari eutsiko zaio, eta bertan jasoko da, Bideen Sistema Orokorren izaerarekin, Hegoaldeko Ingurabidearen zatia osatuko duen lurzorua.
- Banaketarako azpi-estazio berria (STR) egokitzeke baldintzak jasoko dira, lehen aipatutako Plan Partzialaren Aldaketan zehaztu bezala.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA

- HIRIGINTZA SAILKAPENA

Zoru urbanizagarri sektorizatua.....azalera: 159.569,80 m²a
 Sektoreari esleitutako Hiri zorua.....azalera: 4.190,50 m²a

- KALIFIKAZIO GLOBALA

- **Bizilekua (R)**.....azalera: 122, 262,00 m²a

- Hirigintza eraikigarritasuna:

- Sestra gainean.....85.000,00 m²s
- Sestrapean Eraikinaren % 60 sestra gainean

- Erabilera erregimena:

Plan Nagusi honen Arautegiaren 2.2.3. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Bizileku alorreko Hirigintza Eraikigarritasunaren gehikuntzaren erregimena babes publikoko etxebizitzaren eta hornidura bizitokiaren estandarrekiko.

1999ko Plan Nagusiaren hirigintza alorreko burubideak garatzeko prozesuan dago esparrua, eta beraz, esparru honi begira onartutako Sektorizazio Planak jada zehaztutakoa da babestutako etxebizitzaren eta hornidura bizitokiaren estandarrekiko finkatzeko erregimen juridikoa.

Zentzu horretan, Sektorizazio Planak aurreikusten du hirigintza eraikigarritasunaren ehunekoak babestutako etxebizitzak eta hornidura bizitokiak eraikitzeke obligazioa, 2/2006 legean finkatutakoari jarraiki.

Plan Nagusi honek bizitoki alorreko hirigintza eraikigarritasunaren gehikuntza ahalbidetzen du aurrez zehaztutakoaren aldean. Hortaz, burura eramaten baldin bada, babestutako etxebizitzaren ehuneko berriak soilik aipatutako gehikuntzari aplikatuko zaizkio.

- Hirigintza eraikigarritasun gorena 85.000 m²s
- Bizilekuak ez diren erabilera baimenduen eraikigarritasuna .. 17.000 m²s (*)
- Gauzatutako eraikigarritasuna 2.048 m²s (*)
- Bizileku erabileraren eraikigarritasunaren gehikuntza 65.952 m²s (*)

(*) Baimendutako erabileren ehunekoaren arabera eta dauden eraikinen arabera kalkulaturako eraikigarritasunak.

- Babes publikoko etxebizitza (Gutxieneko ehunekoa) % 75
Ildo horretatik erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitze erabiliko da bizileku erabilerarako eraikigarritasun gehikuntzaren % 55 gutxienez.
- Hornidura bizitokiak 1,50 m²a /100 m²s

Onartutako Sektorizazio planaren arabera, **1.913 m²a**-koa izango da esparru honetan hornidura bizitokietarako behin betiko erreserba. Azalera horretan sartzen dira esparru honi begira finkatutako gutxieneko erreserba (989,28 m²a) eta 6.2.08. Alei esparruan aurreikusitako 75,60 m²a, azken hori esparru honetara aldatuko baita.

- **Bide Sistema Orokorra (V)**.....azalera: 23, 035,30 m²a

- Hiri Zoruanazalera: 2.730,50 m²a
- Zoru urbanizagarri Sektorizatuan.....azalera: 20.304,80 m²a

- **ZERBITZU AZPIEGITURAK (S)**azalera: 1.460,00 m²a

- Hiri Zoruanazalera : 1.460,00 m²a

- Hirigintza eraikigarritasuna:

- Sestra gainean.....500,00 m²s

- Sestrapean Eraikinen % 60 sestra gainean
Garatu beharreko Plan Partzialak inolako aldaketarik gabe eutsiko dizkie argindarra banatzeko azpi-estazio berria eraikitze lursailak eduki beharreko formari, mugari eta ezartzeko baldintzei begira finkatutako hirigintza zehaztapenak. Eta ez dira aldatuko hiri zoruan egokitutako lursailaren aldekoak, Plan Nagusi honetan finkatutako kalifikazio xeheari eutsiko baitiote.

- **Sistema Orokorreko Espazio Libreak (L)**azalera: 17, 003,00 m²a

- AIREKO ZORTASUNAK. ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK

Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuen barnean dago sektore hau, eta zehatzago esateko, lurak berak esparruaren zati gehienez Barne Azalera Horizontala gainditzen duen eremu batean.”

“6.2.06 Txenperenea HEE (Irun), 12. Aldaketa, hirigintza esparruari dagokion Irungo Plan Nagusiaren Aldaketaren aurrean” aldeko txostena egin zuen Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak 2007ko apirilaren 10ean, honako baldintza hauekin:

- Eutsi egingo zaio 'Txenperenea (Irun) Eremuko Urbanizazioak Donostiako Aireportuko Zortasun Fisikoetan izango dituen Eraginen Azterketa' dokumentuko 'IRC-SRTC-DR-004. Barne Azalera Horizontalaren Egungo Eraketarekiko eraginak' planoan aurreikusitako Antolamenduari.
- Proposaturiko eraikuntza berriek (haien elementu guztiak barne, esate baterako, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipamenduak, igogailu-kaxak, kartelak, apaindura erremateak eta beste) ez dute 78 metroko kota gaindituko itsas-mailatik gora.
- Balizatu egingo da multzo osoko eraikuntza, argi-paldo edo antena altuena NAZEren 14. Eranskinaren 6. kapituluan xedaturikoaren arabera (eguneko balizatzea: A motako intentsitate handiko distira duten argiak; gaueko balizatzea: 5 motako intentsitate ertaineko argiak).

Zoru Urbanizagarriko sektore hau garatuko duen plangintza tresnaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu”.

Esparru hau garatuko duen plangintza tresnak aldatzen baditu aldez aurretik AZZNren aldeko iritzia jaso duen Hirigintza Antolamenduaren altuera edo gainerako zehaztapenak, beste azterketa aeronautiko bat aurkeztu beharko da, eta hartan adierazi beharko da, AESAren iritziz, ez dela arriskuan jarriko segurtasuna eta ez dela eragin nabarmenik izango aireontzien jardunaren erregularatasunean, 584/72 Dekretuaren 7. eta 9. artikuluetan, egungo erredakzioan, jasotako salbuespenen arabera.

Azterketa Aeronautiko berri bat aurkeztuz gero, hirigintza legeriarekin bat etorri eta plangintza nagusiak zehaztutakoa izango da gauzatu daitekeen aprobetxamendua, behin Sustapen Ministerioaren txostenak zehaztutako baldintzak aplikatu eta gero, hala dagokionean. Eta aprobetxamendua murrizten bada, ez dute inolako kalte-ordainaren aurreko eskubide bakar bat ere sorraraziko Sustapen Ministerioak, aireportuaren kudeatzaileak eta Aireko Nabigazioaren Zerbitzuak eskaintzen dituen erakundeak.

- **ANTOLAMENDU XEHEA ZEHAZTEKO ERREGIMENA**

Esparru honetan Plan Partzial bat egingo da. Horrenbestez, zoru urbanizagarri sektorizatuan, Plan Nagusi honek garapenerako plangintza baten esku uzten du antolamendu xehearen zehaztapena.

Sektoreari atxikiriko hiri zoruan, berriz, Plan Nagusi honetan zehaztutako antolamendu xehea gauzatuko da. Antolamenduak hala aholkatzen badu, Plan Nagusi honetan zehaztu eta sektoreari esleituriko hiri zoruaren antolamendu xehea doitu ahal izango du aipatu Plan Partzialak

- PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA

Esparru hau une honetan gauzatzeko bidean dagoen arren, azaldutako antolamenduaren irizpideekin eta helburuekin bat etorri ahal izateko, Plan Partzial berri bat idatzi eta onartuko da Plan Nagusi honen programazioaren muga-epean garatuko dela ziurtatzeko.

Aipatutako Plan Partziala idatzi eta onartuko da Plan Nagusi hau behin betikoz onartzen den egunetik kontatzen hasita gehienez ere lau urteko epean..

Esparru honetan aitzat hartutako sistema orokorrak haiek lortzeko, gauzatzeko eta kostuak onartzeko ondorioetarako zehazten dira, dena D – Plan Nagusiaren Ekonomia-Finantza Bideragarritasunaren eta Ekonomi Iraunkortasunaren dokumentuan xedatutakoaren arabera.

4.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHEA

- KALIFIKAZIO XEHEA

Zoru urbanizagarri sektorizatuan, sektore honetan burura eraman beharreko Plan Partzialean finkatutakoaren arabera izango da hirigintza erregimen xehea.

Sektore honi atxikiriko hiri zoruan honako kalifikazio xehe hau aurreikusten du Plan Nagusi honek:

- Bide Sistema Orokorra (V)

- Hiri Bide Egituratzaila (VE).....azalera: 2.730,50 m²a

- Zerbitzu azpiegiturak (S)

- Energia Elektriakoaren azpiegitura (SE)azalera : 1.460,00 m²a

- ZORUAREN KATEGORIZAZIOA

Esparrura bildutako lur eremuak, hiri zoru gisa sailkatuak eta sektoreari atxikiak, sendotu gabeko hiri zorua dira, sendotutako hirigintzarik ez dutelako edo nahikoa ez delako.

Bestalde, plangintza xeheak zehaztu beharreko Jarduera Integratuari dagokionez, kontuan hartuko dira Sektorean zehaztutako eta hari atxikiriko lurak.

5.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA

Esparru hau onartutako plangintzan eta proiektuetan finkatutako zehaztapenen arabera gauzatzen ari den arren, finkatu beharreko gauzatze berariazko erregimen berria, hemen azaldutako irizpide eta helburuekin bat etorrira, jasoko da esparruan sustatu beharreko Plan Partzialean eta berau garatzeko xedean formulatu beharreko beste dokumentu eta proiektuetan.

6.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Izaera orokorrez, Ingurumen Iraunkortasun Txostenean eta Plan Nagusiaren Hirigintza Arauen dokumentuan horiei begira xedaturikoa beteko da. Zehatz esateko, honako hauek dira, besteak beste, esparru honetan eragina duten baldintzatzailleak:

- **Errepide alorreko legeria. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Saila.**

AP-8 autopistako lurren ondoan egonik eta haren gaineko eskuduntza Foru Aldundiarena dela kontuan izanik, aipatu foru erakundeak erabakitakoa egingo da.

- **Eragin Akustikoak:**

Berariaz aintzat hartuko dira AP-8 autopista hartzen duten zarataren mapa estrategikoak (MER), 362-C/2009 Foru Arauan definituak eta Errege Dekretuaren aplikazioa kurba isofonoei dagokienean, dagozkion neurri zuzentzaileak jasotzeko beharra dagoela egiaztatzen bada.

Aintzat hartuko da Sektorizazio Plana tramitzeko testuinguruan egindako Ingurumen Inpaktuaren gaineko Adierazpena.

Antolamendu xehea aldatuz gero, eta dagokion hirigintza eta ingurumen tramitazioa bideratu ahal izateko, eremuko eragin akustiko orokorra aurreikusteko moduko zarataren mapak eta ebaluazio akustikoak bilduko dituen Eragin Akustikoaren Azterketa egin beharko da.

- **Aireko Zortasunei dagokien legeria:**

Esparru hau Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuaren barnean dagoenez, beharreko obra baimena lortzeko, Arloko Araudia eta aireko zortasunei eta horietatik etorritako soinu eraginei dagokienean aplikatu beharreko legeria beteko dira. Zentzu honetan:

- Aintzat hartuko da hirigintza fitxa honetako 3. atalean –Hirigintza Erregimen Egituratzaillea– finkatutakoa.

- Esparru hau garatuko duen Plan Bereziaren, Plan Partzialaren edo kideko tresnaren edo, hala behar badu, onartutako plangintzaren berrikuspen edo aldaketaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 10. artikuluan xedaturikoari jarraiki, esparru honetan ez dira Donostiako Aireportuan dabilzan aireontzientzako arriskutsu izan litekeen ke, hauts edo gisakorik igortzen duten instalazioak baimenduko, ez eta aske dabilzan hegaztientzako babesgune izan litezkeen instalazioak ere.
- Kontuan edukiko dira eguzki-argiaren balizko islapenak teilatu eta estalkietan, baita aireontzien tripulazioarentzako traba izan litezkeen eta aireko operazioen segurtasuna arriskuan jar dezaketen bestelako argi-iturri guztiak ere.
- Aireko Zortasunei buruzko 2490/1974 Dekretuak aldatutako 584/1972 Dekretuaren 15. Artikuluko b) atalean xedatutakoari jarraiki, debekatuta dago Aireko Nabigaziorako irrati-instalazioen Segurtasun Eremuetan edozein eraikin eraikitzea edo lur eremuaren eraketaren aldi baterako edo betiko aldaketa burura eramatea, bertako gainazala edo haren gainean dauden elementuak aldatzea, Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs) aldeztu aurretik baimena ematen ez badu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 16. Artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, ezinbestekoa da aldeko txostena eragozpenak mugatzen dituzten azalerak gainditu ez arren aireko irrati-instalazioen funtzionamendu egokia nahasi dezaketen erradiazio elektromagnetikoak sorrarazi ditzakeen irrati-igorleak edo bestelako gailuak paratu ahal izateko.
- Aireko Legezko Zortasun Eremuen esparruan edozein eraikin edo egitura egiteko eta horretarako behar diren bitartekoak jartzeko (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne), aldeztu aurretik aldeko txostena eman beharko du Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs), 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako 582/72 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera.


Bestalde, A sailean "Hirigintza eraginak" dagokion planoan, Plan Nagusi honen dokumentazio grafikoaren barnean baitago hura, islatzen da esparru honen antolamenduaren aurrerapena, bertan definituriko Aireko Zortasunen azalera mugatzaileen mailaren marrei gainjarria, eta baita esparru honetarako zehaztutako eraikuntzaren altuera gorena ere eta, behin antolamendua garatu ondoren aurreikusitako lurraren sestra kotak ere, hala behar badu.

Adierazitako baldintzatzaileak arautzen dituzten eta indarrean dauden irizpideak aplikatuko dira kasu hauetan guztietan.

Esparru honetan dago Altzulegarre baserria, historia eta arkitektura intereseko eraikin/elementu eraikia. Eraikin hau Plan Nagusi honen araberrako Katalogora biltzen da dokumentu honetan adierazitako kategoriarekin.

ÁMBITO: TXENPERENEA

6.2.06




Plano de Calificación Global

Escala: 1/ 5.000

ÁMBITO: TXENPERENEA

6.2.06



Plano de Calificación Pormenorizada

Escala: 1/ 1500

ESPARRUA: ALEI**6.2.08****HIRIGINTZA ZEHAZTAPENAK:****1.- DESKRIBAPENA**

Elizatzko Hiribidearen hegoaldean, 33. zenbakiaren eta Alai-Txoko parkearen artean. Jabetza publikoko eta, proportzio bertsuan, jabetza pribatuko zoruetan garatzen da. Esparru honetako hirigintza garapena neurri eta garaiera apaleko etxebizitza bloke batzuen eraikuntzaren bidez planteatzen da, inguruko eraikinen tipologia eta profilekin bat etorri.

Elizatzko hiribiderako lerrokadura osatzea aurreikusten da Oñaurren aurreikusitakoa aintzat harturik, hiribide honetan aurreikusitako alboko oinezkoentzako ibilbidea luzatu ahal izateko. Honenbestez, hainbat etxebizitza blokean eta lursailean eraikiko dira.

Jarduera honetan biribilgune bat egitea aurreikusten da Elizatzko hiribidearen eta Olagizonen kalearen arteko bidegurutzean, udalerriko bide egiturari segida emateko xedean. Era berean, Elizatzko hiribidearen paraleloan eta haren Hegoaldean luzatuko den alboko ibilbide bat antolatuko da. Bestalde, Alei Kaleko zuhaitziari (platanoak) eustea planteatzen da aurreikusitako biribilgune berria oztopatzen ez duen lekuetan. Gainera, puntu honetan Alei kaleak eratutako espaziorako sarbide bat egiteko beharra planteatzen da, Oñaurre auzo berrirako barne banaketarako bideak antolatu ahal izateko xedean.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

- Elizatzko Hiribidearen frontea antolatzea babes publikoko etxebizitza sorta baten sorrera ahalbidetuko duen esku hartze publikoko programa baten bidez.
- Elizatzko Hiribidearen lerrokadurak eta frontea berdintzea hegoaldeko espaloia zabaldurik, alde hau, orain arte bederen, eraikin eta lursail batzuek okupatuta baitago modu irregular batez.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA**- HIRIGINTZA SAILKAPENA**

Hiri Zorua.....azalera: 12, 176,01 m²a

- KALIFIKAZIO GLOBALA

- Bizilekua (R).....azalera: 8, 029,73 m²a

- Hirigintza eraikigarritasuna:

- Sestra gainean.....5.040,00 m²s

- Sestrapean Eraikinaren % 100 sestra gainean
- Erabilera erregimena:
Plan Nagusi honen Arautegiaren 2.2.3. Artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Bizileku alorreko Hirigintza Eraikigarritasunaren gehikuntzaren erregimena babes publikoko etxebizitzaren eta hornidura bizitokiaren estandarrekiko.
 - Hirigintza eraikigarritasun gorena 5.040 m²s
 - Bizilekuak ez diren erabilera baimenduen eraikigarritasuna 0 m²s
 - Gauzatutako eraikigarritasuna 0 m²s
 - Bizileku erabileraren eraikigarritasunaren gehikuntza 5.040 m²s
- Babes publikoko etxebizitza % 100
Ildo horretatik erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke erabiliko da bizileku erabilerarako eraikigarritasun gehikuntzaren % 50 gutxienez.
Esparru honetan, gainera, 5.2.06 “Almirante Arizmendi” eta 5.2.09 “Ikust Alaia” esparruei begira zehaztutako babes publikoko etxebizitzari leku egitea aurreikusten da, baita 5.3.14 “Papinea” esparruari begira zehaztutako babes publikoko etxebizitzari leku egiteko aukera ere.
- Hornidura bizitokiak 1,50 m²a /100 m²s
75,60 m²a-ko azalera kalkulatu da hornidura bizitokiei begira zehaztutako erreserba.
6.2.06 Txenperenea esparruan egokitzea aurreikusten da.
- **Sistema Orokorreko Espazio Libreak (L)** azalera: 594,31 m²a
- **Bide Sistema Orokorra (V)** azalera: 3.551,97 m²a

- AIREKO ZORTASUNAK. ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK

Esparru osorako 49,00 kota finkatu da itsas mailarekiko altuera goren gisa eta haren gainetik ez da inolako eraikuntzarik irtengo, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipoak, igogailuen kutxak, kartelak, dekorazio erremateak bezalako elementu guztiak barne. Era berean, kota hori ezin izango dute gainditu dagoen lurrian egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek, zutoinak, antenak, aerosorgailuak, haien palak barne, kartelak, energia elektrikoa garraiatzeko lineak, telekomunikazio azpiegiturak eta abar, eta ezta ibilgailuentzako baimendutako galibo gorenak ere.

Plan Nagusi honen A sortan “Hirigintza eraginak” dagokion eremuko planoan islatu dira zehatz burubide horiek.

Plan Nagusi honek arauen arabera finkaturiko eraikigarritasuna gauzatu ahal izateko, goian azaldutakoaren arabera definituriko altuera gorenaren mugak bete beharko dira betiere. Muga horien ondorioz eraikigarritasuna ezin bada osorik gauzatu, eta kontuan izanik, daukaten funtzio sozialagatik, jabetza eskubidearekiko legezko mugak direla Aireko Zortasunak, ondorio horietarako hartu daitekeen erabakiak ez du kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

- **ANTOLAMENDU XEHEA ZEHAZTEKO ERREGIMENA**

Esparru honetan Hiri Antolamendurako Plan Berezi bat egingo da. Horrenbestez, Plan Nagusi honek garapenerako plangintza baten esku uzten du antolamendu xehearen zehaztapena.

- **PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA**

Udal barrutian aurrera eramaniko hiriaren bilakaerarako eta lurzorua okupatzeko estrategiaren arabera, aurreikusi da Plan Nagusiaren programazio denboraren barnean gauzatuko dela esparrua.

Hiri Antolamendurako Plan Berezia idatzi eta onartuko da Plan Nagusi hau behin betikoz onartzen den egunetik kontatzen hasita gehienez ere lau urteko epean.

Esparru honetan aintzat hartutako Sistema Orokorretako Bide eta Espazio Libreak, haiek lortzeko, gauzatzeko eta kostuei erantzuteko zehazten dira.

4.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHEA

Esparru honetan burura eraman beharreko Hiri Antolamendurako Plan Bereziak ezarriko ditu hirigintza erregimen xeheari dagozkion baldintzak.

Indarrean dagoen legerian xedaturikoari jarraiki, plangintza xehe honek esparruaren barruan erreserbatuko ditu lurrak tokiko sistemako berdegune eta espazio libre izan daitezen. Tokiko beste hornidura publiko batzuetarako erreserbari dagokionez, 1.008,00 m²a aurreikusten baitira, 4. 2. 07 "Kostorbe" esparruan kokatzeko aukera aintzat hartu da.

- **BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK**

Bizileku horniduretarako zehaztutako behin betiko erreserba 6.2.06 "Txenperenea".esparruan bereizteko aukera aurreikusten da.

Bost etxebizitza blokez osaturiko bizileku alde baten antolamendua aurreikusi da, bi etxebizitza bloke etorkizuneko biribilgunearen mendebaldean eta beste hiru haren ekialdean. Lur eremuaren sestekin eta Aireko Zortasunei begira ezarrikoarekin bat etorririk, beheko solairua eta goiko hiru solairu izango dituzte biribilgunetik gertuen egongo diren bi eraikinek, eta beheko solairua eta goiko bi solairu biribilgunetik urrituen dauden eraikinek.

5.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA

Esparru honetan sustatu beharreko Hiri Antolamendurako Plan Bereziak eta berau garatzeko xedean formulatu beharreko beste dokumentu eta proiektuek zehaztuko dute Esparru hau gauatzeko berariazko erregimena.

6.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Izaera orokorrez, Ingurumen Iraunkortasun Txostenean eta Plan Nagusiaren Hirigintza Arauen dokumentuan horiei begira xedaturikoa beteko da. Zehatz esateko, honako hauek dira, besteak beste, esparru honetan eragina duten baldintzatzaileak:

- Eragin Akustikoak:

Dagokion hirigintza eta ingurumen tramitazioa bideratu ahal izateko, eremuko eragin akustiko orokorra aurreikusteko moduko zarataren mapak eta ebaluazio akustikoak bilduko dituen Eragin Akustikoaren Azterketa egin beharko da.

- Aireko Zortasunei dagokien legeria:

Esparru hau Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuaren barnean dagoenez, beharreko obra baimena lortzeko, Arloko Araudia eta aireko zortasunei eta horietatik etorritako soinu eraginei dagokienean aplikatu beharreko legeria beteko dira. Zentzu honetan:

- Aintzat hartuko da hirigintza fitxa honetako 3. atalean –Hirigintza Erregimen Egituratzailerak– finkatutakoa.
Baimenak emateko tramiteak errazte aldera, komenigarria da garapenerako tresnen erredakzio aurreko faseetan balizko soluzioak URArekin adostea.

Zirkunstantzia hori aintzat hartuko dute garapen xeheak eta garapenerako proiektuek uholde-arriskuaren arabera lurzorua erabiltzeko irizpideekin bateragarria izateko.

- Errepide alorreko legeria. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Saila:

AP-8 autopistako lurren ondoan egonik eta haren gaineko eskuduntza Foru Aldundiarena dela kontuan izanik, aipatu foru erakundeak erabakitakoa egingo da.

- Eragin Akustikoak:

Berariaz aintzat hartuko dira zarataren mapa estrategikoak (ZME) 362-C/2009 Foru Arauan definituak eta Errege Dekretuaren aplikazioa kurba isofonoei dagokienean, dagozkion neurri zuzentzaileak jasotzeko beharra dagoela egiaztatzen bada.

Dagokion hirigintza eta ingurumen tramitazioa bideratu ahal izateko, eremuko eragin akustiko orokorra aurreikusteko moduko zarataren mapak eta ebaluazio akustikoak bilduko dituen Eragin Akustikoaren Azterketa egin beharko da.

- **Aireko Zortasunei dagokien legeria:**

Esparru hau Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuaren barruan dagoenez, obrei ekiteko baimena lortu ahal izateko Arloko Arautegia eta aireko zortasunen esparruan aplikagarria den legeria eta hartatik eratorritako eragin akustikoei buruzko legeria bete beharko dira. Ildo horretatik:

- Aintzat hartuko da hirigintza fitxa honetako 3. atalean –Hirigintza Erregimen Egiturazailea– finkatutakoa.
- Esparru hau garatuko duen Plan Bereziaren, Plan Partzialaren edo kideko tresnaren edo, hala behar badu, onartutako plangintzaren berrikuspen edo aldaketaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 10. artikuluan xedaturikoari jarraiki, esparru honetan ez dira Donostiako Aireportuan dabilzan aireontzientzako arriskutsu izan litekeen ke, hauts edo gisakorik igortzen duten instalazioak baimenduko, ez eta aske dabilzan hegaztientzako babesgune izan litezkeen instalazioak ere.
- Kontuan edukiko dira eguzki-argiaren balizko islapenak teilatu eta estalkietan, baita aireontzien tripulazioarentzako traba izan litezkeen eta aireko operazioen segurtasuna arriskuan jar dezaketen bestelako argi-iturri guztiak ere.
- Aireko Zortasunei buruzko 2490/1974 Dekretuak aldatutako 584/1972 Dekretuaren 15. Artikuluko b) atalean xedatutakoari jarraiki, debekatuta dago Aireko Nabigaziorako irrati-instalazioen Segurtasun Eremuetan edozein eraikin eraikitzea edo lur eremuaren eraketaren aldi baterako edo betiko aldaketa burura eramatea, bertako gainazala edo haren gainean dauden elementuak aldatzea, Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs) aldeztu aurretik baimena ematen ez badu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 16. Artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, ezinbestekoa da aldeko txostena eragozpenak mugatzen dituzten azalerak gainditu ez arren aireko irrati-instalazioen funtzionamendu egokia nahasi dezaketen erradiazio elektromagnetikoak sorrarazi ditzakeen irrati-igorleak edo bestelako gailuak paratu ahal izateko.
- Aireko Legezko Zortasun Eremuen esparruan edozein eraikin edo egitura egiteko eta horretarako behar diren bitartekoak jartzeko (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne), aldeztu aurretik aldeko txostena eman beharko du Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs), 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako 582/72 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera.

Bestalde, A sailean “Hirigintza eraginak” dagokion planoan, Plan Nagusi honen dokumentazio grafikoaren barnean baitago hura, islatzen da esparru honen

antolamenduaren aurrerapena, bertan definituriko Aireko Zortasunen azalera mugatzaileen mailaren marrei gainjarria.

Adierazitako baldintzatzailleak arautzen dituzten eta indarrean dauden irizpideak aplikatuko dira kasu hauetan guztietan.

Esparru honetara biltzen da Plan Nagusi honen Arkeologia Ondarearen Katalogoan zehaztutako paduraren atal txiki bat, eta horri begira jarduteko protokolo berezi bat ezartzen da.

Ingurumen izaerako neurriei dagokienez, Plan Nagusi honetara jasotako Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean azaldutako babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko xedapenak izango dira aplikagarri.

ÁMBITO: BLAIA

8.2.05




Plano de Calificación Global

Escala: 1/ 5.000

ÁMBITO: BLAIA

8.2.05



Plano de Calificación Pormenorizada

Escala: 1/ 1000

ESPARRUA: GAZTELUBERRI**8.2.06****HIRIGINTZA ZEHAZTAPENAK:****1.- DESKRIBAPENA**

Jarduera berri hau oso ikuspegi ederrak eskaintzen dituen gainaldean eta gaztelu zaharraren eta Gazteluzaharreko ikastetxearen ondoan planteatzen da. Jarduera eremu honetara biltzen da Antton Ttipi esparruko Plan Partzialak definitutako Ipar Gaztelun zegoen Gauzatze Unitatea.

Esparruaren Iparraldeko mugak bat egiten du Lastaola-Postetxea esparruko muga berriarekin. Gisa honetan, Lastaola Postetxea eta Darío de Regoyos kaleen berdintzea, luzatzea eta lotura ahalbidetzen da.

Hirigintza garapen honetan altuera ertaineko etxebizitza blokeen bidezko antolamendua bila da, etxebizitzak burura eraman beharreko bide berriaren alboan egokiturik.

Zoruaren gainerakoari Sistema Orokorreko Ekipamenduaren kalifikazioa ematea aurreikusten da, kalifikazio orokor bera duen "Gaztelu" esparruari segida emanaz.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Esparru honetako jardueraren helburu nagusia da hornidurarako espazio bat lortzea, espazio hau, Irungo Ekialdeko bizileku garapen guztietatik distantzia bertsura dagoen espazio hau, ezinbestekoa baita ikastetxe izaerako ekipamendu egoki bati leku egiteko.

Jardueraren helburua ere bada hornidurarako erreserba honen eta orain 8.2.07 "Gaztelu" esparrura biltzen den Antton Ttipiko Plan Partzialean aurreikusitako horniduraren arteko lotura ziurtatzea, une honetan bazterrera baitago hura eta, ondorioz, funtzionaltasun izaerako arazo batzuk eragiten baititu.

Honekin guztiarekin lortzen da hornidurarako erreserben multzoa ikastetxe bati leku egiteko lursail handi bat bihurtzea, bertan haur hezkuntzari eta lehen hezkuntzari emandako ikastetxe bat egokitu baitaiteke Behobia eta Artiako auzoen beharrei behar bezala erantzuteko xedean.

Era berean, jardueraren helburuak dira Behobiako erdigunearekin zuzenean lotzeko oinezkoentzako bide bat egitea, auzora iristeko xedean aurreikusitako bidea luzatuta, eta esparruaren behe aldean, Darío de Regoyos kalearen luzapen gisa egin beharreko bidearen alboan, bizileku alde baten antolamendua ahalbidetzea.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA

- HIRIGINTZA SAILKAPENA

Hiri Zorua.....azalera: 25.299,57 m²a

- KALIFIKAZIO GLOBALA

- Bizilekuak (R).....azalera: 7.516,86 m²a

- Hirigintza eraikigarritasuna:

- Sestra gainean.....5.121,00 m²s

- Sestrapean Eraikinaren % 100 sestra gainean

- Erabilera erregimena:

Plan Nagusi honen Arautegiaren 2.2.3. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Bizileku alorreko Hirigintza Eraikigarritasunaren gehikuntzaren erregimena babes publikoko etxebizitzaren eta hornidura bizitokiaren estandarrekiko.

- Hirigintza eraikigarritasun gorenaren 5.121 m²s

- Bizilekuak ez diren erabilera baimenduen eraikigarritasuna...970 m²s (*)

- Gauzatutako eraikigarritasuna675 m²s (*)

- Bizileku erabileraren eraikigarritasunaren gehikuntza3.476 m²s (*)

(*) Baimendutako erabileraren ehunekoaren arabera eta dauden eraikinen arabera kalkulaturako eraikigarritasunak.

- Babes publikoko etxebizitza (Gutxieneko ehunekoa) % 40
 lido horretatik erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko erabiliko da bizileku erabilerarako eraikigarritasun gehikuntzaren % 20 gutxienez.

- Hornidura bizitokiak 1,50 m²a /100 m²s
 52,14 m²a-ko azalera kalkulatu da hornidura bizitokiari begira zehaztutako erreserba.

6.1.01 Lartzabal esparruan egokitzea aurreikusten da.

- Sistema Orokorreko Ekipamenduak (E).....azalera: 17, 782,71 m²a

- AIREKO ZORTASUNAK. ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK

Esparru osorako 49,00 kota finkatu da itsas mailarekiko altuera goren gisa eta haren gainetik ez da inolako eraikuntzarik irtengo, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipoa, igogailuen kutxak, kartelak, dekorazio erremateak bezalako elementu guztiak barne. Era berean, kota hori ezin izango dute gainditu dagoen lurtean egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek, zutoinak, antenak, aerosorgailuak, haien palak barne, kartelak, energia elektrikoa garraiatzeko lineak, telekomunikazio azpiegiturak eta abar, eta ezta ibilgailuentzako baimendutako galibo gorenak ere.

Plan Nagusi honen A sortan “Hirigintza eraginak” dagokion eremuko planoan islatu dira zehatz burubide horiek.

Plan Nagusi honek arauen arabera finkaturiko eraikigarritasuna gauzatu ahal izateko, goian azaldutakoaren arabera definituriko altuera gorenaren mugak bete beharko dira betiere. Muga horien ondorioz eraikigarritasuna ezin bada osorik gauzatu, eta kontuan izanik, daukaten funtzio sozialagatik, jabetza eskubidearekiko legezko mugak direla Aireko Zortasunak, ondorio horietarako hartu daitekeen erabakiak ez du kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

- **ANTOLAMENDU XEHEA ZEHAZTEKO ERREGIMENA**

Hiri Antolamendurako Plan Berezi bat idatziko da. Plan Nagusi honek garapenerako plangintzaren esku uzten du antolamendu xehearen zehaztapena.

- **PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA**

Udal barrutian aurrera eramaniko hiriaren bilakaerarako eta lurzorua okupatzeko estrategiaren arabera, aurreikusi da Plan Nagusiaren programazio denboraren barnean gauzatuko dela esparrua.

Hiri Antolamendurako Plan Berezia idatzi eta onartuko da Plan Nagusi hau behin betikoz onartzen den egunetik kontatzen hasita gehienez ere lau urteko epean.

Esparru honetan aintzat hartutako Sistema Orokorreko ekipamendua berau lortzeko baizik ez da zehazten.

4.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHEA

Esparru honetan burura eraman beharreko Hiri Antolamendurako Plan Bereziak ezarriko ditu hirigintza erregimen xeheari dagozkion baldintzak.

Plangintza xehe honen esparruan eta Sistema Orokorreko Ekipamenduaren kalifikazio orokorrari begira, de $0,35 \text{ m}^2\text{s}/\text{m}^2\text{a}$ -koa izango da ikastetxe izaerako ekipamenduaren sestra gaineko eraikigarritasun fisikoa.

- **BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK**

Bizileku horniduretarako zehaztutako erreserba 6.1.01 “Lartzabal” esparruan egokitzeko aukera aurreikusten da.

Sistema Orokorreko Ekipamendu gisa definitutako zorua, behin lortuz gero, 8.2.07 “Gaztelu” auzoko esparruaren kalifikazio berarekin kalifikatuko da, eta plangintza dokumentu bat eta berera bilduko dira batera antolatzeko xedean.

Bizilekuaren antolamenduari dagokionez, behe oin eta hiru solairuko eraikuntza aurreikusi da. Nolanahi ere den, dagokion plangintza xehearen testuinguruan berretsi beharko da perfil gorenari buruzko irizpidea.

Fatxada Darío de Regoyos kaleari begira edukiko duen eraikin baten arabera antolatuko da bizileku alde hau. Eraikinak gehienez ere beheko solairu bat (erdi-sotoa) eta hiru solairu izango ditu altueran. Aurrekoaren paraleloan beste hiru etxebizitza egokitzea aurreikusten da, eta sendotu beharreko eraikinari segida emateko, gehienez ere beheko solairu bat (erdi-sotoa) eta hiru solairu izango ditu altueran.

Esparruaren goiko aldean, sistema orokorreko ekipamendu gisa kalifikatutako lurzoruan, dagoen eraikinak, antolamendutik kanpora geratzen denak, guztira 372 m² ditu eraikita. Bizileku erabilerarako lurzoruaren mendebaldean dagoen eraikina, guztira 249 m². eraikita dituena, sendotzea aurreikusten da.

Esparru honetan dauden eraikinak, lehendik ere bazeuden eraikinen kategoria gisa jasoak izango dira Plan Berezian. Nolanahi ere, eta Plangintza onartzen ez den bitartean, 2/2006 Legearen 101. artikuluan zehaztutakoaren arabera izango dira haietan gauzatzen diren lanen izaera eta irismena:

- Baimendu ahal izango dira eraikina gutxieneko bizigarritasun eta osasungarritasun baldintzetan mantentzeko beharrezkotzat hartzen diren obrak eta hirugarrenekiko kalteak saihesteko direnak.
- Ez dira baimenduko bolumenaren hobekuntza edo gehikuntza dakarten obra partzialak. Salbuespen gisa sendotze obra partzialak eta noiz-nolakoak baimendu ahal izango dira 15 urteko epean eraikina desjabetzea edo eraistea aurreikusi ez denean, obra horiek egin nahi diren datatik aurrera kontatuta eta obra horiek higiezinari balio handiagoa ematea ez dakartenean.
- Esparruan bizileku erabilera baimendua dagoenez, eraikinak dauden bitartean, haietan dauden erabilerak bateragarritzat hartzen dira hirigintza antolamenduarekin, baina ezin da besterik erantsi, bulegorako edo merkataritzarako ez bada bederen, eta hori eraikinaren erregimena eta bizi aldia aldatu gabe betiere. Ustezko erabilera berri horiek behin-behineko izaera izango dute eta 2/2006 Legearen 36. artikulua xedaturiko baldintzetan baimenduko ditu Udalak.

Azkenik, eta Hirigintza Jarduerarako Programa onartzen ez den bitartean (2/2006 Legearen 32. art.) ezin izango dira baimendu ez lurren zatiketa, eta ez hirigintza eraldaketa dakarten ekintzak eta erabilerak ere.

5.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA

Esparru honetan sustatu beharreko Hiri Antolamendurako Plan Bereziak eta berau garatzeko xedean formulatu beharreko beste dokumentu eta proiektuek zehaztuko dute Esparru hau gauzatzeko berariazko erregimena.

6.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Izaera orokorrez, Ingurumen Iraunkortasun Txostenean eta Plan Nagusiaren Hirigintza Arauen dokumentuan horiei begira xedaturikoa beteko da. Zehatz esateko, honako hauek dira, besteak beste, esparru honetan eragina duten baldintzatzaileak:

- Eragin Akustikoak:

Dagokion hirigintza eta ingurumen tramitazioa bideratu ahal izateko, eremuko eragin akustiko orokorra aurreikusteko moduko zarataren mapak eta ebaluazio akustikoak bilduko dituen Eragin Akustikoaren Azterketa egin beharko da.

- Aireko Zortasunei dagokien legeria:

Esparru hau Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuaren barruan dagoenez, obrei ekiteko baimena lortu ahal izateko Arloko Arautegia eta aireko zortasunen esparruan aplikagarria den legeria eta hartatik eratorritako eragin akustikoei buruzko legeria bete beharko dira. Ildo horretatik:

- Aintzat hartuko da hirigintza fitxa honetako 3. atalean –Hirigintza Erregimen Egituratzailerak– finkatutakoa.
- Esparru hau garatuko duen Plan Bereziaren, Plan Partzialaren edo kideko tresnaren edo, hala behar badu, onartutako plangintzaren berrikuspen edo aldaketaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 10. artikuluan xedaturikoari jarraiki, esparru honetan ez dira Donostiako Aireportuan dabilzan aireontzientzako arriskutsu izan litekeen ke, hauts edo gisakorik igortzen duten instalazioak baimenduko, ez eta aske dabilzan hegaztientzako babesgune izan litezkeen instalazioak ere.
- Kontuan edukiko dira eguzki-argiaren balizko islapenak teilatu eta estalkietan, baita aireontzien tripulazioarentzako traba izan litezkeen eta aireko operazioen segurtasuna arriskuan jar dezaketen bestelako argi-iturri guztiak ere.
- Aireko Zortasunei buruzko 2490/1974 Dekretuak aldatutako 584/1972 Dekretuaren 15. Artikuluko b) atalean xedatutakoari jarraiki, debekatuta dago Aireko Nabigaziorako irratzi-instalazioen Segurtasun Eremuetan edozein eraikin eraikitzea edo lur eremuaren eraketaren aldi baterako edo betiko aldaketa burura eramatea, bertako gainazala edo haren gainean dauden elementuak aldatzea, Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs) aldeztu aurretik baimena ematen ez badu.

- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 16. Artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, ezinbestekoa da aldeko txostena eragozpenak mugatzen dituzten azalera gainditu ez arren aireko irrati-instalazioen funtzionamendu egokia nahasi dezaketen erradiazio elektromagnetikoak sorrarazi ditzakeen irrati-igorleak edo bestelako gailuak paratu ahal izateko.
- Aireko Legezko Zortasun Eremuen esparruan edozein eraikin edo egitura egiteko eta horretarako behar diren bitartekoak jartzeko (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne), aldez aurretik aldeko txostena eman beharko du Aireko Segurtasunerako Estatuko Agentziak (AESAs), 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako 582/72 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera.


Bestalde, A sailean "Hirigintza eraginak" dagokion planoan, Plan Nagusi honen dokumentazio grafikoaren barnean baitago hura, islatzen da esparru honen antolamenduaren aurrerapena, bertan definituriko Aireko Zortasunen azalera mugatzaileen mailaren marrei gainjarria, eta baita esparru honetarako zehaztutako eraikuntzaren altuera gorena ere eta, behin antolamendua garatu ondoren aurreikusitako lurraren sestra kotak ere, hala behar badu.

Adierazitako baldintzatzailleak arautzen dituzten eta indarrean dauden irizpideak aplikatuko dira kasu hauetan guztietan.

Ingurumen izaerako neurriei dagokienez, Plan Nagusi honetara jasotako Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean azaldutako babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko xedapenak izango dira aplikagarri.

ÁMBITO: GAZTELUBERRI

8.2.06



Plano de Calificación Global

Escala: 1/ 2.000

ESPARRUA: GAZTELU**8.2.07****HIRIGINTZA ZEHAZTAPENAK:****1.- DESKRIBAPENA**

Udalerriaren ekialdean dago esparru hau, Antton Ttipi inguruan, eta udal Ekipamenduen Sistemari emana dago. Esparru honetara biltzen da 8.2.01-A “Zaisa III” esparruko Plan Partzialaren kudeaketatik etorritako zoruaren atal bat, zesoan emana, eta dagoeneko ekipamenduei emana den zorua, “Antton Ttipiko” Hirigintza Jarduerarako Planak 8.2.01-B “Gaztelu” esparru gisa definitua.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Zoru honen baterako antolamendua aurreikusten da mazelaren goiko aldean kirol eremu bat eta ikastetxe izaerako ekipamendua ahalbidetzeko. Aldi berean, tokiko izaera eta ingurumen eta morfologia izaerako ezaugarriak babestea bila da.

Topografikoki Behobiako eremua zehazten duen gainaldean, Behobiako mazelaren amaiera gisa, parke bat sortzea eta leku honen eta inguruko eremu eraikiaren arteko harreman egokia ziurtatzea.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA**- HIRIGINTZA SAILKAPENA**

Hiri Zorua.....azalera: 27.013,93 m²a

- KALIFIKAZIO GLOBALA

- **Sistema Orokorreko Ekipamenduak (E)**.....azalera: 27.013,93 m²a

- AIREKO ZORTASUNAK. ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK

Esparru osorako 49,00 kota finkatu da itsas mailarekiko altuera goren gisa eta haren gainetik ez da inolako eraikuntzarik irtengo, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipoak, igogailuen kutxak, kartelak, dekorazio erremateak bezalako elementu guztiak barne. Era berean, kota hori ezin izango dute gainditu dagoen lurrian egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek, zutoinak, antenak, aerosorgailuak, haien palak barne, kartelak, energia elektrikoa garraiatzeko lineak, telekomunikazio azpiegiturak eta abar, eta ezta ibilgailuentzako baimendutako galibo gorenak ere.

Plan Nagusi honen A sortan “Hirigintza eraginak” dagokion eremuko planoan islatu dira zehatz burubide horiek.

Plan Nagusi honek arauen arabera finkaturiko eraikigarritasuna gauzatu ahal izateko, goian azaldutakoaren arabera definituriko altuera gorenaren mugak bete beharko dira betiere. Muga horien ondorioz eraikigarritasuna ezin bada osorik gauzatu, eta kontuan izanik, daukaten funtzio sozialagatik, jabetza eskubidearekiko legezko mugak direla Aireko Zortasunak, ondorio horietarako hartu daitekeen erabakiak ez du kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

- ANTOLAMENDU XEHEA ZEHAZTEKO ERREGIMENA

Hiri Antolamendurako Plan Berezi bat idatziko da. Plan Nagusi honek garapenerako plangintzaren esku uzten du antolamendu xehearen zehaztapena.

- PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA

Udal barrutian aurrera eramano hiriaren bilakaerarako eta lurzorua okupatzeko estrategiaren arabera, aurreikusi da Plan Nagusiaren programazio denboraren barnean gauzatuko dela esparrua.

Hiri Antolamendurako Plan Berezia idatzi eta onartuko da Plan Nagusi hau behin betikoz onartzen den egunetik kontatzen hasita gehienez ere lau urteko epean.

4.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHEA

Esparru honetan bururatu beharreko garapenerako plangintzak zehaztuko ditu hirigintza erregimen xeheari buruzko baldintzak.

Plangintza xehe honen esparruan eta Sistema Orokorreko Ekipamenduaren kalifikazio orokorrari begira, de $0,30 \text{ m}^2/\text{s}/\text{m}^2\text{a}$ -koa izango da ekipamenduaren sestra gaineko eraikigarritasun fisikoa.

- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK

Plan Berezi honek 8.2.06 "Gazteluberri" esparruko Sistema Orokorreko Ekipamendu gisa definitutako zoruarekin bat eginda aurreikusiko du antolamendua. Gisa honetan, ikastetxe finkamendu bat eta bakarra gauzatu ahal izango da mazelaren goiko aldeko eremu laura biltzen den zoru guztian.

5.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA

Esparru honetan sustatu beharreko Hiri Antolamendurako Plan Bereziak eta berau garatzeko xedean formulatu beharreko beste dokumentu eta proiektuek zehaztuko dute Esparru hau gauzatzeko berariazko erregimena.

6.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Izaera orokorrez, Ingurumen Iraunkortasun Txostenean eta Plan Nagusiaren Hirigintza Arauen dokumentuan horiei begira xedaturikoa beteko da. Zehatz esateko, honako hauek dira, besteak beste, esparru honetan eragina duten baldintzatzaileak:

- Eragin Akustikoak:

Kalifikazioa aldatuz gero, eta dagokion hirigintza eta ingurumen tramitazioa bideratu ahal izateko, eremuko eragin akustiko orokorra aurreikusteko moduko zarataren mapak eta ebaluazio akustikoak bilduko dituen Eragin Akustikoaren Azterketa egin beharko da.

- Aireko Zortasunei dagokien legeria:

Esparru hau Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuaren barruan dagoenez, obrei ekiteko baimena lortu ahal izateko Arloko Arautegia eta aireko zortasunen esparruan aplikagarria den legeria eta hartatik eratorritako eragin akustikoei buruzko legeria bete beharko dira. Ildo horretatik:

- Aintzat hartuko da hirigintza fitxa honetako 3. atalean –Hirigintza Erregimen Egituratzailerak– finkatutakoa.
- Esparru hau garatuko duen Plan Bereziaren, Plan Partzialaren edo kideko tresnaren edo, hala behar badu, onartutako plangintzaren berrikuspen edo aldaketaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 10. artikuluan xedaturikoari jarraiki, esparru honetan ez dira Donostiako Aireportuan dabilzan aireontzientzako arriskutsu izan litekeen ke, hauts edo gisakorik igortzen duten instalazioak baimenduko, ez eta aske dabilzan hegaztientzako babesgune izan litezkeen instalazioak ere.
- Kontuan edukiko dira eguzki-argiaren balizko islapenak teilatu eta estalkietan, baita aireontzien tripulazioarentzako traba izan litezkeen eta aireko operazioen segurtasuna arriskuan jar dezaketen bestelako argi-iturri guztiak ere.
- Aireko Zortasunei buruzko 2490/1974 Dekretuak aldatutako 584/1972 Dekretuaren 15. Artikuluko b) atalean xedatutakoari jarraiki, debekatuta dago Aireko Nabigaziorako irrati-instalazioen Segurtasun Eremuetan edozein eraikin eraikitzea edo lur eremuaren eraketaren aldi baterako edo betiko aldaketa burura eramatea, bertako gainazala edo haren gainean dauden elementuak aldatzea, Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AES) alde aurretik baimena ematen ez badu.

- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 16. Artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, ezinbestekoa da aldeko txostena eragozpenak mugatzen dituzten azalera gainditu ez arren aireko irradi-instalazioen funtzionamendu egokia nahasi dezaketen erradiazio elektromagnetikoak sorrarazi ditzakeen irradi-igorleak edo bestelako gailuak paratu ahal izateko.
- Aireko Legezko Zortasun Eremuen esparruan edozein eraikin edo egitura egiteko eta horretarako behar diren bitartekoak jartzeko (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne), aldez aurretik aldeko txostena eman beharko du Aireko Segurtasunerako Estatuko Agentziak (AESAs), 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako 582/72 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera.


Bestalde, A sailean "Hirigintza eraginak" dagokion planoan, Plan Nagusi honen dokumentazio grafikoaren barnean baitago hura, islatzen da esparru honen antolamenduaren aurrerapena, bertan definituriko Aireko Zortasunen azalera mugatzaileen mailaren marrei gainjarria, eta baita esparru honetarako zehaztutako eraikuntzaren altuera gorena ere eta, behin antolamendua garatu ondoren aurreikusitako lurraren sestra kotak ere, hala behar badu.

Adierazitako baldintzatzaileak arautzen dituzten eta indarrean dauden irizpideak aplikatuko dira kasu hauetan guztietan.

Ingurumen izaerako neurriei dagokienez, Plan Nagusi honetara jasotako Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean azaldutako babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko xedapenak izango dira aplikagarri.

ÁMBITO: GAZTELU

8.2.07



Plano de Calificación Global

Escala: 1/ 2.000

ESPARRUA: LASTAOLA POSTETXEA**8.3.04****HIRIGINTZA ZEHAZTAPENAK:****1.- DESKRIBAPENA**

Behobiako auzoan dago esparru hau, Lastaola Postetxea bidearen luzeran zehar. Esparru honetako hirigintza garapenak 1999ko Plan Nagusiak inguru honi begira aurreikusitako zehaztapenak aldatzea bila du, iparraldeko saihesbiderako aurreikusitako bide berriak eraginda. Zirkunstantzia honek eraman du esparru honi begira zehaztutako eraikigarritasuna doitu behar izatera, nahiz eta, funtsean, aurreikusitako erabileren proposamenari eusten zaion.

Altuera ertaineko etxebizitza blokeen tipologiako bizileku alde bat antolatzea da hirigintza garapenaren xedea.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

- Jarduera honen helburu nagusia da GI-636 errepidea erregulatzea eta zabaltzea eta bide honek, Behobian barrena, hiri bide baten izaera edukitzea.
- Esku hartzen honen helburua ere bada kale fronte homogeen bat eratzea, hura berdintzea eta alde honen, auzoaren gainerakoaren eta ibaiaren ertzaren arteko espazio eta ibilbideei jarraipen handiagoa ematea, GI-636 errepideak sorrarazten duen egungo oztopoa gutxienera eramateko xedean.
- Eraikin zaharkituez osatutako hiri eremu degradatua etxebizitza programa baten bidez berrantolatzea bila da. Era berean, ekipamendu publikorako eremu bat aurreikusten da Behobiako bizileku aldean dagoen defizita gainditu ahal izateko.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA**- HIRIGINTZA SAILKAPENA**

Hiri Zorua.....azalera: 17.327,04 m²a

- KALIFIKAZIO GLOBALA

- **Bizilekuak (R)**.....azalera: 13.498,53 m²a

- Hirigintza eraikigarritasuna:

- Sestra gainean..... 15.261,00 m²s

- Sestrapean Eraikinaren % 100 sestra gainean

- Erabilera erregimena:

Plan Nagusi honen Arautegiaren 2.2.3. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Bizileku alorreko Hirigintza Eraikigarritasunaren gehikuntzaren erregimena babes publikoko etxebizitzaren eta hornidura bizitokiaren estandarrekiko:

- Babestutako Etxebizitza (BOE) (Gutxieneko ehunekoa) % 75
1999ko Plan Nagusiak esparru honi begira jada zehaztutako etxebizitza babestuen estandarri eutsi ahal izateko, erreferentziako plangintza nagusiak definitutako eraikigarritasunaren emaitza aplikatuko zaio etxebizitza eraikinari.

1999ko Plan Nagusian finkatutako bizitoki alorreko eraikigarritasuna 7.770 m²s

- Babes publikoko etxebizitza (Gutxieneko ehunekoa) % 40
Plan Nagusi honek 1999ko Plan Nagusiak esleitutako eraikigarritasunaren aldean finkatutako eraikigarritasunaren gehikuntza aplikatuko da ehuneko hori, eta erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke erabiliko da bizileku erabilerarako eraikigarritasun gehikuntzaren % 20 gutxienez.

Hirigintza eraikigarritasun gorenaren 15.261 m²s

Bizilekuak ez diren erabilera baimenduen eraikigarritasuna 3.050 m²s

Gauzatutako eraikigarritasuna: 2.964 m²s

PN berriaren finkatutako bizitoki alorreko eraikigarritasuna 9.247 m²s

1999ko Plan Nagusian finkatutako bizitoki alorreko eraikigarritasuna 7.770 m²s

Bizileku erabileraren eraikigarritasunaren gehikuntza 1.477 m²s

- Hornidura bizitokiak 1,50 m²a /100 m²s
138,70 m²a-ko azalera aurreikusten da hornidura bizitokietarako erreserba (PN berriak 9.247 m²s-an finkatutako bizitoki eraikigarritasunari dagokionez). Hornidura bizitokiak 6.1.01 "Lartzabal" esparruan egokitzea aurreikusten da.

- **Bide Sistema Orokorra (V)**.....azalera: 3.828,51 m²a

- AIREKO ZORTASUNAK. ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK

Esparru osorako 49,00 kota finkatu da itsas mailarekiko altuera goren gisa eta haren gainetik ez da inolako eraikuntzarik irtengo, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipak, igogailuen kutxak, kartelak, dekorazio erremateak bezalako elementu guztiak barne. Era berean, kota hori ezin izango dute gainditu dagoen lurrian egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek, zutoinak, antenak, aerosorgailuak, haien palak barne, kartelak, energia elektrikoa garraiatzeko lineak, telekomunikazio azpiegiturak eta abar, eta ezta ibilgailuentzako baimendutako galibo gorenak ere.

Plan Nagusi honen A sortan “Hirigintza eraginak” dagokion eremuko planoan islatu dira zehatz burubide horiek.

Plan Nagusi honek arauen arabera finkaturiko eraikigarritasuna gauzatu ahal izateko, goian azaldutakoaren arabera definituriko altuera gorenaren mugak bete beharko dira betiere. Muga horien ondorioz eraikigarritasuna ezin bada osorik gauzatu, eta kontuan izanik, daukaten funtzio sozialagatik, jabetza eskubidearekiko legezko mugak direla Aireko Zortasunak, ondorio horietarako hartu daitekeen erabakiak ez du kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

- **ANTOLAMENDU XEHEA ZEHAZTEKO ERREGIMENA**

Hiri Antolamendurako Plan Berezi bat idatziko da. Plan Nagusi honek garapenerako plangintzaren esku uzten du antolamendu xehearen zehaztapena.

- **PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA**

Udal barrutian aurrera eramaniko hiriaren bilakaerarako eta lurzorua okupatzeko estrategiaren arabera, aurreikusi da Plan Nagusiaren programazio denboraren barnean gauzatuko dela esparrua.

Hiri Antolamendurako Plan Berezia idatzi eta onartuko da Plan Nagusi hau behin betikoz onartzen den egunetik kontatzen hasita gehienez ere lau urteko epean.

Esparru honetan aintzat hartutako Bide Sistema Orokorra definitu da berau bideratu, gauzatu eta kostuak jasotzeko, eta hori guztia Plan Nagusi honen barruan dagoen D dokumentuan – Ekonomia – Finantza Bideragarritasunaren eta Ekonomi Iraunkortasunaren memorian finkatutakoaren arabera.

4.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHEA

Esparru honetan burura eraman beharreko Hiri Antolamendurako Plan Bereziak ezarriko ditu hirigintza erregimen xeheari dagozkion baldintzak. Horri dagokionean, plangintza xehe honek, indarrean dagoen legeriak xedaturikoarekin bat, esparruaren barnean tokiko sistemetako sareko berdeguneetarako eta espazio libreetarako aurreikusitako erreserba egokitu ahal izango da.

Tokiko beste hornidura publikoetarako definitu beharreko erreserbari dagokionez 2.066,00 m²a-tan kalkulatu baita, 4.2.07 “Kostorbe” esparruan egokitzeko aukera aurreikusten da, baina gutxienez 1.000 m²a bereizi behar dira esparru honetan bertan. Era berean, Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren esku uzten da gisa honetako horniduraren alternatibaren zehaztapena.

- **BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK**

Bizileku horniduretarako zehaztutako erreserba 6.1.01 “Lartzabal” esparruan egokitzeko aukera aurreikusten da.

GI-636 errepidea berritzeko xedean erabakitako diseinuaren soluzio berriarekin bat egin beharko du esparru honetako antolamenduak.

Xehetasun osoz garatuko dira Behobia auzoko hirigune historikoarekin harremanetan jartzeko elementuak oro.

Gehienez ere beheko solairu, hiru solairu altueran eta atzera eramandako atikoa dituen perfileko bizileku alde bat antolatzea aurreikusi da Thalamas Labandibar kalearen parean, gehienez ere beheko solairu eta altueran beste lau solairu izango dituen bizilekua Mendipe esparruaren ondoan, eta beheko solairu eta altueran bost solairuko bizileku alde biribilgunearen alde bietako erdialdeetan.

Inguruko zerbitzu sarearekin egokiro lotu beharko da.

Esparru honetan dauden eraikinak, lehendik ere bazeuden eraikinen kategoria gisa jasoak izango dira Plan Berezian. Nolanahi ere, eta Plangintza onartzen ez den bitartean, 2/2006 Legearen 101. artikuluan zehaztutakoaren arabera izango dira haietan gauzatzen diren lanen izaera eta irismena:

- Baimendu ahal izango dira eraikina gutxieneko bizigarritasun eta osasungarritasun baldintzetan mantentzeko beharrezkotzat hartzen diren obrak eta hirugarrenetako kalteak saihesteko direnak.
- Ez dira baimenduko bolumenaren hobekuntza edo gehikuntza dakarten obra partzialak. Salbuespen gisa sendotze obra partzialak eta noiz-nolakoak baimendu ahal izango dira 15 urteko epean eraikina desjabetzea edo eraistea aurreikusi ez denean, obra horiek egin nahi diren datatik aurrera kontatuta eta obra horiek higiezinari balio handiagoa ematea ez dakartenean.
- Esparruan bizileku erabilera baimendua dagoenez, eraikinak dauden bitartean, haietan dauden erabilerak bateragarritzat hartzen dira hirigintza antolamenduarekin, baina ezin da besterik erantsi, bulegorako edo merkataritzarako ez bada bederen, eta hori eraikinaren erregimena eta bizi aldia aldatu gabe betiere. Ustezko erabilera berri horiek behin-behineko izaera izango dute eta 2/2006 Legearen 36. artikulua xedaturiko baldintzetan baimenduko ditu Udalak.

Azkenik, eta Hirigintza Jarduerarako Programa onartzen ez den bitartean (2/2006 Legearen 32. art.) ezin izango dira baimendu ez lurren zatiketa, eta ez hirigintza eraldaketa dakarten ekintzak eta erabilerak ere.

5.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA

Esparru honetan sustatu beharreko Hiri Antolamendurako Plan Bereziak eta berau garatzeko xedean formulatu beharreko beste dokumentu eta proiektuek zehaztuko dute Esparru hau gauzatzeko berariazko erregimena.

6.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Izaera orokorrez, Ingurumen Iraunkortasun Txostenean eta Plan Nagusiaren Hirigintza Arauen dokumentuan horiei begira xedaturikoa beteko da. Zehatz esateko, honako hauek dira, besteak beste, esparru honetan eragina duten baldintzatzaileak:

- Zoru kutsatuak:

Lurzoruaren kutsadurari aurrea hartzeko eta berau zuzentzeko indarrean dagoen legeak zehaztutakoa aplikatuko da, otsailaren 4ko 4/2005 Legea, kutsatuta egon daitezkeen zoruak berreskuratu eta saneatu ahal izateko. Ezarritakoarekin bat etorriz, besteak beste zoruaren kalitatearen adierazpen espedientearen xede izango dira esparru honetan jasotzen diren zoru kutsatuak.

- Errepide alorreko legeria. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Saila.

GI-636 errepidearen ondoan egonik eta bide honen gaineko eskuduna Foru Aldundia denez gero, aipatu foru erakundeak erabakitakoa beteko da.

- Eragin Akustikoak:

Berariaz aintzat hartuko dira 362-C/2009 Foru Arauan definitutako zarataren mapa estrategikoak (ZME) eta Errege Dekretuaren aplikazioa kurba isofonei dagokienean, dagozkion neurri zuzentzaileak jasotzeko beharra dagoela egiaztatzen bada.

Dagokion hirigintza eta ingurumen tramitazioa bideratu ahal izateko, eremuko eragin akustiko orokorra aurreikusteko moduko zarataren mapak eta ebaluazio akustikoak bilduko dituen Eragin Akustikoaren Azterketa egin beharko da.

Zirkunstantzia hori aintzat hartuko dute garapen xeheak eta garapenerako proiektuek uholde-arriskuaren arabera lurzorua erabiltzeko irizpideekin bateragarria izateko.

- Itsas-lehorreko jabari publikoa eta hura babesteko eremuak:

Esparru honetan, kosta lerrotik hurbil edo haren jarraian egoteagatik, Kosta Legean eta haren Araudian itsas-lehorreko jabari publikoan, jabari publikoko eremu desberdinen eta babes zortasunen eremuen arabera, onartzen diren erabileren inguruan zehaztutako mugak jasoko dira. Babes-zortasuneko eremuan planteatzen diren erabilerek bete egin beharko dute Kosta Legearen 25. artikulua xedaturikoa, eta alderdi hori kontuan hartu beharko da. Xede horrekin islatu dira, esparru honen dokumentazio grafiko gisa aurkezten den Kalifikazio Globalaren Planoan, jabari publikoko lerroa nahiz babes eremua eta itsasertzarena mugatzen dituzten lerroak.

- Aireko Zortasunei dagokien legeria:

Esparru hau Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuaren barruan dagoenez, obrei ekiteko baimena lortu ahal izateko Arloko Arautegia eta aireko zortasunen esparruan aplikagarria den legeria eta hartatik eratorritako eragin akustikoei buruzko legeria bete beharko dira. Ildo horretatik:

- Aintzat hartuko da hirigintza fitxa honetako 3. atalean –Hirigintza Erregimen Egituratzalea– finkatutakoa.
- Esparru hau garatuko duen Plan Bereziaren, Plan Partzialaren edo kideko tresnaren edo, hala behar badu, onartutako plangintzaren berrikuspen edo aldaketaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 10. artikuluan xedaturikoari jarraiki, esparru honetan ez dira Donostiako Aireportuan dabilzan aireontzientzako arriskutsu izan litekeen ke, hauts edo gisakorik igortzen duten instalazioak baimenduko, ez eta aske dabilzan hegaztientzako babesgune izan litezkeen instalazioak ere.
- Kontuan edukiko dira eguzki-argiaren balizko islapenak teilatu eta estalkietan, baita aireontzien tripulazioarentzako traba izan litezkeen eta aireko operazioen segurtasuna arriskuan jar dezaketen bestelako argi-iturri guztiak ere.
- Aireko Zortasunei buruzko 2490/1974 Dekretuak aldatutako 584/1972 Dekretuaren 15. Artikuluko b) atalean xedatutakoari jarraiki, debekatuta dago Aireko Nabigaziorako irrati-instalazioen Segurtasun Eremuetan edozein eraikin eraikitzea edo lur eremuaren eraketaren aldi baterako edo betiko aldaketa burura eramatea, bertako gainazala edo haren gainean dauden elementuak aldatzea, Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs) aldeztu aurretik baimena ematen ez badu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 16. Artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, ezinbestekoa da aldeko txostena eragozpenak mugatzen dituzten azalerak gainditu ez arren aireko irrati-instalazioen funtzionamendu egokia nahasi dezaketen erradiazio elektromagnetikoak sorrarazi ditzakeen irrati-igorleak edo bestelako gailuak paratu ahal izateko.
- Aireko Legezko Zortasun Eremuen esparruan edozein eraikin edo egitura egiteko eta horretarako behar diren bitartekoak jartzeko (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne), aldeztu aurretik aldeko txostena eman beharko du Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs), 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako 582/72 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera.

Bestalde, A sailean "Hirigintza eraginak" dagokion planoan, Plan Nagusi honen dokumentazio grafikoaren barnean baitago hura, islatzen da esparru honen antolamenduaren aurrerapena, bertan definituriko Aireko Zortasunen azalera mugatzaileen mailaren marrei gainjarria, eta baita esparru honetarako zehaztutako eraikuntzaren altuera gorena ere eta, behin antolamendua garatu ondoren aurreikusitako lurraren sestra kotak ere, hala behar badu.


Adierazitako baldintzatzailleak arautzen dituzten eta indarrean dauden irizpideak aplikatuko dira kasu hauetan guztietan.

Esparru honetara biltzen da Plan Nagusi honen Ondare Arkeologikoaren Katalogoan zehaztutako paduraren atal txiki bat, eta horri begira jarduteko protokolo berezi bat ezartzen da.

Ingurumen izaerako neurriei dagokienez, Plan Nagusi honetara jasotako Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean azaldutako babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko xedapenak izango dira aplikagarri.

ÁMBITO: LASTAOLA POSTETXEA

8.3.04



Plano de Calificación Global

Escala: 1/ 2.000

ESPARRUA: MENDIPE**8.3.05****HIRIGINTZA ZEHAZTAPENAK:****1.- DESKRIBAPENA**

1999ko Plan Nagusiak finkatutako hirigintza alorreko burubide orokorrak garatzeko prozesuan dago esparru hau, Behobiako auzoaren inguruko ezaugarri tipologikoekin bat datozen bizileku alde bat eta hirugarren sektorearen erabilerarako alde bat antolatu ahal izateko.

1999ko Plan Nagusian zehaztutako hirigintza burubideak garatu ahal izateko, 2007ko irailaren 26an behin betiko onartu zen zegokion Hiri Antolamendurako Plan Berezia.

Plan Nagusi honek sendotu egiten ditu 1999ko Plan Nagusian finkatutako hirigintza alorreko burubide orokorrak, baina zehaztutako hirigintza eraikigarritasunaren gehikuntza bat ahalbidetzen du esparruaren mendebaldean dauden eraikinak birmoldatu ahal izateko.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

- Behobiako gasolindegia berrantolatzea kontuan izanik GI-636 errepidean aurreikusitako biribilgunea. Era berean, gasolindegirako sarbideak bide berriari egokitzea.
- Egungo hirugarren sektoreko erabilerak sustatzea eta antolatzea egungo bidearen ertzetan eta Zaisako eraikinak zehaztutako lerrokadurei jarraiki.
- Lastaola Postetxea kaleko bizileku erabilerak antolatzea. Xede horretan aipatu kalearekin lerroatutako bloke bakana eraikiko da.
- Lastaola Postetxea kalea berdintzea eta Alcatel de Sacas kalearekiko lotura sustatzea.
- Esparruaren mendebaldean, EB-1 lursailean, egokitu beharreko eraikina berrantolatzea bila da, "Lastaola Postetxea" esparruan aurreikusitako eraikinaren lerrokadurekin eta perfilekin bat etorri eta Endarlatsa Hiribidearen hegoaldeko frontearen itxurarekin osaturik.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA**- HIRIGINTZA SAILKAPENA**

Hiri Zorua.....azalera: 17.906,00 m²a

- KALIFIKAZIO GLOBALA

- **Bizilekuak (R)**.....azalera: 17.616,84 m²a

- Hirigintza eraikigarritasuna:

- Sestra gainean..... 17.686,80 m²s

RB-1 lursailean 6.618,00 m²a-koa izango da hirigintza eraikigarritasuna, eta gainerako lursailetan jada zehaztutako eraikigarritasunari eutsiko zaio.

- Sestrapean Eraikinaren % 100 sestra gainean

- Erabilera erregimena:

Plan Nagusi honen Arautegiaren 2.2.3. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Baimendutako erabilerak:

- Hirugarren sektorea, proposatutako merkataritza 1.062,00 m²s sestra gainean

- Hirugarren sektorea, egungo merkataritza..... 1.442,18 m²s sestra gainean

- Hirugarren sektorea, gasolindegia 500,00 m²s sestra gainean

- Bizileku alorreko Hirigintza Eraikigarritasunaren gehikuntzaren erregimena babes publikoko etxebizitzaren eta hornidura bizitokiaren estandarrekiko.

1999ko Plan Nagusiaren hirigintza alorreko burubideak garatzeko prozesuan dago esparrua, eta beraz, Plangintza honetan jada zehaztutakoa da babestutako etxebizitzaren eta hornidura bizitokiaren estandarrekiko finkatzeko erregimen juridikoa.

Zentzu horretan, 1999ko Plan Nagusiak hirigintza eraikigarritasunaren soilik % 20 babestutako etxebizitzak eraikitzeke obligazioa aurreikusten du.

Plan Nagusi honek bizitoki alorreko hirigintza eraikigarritasunaren gehikuntza ahalbidetzen du aurrez zehaztutakoaren aldean. Hortaz, burura eramaten baldin bada, babestutako etxebizitzaren ehuneko berriak soilik aipatutako gehikuntzari aplikatuko zaizkio.

- Babes publikoko etxebizitza (Gutxieneko ehunekoa) % 20
Ehuneko hori 1999ko Plan Nagusian finkatutako bizileku aprobetxamenduari aplikatuko zaio, eta erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke izango da.

1999ko PNaren araberako hirigintza eraikigarritasun gorenaren 15.200,00 m²s

Bizilekuak ez diren baimenduen eraikig 1999ko PNaren arabera ..3.004,18 m²s

1999ko Plan Nagusian finkatutako bizitoki eraikigarritasuna 12.195,82 m²s.

- Babes publikoko etxebizitza (Gutxieneko ehunekoa) % 40
Plan Nagusi honek 1999ko Plan Nagusiak esleitutako eraikigarritasunaren aldean finkatutako eraikigarritasunaren gehikuntzan aplikatuko da ehuneko hori, eta erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke erabiliko da bizileku erabilerarako eraikigarritasun gehikuntzaren % 20 gutxienez.

Hirigintza eraikigarritasun gorena 17.687,00 m²s
 Bizilekuak ez diren erabilera baimenduen eraikigarritasuna 3.004,18 m²s
 PN berrian finkatutako bizitoki alorreko eraikigarritasuna 14.682,82 m²s
 1999ko Plan Nagusian finkatutako bizitoki alorreko eraikigarritasuna
 12.195,82 m²s
 Bizileku erabileraren eraikigarritasunaren gehikuntza 2.487,00 m²s

- Hornidura bizitokiak 1,50 m²a /100 m²s
 220,25 m²a-ko azaleran aurreikusten da hornidura bizitokietarako zehaztutako erreserba (PN berriak 14.682,82 m²s-an finkatutako bizitoki eraikigarritasunari dagokionez) eta 6.1.01 "Lartzabal" esparruan egokitzea aurreikusten da.

- **Bide Sistema Orokorra (V)**.....azalera: 289,16 m²a

- **AIREKO ZORTASUNAK. ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK**

Esparru osorako 49,00 kota finkatu da itsas mailarekiko altuera goren gisa eta haren gainetik ez da inolako eraikuntzarik irtengo, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipoak, igogailuen kutxak, kartelak, dekorazio erremateak bezalako elementu guztiak barne. Era berean, kota hori ezin izango dute gainditu dagoen lurrian egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek, zutoinak, antenak, aerosorgailuak, haien palak barne, kartelak, energia elektrikoa garraiatzeko lineak, telekomunikazio azpiegiturak eta abar, eta ezta ibilgailuentzako baimendutako galibo gorenak ere.

Plan Nagusi honen A sortan "Hirigintza eraginak" dagokion eremuko planoan islatu dira zehatz burubide horiek.

Plan Nagusi honek arauen arabera finkaturiko eraikigarritasuna gauzatu ahal izateko, goian azaldutakoaren arabera definituriko altuera gorenaren mugak bete beharko dira betiere. Muga horien ondorioz eraikigarritasuna ezin bada osorik gauzatu, eta kontuan izanik, daukaten funtzio sozialagatik, jabetza eskubidearekiko legezko mugak direla Aireko Zortasunak, ondorio horietarako hartu daitekeen erabakiak ez du kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

- **ANTOLAMENDU XEHEA ZEHAZTEKO ERREGIMENA**

Garapenerako plangintzaren esku uzten du Plan Nagusi honek antolamendu xehearen zehaztapena.

- **PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA**

Une honetan gauzatze aldian dago esparru hau.

4.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHEA

Onartutako Hiri Antolamendurako Plan Bereziak zehazten du hirigintza erregimen xehea, baina aintzat hartu beharko dira Plan Nagusi honetan adierazitako aldaketak; hauek, aipatu Plan Berezian aldaketa batzuk eginik, aukera ematen dute, hala behar izanez gero, esparruaren mendebaldeko zoruaren okupazioa errentagarriagoa izateko, hirigintza eraikigarritasun handiagoa antolaturik.

Hala bada, indarrean dagoen legerian finkatutakoarekin bat etorririk, tokiko sistemetako sareko hornidurei eta ekipamenduei eman beharreko lurren erreserba zehaztu beharko du. Horrekin loturik, eta erreserba horietarako, 405,38 m²a-ko azalera berdeguneetarako eta espazio libreetarako, eta 540,53 m²a-ko azalera tokiko beste hornidura publikoetarako, aintzat hartuko da horiek 4.2.07 "Kostorbe" esparruan kokatzeko aukera.

- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK

Esparruaren mendebaldean egokituko den eraikinak gehienez ere beheko solairua eta lau solairu izango ditu altueran, "Lastaola Postetxea" esparruan aurreikusitako antolamenduarekin eta "Mendipe" esparruaren ekialdean aintzat hartutako eraikinarekin bat etorririk.

Onartutako Barne Erreformatarako Plan Bereziak guztira 3.915,33 m²-ko eraikigarritasuna ematen dio sestra gainean orain aldatu egiten den RB-1 lursailari; horietatik 1.442,18 m² egungo dendek hartzen dute, beste 1.260,04 m² hartuko lituzke proposatutako merkataritza aldeak eta beste 1.213,11 m² proposatutako bizileku aldeak. Lursail honetan, sestrapean baina, 1.128 m²-ko eraikigarritasuna zehazten da.

Esparru honetan dauden eraikinak, lehendik ere bazeuden eraikinen kategoria gisa jasoak izango dira Plan Berezian. Nolanahi ere, eta Plangintza onartzen ez den bitartean, 2/2006 Legearen 101. artikuluan zehaztutakoaren arabekoak izango dira haietan gauzatzen diren lanen izaera eta irismena:

- Baimendu ahal izango dira eraikina gutxieneko bizigarritasun eta osasungarritasun baldintzetan mantentzeko beharrezkotzat hartzen diren obrak eta hirugarrenetikiko kalteak saihesteko direnak.
- Ez dira baimenduko bolumenaren hobekuntza edo gehikuntza dakarten obra partzialak. Salbuespen gisa sendotze obra partzialak eta noiz-nolakoak baimendu ahal izango dira 15 urteko epean eraikina desjabetzea edo eraistea aurreikusi ez denean, obra horiek egin nahi diren datatik aurrera kontatuta eta obra horiek higiezinari balio handiagoa ematea ez dakartenean.
- Esparruan bizileku erabilera baimendua dagoenez, eraikinak dauden bitartean, haietan dauden erabilerak bateragarritzat hartzen dira hirigintza antolamenduarekin, baina ezin da besterik erantsi, bulegorako edo merkataritzarako ez bada bederen, eta hori eraikinaren erregimena eta bizi aldia aldatu gabe betiere. Ustezko erabilera berri horiek behin-behineko izaera

izango dute eta 2/2006 Legearen 36. artikulua xedaturiko baldintzetan baimenduko ditu Udalak.

Azkenik, eta Hirigintza Jarduerarako Programa onartzen ez den bitartean (2/2006 Legearen 32. art.) ezin izango dira baimendu ez lurren zatiketa, eta ez hirigintza eraldaketa dakarten ekintzak eta erabilerak ere.

5.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA

Esparru honetan sustatu beharreko Hiri Antolamendurako Plan Bereziak eta berau garatzeko xedean formulatu beharreko beste dokumentu eta proiektuek zehaztuko dute Esparru hau gauzatzeko berariazko erregimena.

6.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Izaera orokorrez, Ingurumen Iraunkortasun Txostenean eta Plan Nagusiaren Hirigintza Arauen dokumentuan horiei begira xedaturikoa beteko da. Zehatz esateko, honako hauek dira, besteak beste, esparru honetan eragina duten baldintzatzailleak:

- Aireko Zortasunei dagokien legeria:

Esparru hau Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuaren barruan dagoenez, obrei ekiteko baimena lortu ahal izateko Arloko Arautegia eta aireko zortasunen esparruan aplikagarria den legeria eta hartatik eratorritako eragin akustikoei buruzko legeria bete beharko dira. Ildo horretatik:

- Aintzat hartuko da hirigintza fitxa honetako 3. atalean –Hirigintza Erregimen Egituratzaillea– finkatutakoa.
- Esparru hau garatuko duen Plan Bereziaren, Plan Partzialaren edo kideko tresnaren edo, hala behar badu, onartutako plangintzaren berrikuspen edo aldaketaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 10. artikuluan xedaturikoari jarraiki, esparru honetan ez dira Donostiako Aireportuan dabilzan aireontzientzako arriskutsu izan litekeen ke, hauts edo gisakorik igortzen duten instalazioak baimenduko, ez eta aske dabilzan hegaztientzako babesgune izan litezkeen instalazioak ere.
- Kontuan edukiko dira eguzki-argiaren balizko islapenak teiltatu eta estalkietan, baita aireontzien tripulazioarentzako traba izan litezkeen eta aireko operazioen segurtasuna arriskuan jar dezaketen bestelako argi-iturri guztiak ere.

- Aireko Zortasunei buruzko 2490/1974 Dekretuak aldatutako 584/1972 Dekretuaren 15. Artikuluko b) atalean xedatutakoari jarraiki, debekatuta dago Aireko Nabigaziorako irrati-instalazioen Segurtasun Eremuetan edozein eraikin eraikitzea edo lur eremuaren eraketaren aldi baterako edo betiko aldaketa burura eramatea, bertako gainazala edo haren gainean dauden elementuak aldatzea, Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs) aldeztatik baimena ematen ez badu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 16. Artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, ezinbestekoa da aldeko txostena eragozpenak mugatzen dituzten azalerak gainditu ez arren aireko irrati-instalazioen funtzionamendu egokia nahasi dezaketen erradiazio elektromagnetikoak sorrarazi ditzakeen irrati-igorleak edo bestelako gailuak paratu ahal izateko.
- Aireko Legezko Zortasun Eremuen esparruan edozein eraikin edo egitura egiteko eta horretarako behar diren bitartekoak jartzeko (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne), aldeztatik aldeko txostena eman beharko du Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs), 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako 582/72 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera.


Bestalde, A sailean "Hirigintza eraginak" dagokion planoan, Plan Nagusi honen dokumentazio grafikoaren barnean baitago hura, islatzen da esparru honen antolamenduaren aurrerapena, bertan definituriko Aireko Zortasunen azalera mugatzaileen mailaren marrei gainjarria, eta baita esparru honetarako zehaztutako eraikuntzaren altuera gorena ere eta, behin antolamendua garatu ondoren aurreikusitako lurraren sestra kotak ere, hala behar badu.

Adierazitako baldintzatzaileak arautzen dituzten eta indarrean dauden irizpideak aplikatuko dira kasu hauetan guztietan.

Ingurumen izaerako neurriei dagokienez, Plan Nagusi honetara jasotako Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean azaldutako babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko xedapenak izango dira aplikagarri.

ÁMBITO: MENDIPE

8.3.05



Plano de Calificación Global

Escala: 1/ 2.000

ESPARRUA: PAUSU**8.3.12****HIRIGINTZA ZEHAZTAPENAK:****1.- DESKRIBAPENA**

Behobiako merkataritza gunearen inguruan garatuko da jarduera hau, GI-636 errepidearen alde bietara. Esparru honetara biltzen dira Behobiako egungo merkataritza aldea eta hegoaldeko GI-636 errepide atala, berritu beharreko errepide atala.

Merkataritzari emandako hirugarren sektorerako eraikin berri bat aurreikusi da egungo merkataritza aldean, Behobia auzoaren egitura morfologikoaren atala osatzen duen etxadia berreskuratzea bila baita. Etorkizuneko antolamenduak bat egingo du egungo eta proposatutako espazio eta eraikinekin.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

- Egungo merkataritza gunea berrantolatzea aurreikusten da, bolumenen lerrokadura eta konfigurazio berri bat zehaztuz, aurrean duen hiri espazioarekin egokiro uztartzeko xedean. Hirugarren sektoreari emandako eraikuntza berri honek mugatutako esparrura biltzen diren merkataritza instalazioen antolamendu berria aurreikusiko du.
- Merkataritza alde honen aurreko GI-636 errepide atalaren urbanizazioa aurreikusiko da hiriko espazio hau berreskuratzeke irizpideari jarraiki eta aurreikusitako bide sistemaren funtzionamendu orokorarekin bat etorriz.
- Era berean jarduera honen helburua da Behobiako finkamendua espazio libre bereziekin eta aparkalekuekin osatzeko beharrari hirigintzaren ikuspuntutik erantzun ahal izatea.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA**- HIRIGINTZA SAILKAPENA**

Hiri Zorua.....azalera: 6.078,41 m²a

- KALIFIKAZIO GLOBALA

- **Jarduera Ekonomikoak (A)**.....azalera: 3.690,16 m²a

- Hirigintza eraikigarritasuna:

- Sestra gainean.....4.500,00 m²s

- Sestrapean9.000,00 m²s

- Erabilera erregimena:
Plan Nagusi honen Arautegiaren 2.2.3. Artikuluan xedatutakoaren arabera.
- **Bide Sistema Orokorra (V)**.....azalera: 2.388,25 m²a
- **AIREKO ZORTASUNAK. ERAIKIGARRITASUNAREN MUGAK**

Esparru osorako 49,00 kota finkatu da itsas mailarekiko altuera goren gisa eta haren gainetik ez da inolako eraikuntzarik irtingo, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuaren ekipoak, igogailuen kutxak, kartelak, dekorazio erremateak bezalako elementu guztiak barne. Era berean, kota hori ezin izango dute gainditu dagoen lurrian egindako aldaketek edo jarritako objektu finkoek, zutoinak, antenak, aerosorgailuak, haien palak barne, kartelak, energia elektrikoa garraiatzeko lineak, telekomunikazio azpiegiturak eta abar, eta ezta ibilgailuentzako baimendutako galibo gorenak ere.

Plan Nagusi honen A sortan "Hirigintza eraginak" dagokion eremuko planoan islatu dira zehatz burubide horiek.

Plan Nagusi honek arauen arabera finkaturiko eraikigarritasuna gauzatu ahal izateko, goian azaldutakoaren arabera definituriko altuera gorenaren mugak bete beharko dira betiere. Muga horien ondorioz eraikigarritasuna ezin bada osorik gauzatu, eta kontuan izanik, daukaten funtzio sozialagatik, jabetza eskubidearekiko legezko mugak direla Aireko Zortasunak, ondorio horietarako hartu daitekeen erabakiak ez du kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

- **ANTOLAMENDU XEHEA ZEHAZTEKO ERREGIMENA**

Hiri Antolamendurako Plan Berezi bat idatziko da. Plan Nagusi honek garapenerako plangintzaren esku uzten du antolamendu xehearen zehaztapena.

- **PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA**

Udal barrutian aurrera eramaniko hiriaren bilakaerarako eta lurzorua okupatzeko estrategiaren arabera, aurreikusi da Plan Nagusiaren programazio denboraren barnean gauzatuko dela esparrua.

Hiri Antolamendurako Plan Berezia idatzi eta onartuko da Plan Nagusi hau behin betikoz onartzen den egunetik kontatzen hasita gehienez ere lau urteko epean.

Esparru honetan aintzat hartutako Sistema Orokorreko Bidea definitu da berau bideratu, gauzatu eta kostuak jasotzeko.

4.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHEA

Esparru honetan bururatu beharreko garapenerako plangintzak zehaztuko ditu hirigintza erregimen xeheari buruzko baldintzak.

- **BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK**

Esparruaren iparraldean osatuko den etxadiaren lerrokadura berriek Maria Juncal Labandibar kaleari begira dauden etxebizitzaren gibelaldearekin izango duten harremana ziurtatzeko moduan egituratuko da merkataritza guner berria.

Sestrapeko aparkalekuak aurreikusi beharko dira, nahikoa kopuruarekin, gainazalean aurreikusitako plazekin batera merkataritzari emandako hirugarren sektoreko alde berri honen beharrei egokiro erantzun ahal izateko.

Era berean, ibaiaren ertzeko ibilbidearekiko lotura ziurtatuko da, baita, Mendipe esparruan barrena, hegoaldean dauden espazio libreekiko lotura ere.

Gehienez ere bi solairuko (ez dira aintzat hartzen tarteko solairuak) eraikinen bidez antolatuko da merkataritza alde hau, baina beste solairu bat gehitu daiteke alde honetako leku berezi batzuetan.

Esparru honetan dauden merkataritza eraikinek, egun, 1.212 m²-ko azalera dute eraikirik. Gaur egun esparru honetan dauden eraikinek lehendik ere bazeuden eraikinen kategoria izango dute, eta Plan Berezi baten mende egongo dira. Nolanahi ere, eta Plangintza onartzen ez den bitartean, 2/2006 Legearen 101. artikuluan zehaztutakoaren arabekoak izango dira haietan gauzatzen diren lanen izaera eta irismena:

- Baimendu ahal izango dira eraikina gutxieneko bizigarritasun eta osasungarritasun baldintzetan mantentzeko beharrezkotzat hartzen diren obrak eta hirugarrenetik kalteak saihesteko direnak.
- Ez dira baimenduko bolumenaren hobekuntza edo gehikuntza dakarten obra partzialak. Salbuespen gisa sendotze obra partzialak eta noiz-nolakoak baimendu ahal izango dira 15 urteko epean eraikina desjabetzea edo eraistea aurreikusi ez denean, obra horiek egin nahi diren datatik aurrera kontatuta eta obra horiek higiezinari balio handiagoa ematea ez dakartenean.

Azkenik, eta Hirigintza Jarduerarako Programa onartzen ez den bitartean (2/2006 Legearen 32. art.) ezin izango dira baimendu ez lurren zatiketa, eta ez hirigintza eraldaketa dakarten ekintzak eta erabilerak ere.

5.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA

Esparru honetan sustatu beharreko Hiri Antolamendurako Plan Bereziak eta berau garatzeko xedean formulatu beharreko beste dokumentu eta proiektuek zehaztuko dute Esparru hau gauzatzeko berariazko erregimena.

6.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Izaera orokorrez, Ingurumen Iraunkortasun Txostenean eta Plan Nagusiaren Hirigintza Arauen dokumentuan horiei begira xedaturikoa beteko da. Zehatz esateko, honako hauek dira, besteak beste, esparru honetan eragina duten baldintzatzaileak:

- **Errepide alorreko legeria. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Saila.**

GI-636 errepidearen ondoan egonik eta bide honen gaineko eskuduna Foru Aldundia denez gero, aipatu foru erakundeak erabakitakoa beteko da.

- **Eragin Akustikoak:**

Berariaz aintzat hartuko dira 362-C/2009 Foru Arauan definitutako zarataren mapa estrategikoak (ZME) eta Errege Dekretuaren aplikazioa kurba isofonoei dagokienean, dagozkion neurri zuzentzaileak jasotzeko beharra dagoela egiaztatzen bada.

Dagokion hirigintza eta ingurumen tramitazioa bideratu ahal izateko, eremuko eragin akustiko orokorra aurreikusteko moduko zarataren mapak eta ebaluazio akustikoak bilduko dituen Eragin Akustikoaren Azterketa egin beharko da.

- **Aireko Zortasunei dagokien legeria:**

Esparru hau Donostiako Aireportuari dagozkion Legezko Aireko Zortasunen Eremuaren barruan dagoenez, obrei ekiteko baimena lortu ahal izateko Arloko Arautegia eta aireko zortasunen esparruan aplikagarria den legeria eta hartatik eratorritako eragin akustikoei buruzko legeria bete beharko dira. Ildo horretatik:

- Aintzat hartuko da hirigintza fitxa honetako 3. atalean –Hirigintza Erregimen Egituratzailerak– finkatutakoa.
- Esparru hau garatuko duen Plan Bereziaren, Plan Partzialaren edo kideko tresnaren edo, hala behar bada, onartutako plangintzaren berrikuspen edo aldaketaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 10. artikuluan xedaturikoari jarraiki, esparru honetan ez dira Donostiako Aireportuan dabilzan aireontzientzako arriskutsu izan litekeen ke, hauts edo gisakorik igortzen duten instalazioak baimenduko, ez eta aske dabilzan hegaztientzako babesgune izan litezkeen instalazioak ere.

- Kontuan edukiko dira eguzki-argiaren balizko islapenak teilatu eta estalkietan, baita aireontzien tripulazioarentzako traba izan litezkeen eta aireko operazioen segurtasuna arriskuan jar dezaketen bestelako argi-iturri guztiak ere.
- Aireko Zortasunei buruzko 2490/1974 Dekretuak aldatutako 584/1972 Dekretuaren 15. Artikuluko b) atalean xedatutakoari jarraiki, debekatuta dago Aireko Nabigaziorako irrati-instalazioen Segurtasun Eremuetan edozein eraikin eraikitzea edo lur eremuaren eraketaren aldi baterako edo betiko aldaketa burura eramatea, bertako gainazala edo haren gainean dauden elementuak aldatzea, Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs) aldeztu aurretik baimena ematen ez bada.
- Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 16. Artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, ezinbestekoa da aldeko txostena eragozpenak mugatzen dituzten azalerak gainditu ez arren aireko irrati-instalazioen funtzionamendu egokia nahasi dezaketen erradiazio elektromagnetikoak sorrarazi ditzakeen irrati-igorleak edo bestelako gailuak paratu ahal izateko.
- Aireko Legezko Zortasun Eremuen esparruan edozein eraikin edo egitura egiteko eta horretarako behar diren bitartekoak jartzeko (eraikuntza garabiak eta antzekoak barne), aldeztu aurretik aldeko txostena eman behar du Aireko Segurtasunerako Estatu Agentziak (AESAs), 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako 582/72 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera.

Bestalde, A sailean "Hirigintza eraginak" dagokion planoan, Plan Nagusi honen dokumentazio grafikoaren barnean baitago hura, islatzen da esparru honen antolamenduaren aurrerapena, bertan definituriko Aireko Zortasunen azalera mugatzaileen mailaren marrei gainjarria, eta baita esparru honetarako zehaztutako eraikuntzaren altuera gorena ere eta, behin antolamendua garatu ondoren aurreikusitako lurraren sestra kotak ere, hala behar bada.


Adierazitako baldintzatzailleak arautzen dituzten eta indarrean dauden irizpideak aplikatuko dira kasu hauetan guztietan.

Esparru hau, parte batean bederen, Plan Nagusi honen araberako Arkeologia Ondarearen Katalogoan zehaztutako padurara biltzen da; beraz, jarduteko protokolo berezi baten mende dago.

Ingurumen izaerako neurriei dagokienez, Plan Nagusi honetara jasotako Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenean azaldutako babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko xedapenak izango dira aplikagarri.

ÁMBITO: PAUSU

8.3.12



Plano de Calificación Global

Escala: 1/ 1.000

ESPARRUA: URUNE**9.1.01****HIRIGINTZA ZEHAZTAPENAK:****1.- DESKRIBAPENA**

Olaberriako korridorearen inguruan dago esparru hau. Une honetan berrikusten ari garen aurreko Plan Nagusiaren arabera zoru Urbanizagarri Programatu Gabea da, industria erabilerarako bereizia baina garatu gabea. Zoru hau egun ia erabiltzen ere ez diren, hondatuta dauden edo guztiz abandonatuta dauden ekonomia jardueri emana izan da

Egoera berezi honek ingurumen izaerako ondorio agerikoak planteatzen ditu, antolamendurik ez dagoelako eta lur eremu honetan egokiro uztartzen ez delako, eta Olaberriako haran honetan kasu bakarra ez den arren, duen garrantziagatik eta egungo hirigintza sailkapena aintzat harturik, nekez justifikatu liteke bertan esku ez hartzea eta Plan Nagusirik at uztea, hala egitera haran hau pixkana-pixkana degradatu egingo bailitzateke ezinbestean.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Olaberriako haranak batasun izaera agerikoa duela eta hiritik gertu dagoela aintzat harturik, Plan Nagusi honek ezinbestekotzat jotzen du udal ekimeneko Babesteko Plan Berezi bat, hura babesteko arauen bidez plangintza orokorraren zehaztapenak bete ahal izateko eta, hala behar izanez gero, arau gehiago artikulatzeko aukera eduki ahal izateko

Honenbestez, Olaberriako haranaren multzoari begira idatzi beharreko Babesteko Plan Berezi honek bertan ezarri beharreko erabileren antolamendu integratua zehaztu ahal izango du, egungo nekazaritza eta baso erabilerak biziberritzeko aukera emango du, landa eremuak, eremu arkeologikoak, kultu eremuak eta beste bereziki babesteko aukera emango du.

Babesteko Plan Berezi honek, era berean, landa eremuko egungo eraikinei eusteko baldintzak, ibai eta erreka bazterrak antolatzeko baldintzak, oinezkoen eta txirrindularien zirkulaziorakin bateragarriak izango diren bide eta xendrak egiteko baldintzak, egungo errepidearen ezaugarriak eta alde honetan ezarriko diren erabilerek eskatuko dituzten sarbideekiko bateragarritasuna hobetzeko eta zehazteko baldintzak eta inguru hau hobe sustatzeko eta Irungo biztanleen beharretara egokitze beste baldintza guztiak zehaztuko ditu haranaren lurraldearen multzo osoari begira.

Gainera, Babeserako Plan Berezi honetan jaso beharko dira haran honetako erabilera nagusiarekiko, hau da landa-erabilerarekiko, bateragarri diren erabilerak eta jarduerak bultzatzeko errespetatu beharreko oinarritzko baldintzak, bai eta iraunkortasuna zaintzeko baldintzak ere, erabilera eta jarduera horien ondorioz ingurumenean, ikusgarritasunean eta paisaian eragina duten inpaktuen sorrera eragoztearren.

Kontuan hartuko dira, halaber, honako puntu hauek: lur-sailen banaketa tradizionala aldatzeko baldintzak, ingurune horretakoak ez diren eraikinen debekua, erabilera horietatik sor daitezkeen trafiko eta aparkaleku-premia guztien erregularizazioa, eta abar.

Ildo honetatik, Plan Nagusi honek aukera ematen dio Olaberria harana Babesteko Plan Bereziari honek berezko dituen irizpide eta irizpide zehatzez gainera, inguru fisiko naturalaren multzoaren ingurumenaren azterketatik abiaturik eta harekiko koherentzia bermatzeko xedean, irizpide osagarriak proposatu ahal izateko, oraingo honetan Urbanizagarri Ez Sektorizatu gisa sailkatzen den zoruaren garapenari begira betiere. Era berean, erabilera motak eta aprobetxamendu onargarriak zehaztu ahal izango dira.

Plan Nagusi honek, gainera, aukera ematen dio aipatutako Plan Bereziari, Urbanizagarri Ez Sektorizatu gisa sailkatutako zoru honi begira, ingurumenara biltzeko neurriak zehaztu ditzan, baita esparru honetan, aipatutako sektoreari atxikirik, onargarriak diren garapenei zerbitzatzeko zerbitzu, hartune eta besteen azpiegiturak, sarbide sareak eta beste egiteko irizpideak zehaztu ditzan ere. Irizpide horiek guztiak aintzat hartuko dira Sektorizazio Plana egiteko orduan.

Honenbestez, esparru honetan Sektorizazio Plana izango da Plan Nagusiaren antolamendu egituratzailea osatuko duen tresna, sektorizazioaren xede den zoruaren mugak jaso eta betikoz zehaztuko dituen, lur eremuak kalifikatuko dituen, hirigintza eraikigarritasuna zehaztuko duena eta garatu beharreko erabilerak eta erabilera bateragarriak esleituko dituen. Eta hori guzti hori lurraldearen garapen iraunkorra ziurtatzeko estrategia orokorrekin eta Olaberriako harana Babesteko Plan Bereziaren xedatutakoarekin bat etorrira.

Beraz, esparru honetako Sektorizazio Plana idatzi baino lehen, aipatutako Babesteko Plan Berezia idatzi beharko da. Babesteko Plan Berezi honi Sektorizazio Plana onartu baino lehen edo aldi berean emango zaio hasierako onarpena.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA

- HIRIGINTZA SAILKAPENA

Zoru urbanizagarri Sektorizatu gabeaazalera: 55.770,57 m²

- KALIFIKAZIO GLOBALA

Sektorizazio Planak zehaztuko du. Esparrua sektorizatuta ez dagoen artean, Zoru Urbanizaezinean, Nekazaritza eta Abeltzaintzarako Landa Eremu kategorian, zehaztutakoa izango da erabilera erregimen aplikagarria.

- AIREKO ZORTASUNAK

Esparru honen ezaugarriak kontuan izanik, Legezko Aire Zortasunek zehaztutako azalera konikoa gainditzen duten eraikinek okupatuta baitago egun, eta burura eraman beharreko Sektorizazio Planak finkatu lezakeenarekin bat etorriz lurzoru hau berreskuratzea bila baita, ezarritako kota gorena gainditzeko aukera aurreikusten da esparru honetan.

Azterketa Aeronautiko batek babestu beharko du aukera hori, AENAK teknikoki aintzat hartua eta AESAK onartua. Azterketa horrek egiaztatu beharko du Hirigintza plangintzan aurreikusitako jarduerak ez dutela hegazkinen segurtasuna arriskuan jarriko eta ez dutela egungo nahiz etorkizuneko joan-etorrien erregularitasunean eraginik izango. Era berean, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren aldeko iritzia beharko dute hirigintza plangintzek edo garapenen planek nahiz haien berrikuspen edo aldaketek, eta Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziak (AESAs) berriazko baimena eman beharko du, hirigintza lizentziaren aurretik.

Sektorizazio Planean finkatu beharreko hirigintza eraikigarritasunak aipatutako Azterlan Aeronautikoan definitu beharreko altuera gorenaren mugak beteko ditu.


Esparru hau garatuko duen Plan Bereziaren, Plan Partzialaren edo kideko tresnaren edo, hala behar badu, onartutako plangintzaren berrikuspen edo aldaketaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu.

- PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA

Burura eraman beharreko Sektorizazio Planaren arabera izango da esparru honetako programazio eta gauzatze erregimena.

ÁMBITO: URUNE

9.1.01



Plano de Calificación Global

Escala: 1/ 2.500

ESPARRUA: EPELE**9.1.02****HIRIGINTZA ZEHAZTAPENAK:****1.- DESKRIBAPENA**

Olaberriako korridorearen inguruan dago esparru hau. Une honetan berrikusten ari garen aurreko Plan Nagusiaren arabera zoru Urbanizagarri Programatu Gabea da, industria erabilerarako berezia baina garatu gabea. Zoru hau egun ia erabiltzen ere ez diren, hondatuta dauden edo guztiz abandonatuta dauden ekonomia jardueri emana izan da

Egoera berezi honek ingurumen izaerako ondorio agerikoak planteatzen ditu, antolamendurik ez dagoelako eta lur eremu honetan egokiro uztartzen ez delako, eta Olaberriako haran honetan kasu bakarra ez den arren, duen garrantziagatik eta egungo hirigintza sailkapena aintzat harturik, nekez justifikatu liteke bertan esku ez hartzea eta Plan Nagusirik at uztea, hala egitera haran hau pixkana-pixkana degradatu egingo bailitzateke ezinbestean.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Olaberriako haranak batasun izaera agerikoa duela eta hiritik gertu dagoela aintzat harturik, Plan Nagusi honek ezinbestekotzat jotzen du udal ekimeneko Babesteko Plan Berezi bat, hura babesteko arauen bidez plangintza orokorraren zehaztapenak bete ahal izateko eta, hala behar izanez gero, arau gehiago artikulatzeko aukera eduki ahal izateko

Honenbestez, Olaberriako haranaren multzoari begira idatzi beharreko Babesteko Plan Berezi honek bertan ezarri beharreko erabileren antolamendu integratua zehaztu ahal izango du, egungo nekazaritza eta baso erabilerak biziberritzeko aukera emango du, landa eremuak, eremu arkeologikoak, kultu eremuak eta beste bereziki babesteko aukera emango du.

Babesteko Plan Berezi honek, era berean, landa eremuko egungo eraikinei eusteko baldintzak, ibai eta erreka bazterrak antolatzeko baldintzak, oinezkoen eta txirrindularien zirkulaziorakin bateragarriak izango diren bide eta xendrak egiteko baldintzak, egungo errepidearen ezaugarriak eta alde honetan ezarriko diren erabilerek eskatuko dituzten sarbideekiko bateragarritasuna hobetzeko eta zehazteko baldintzak eta inguru hau hobe sustatzeko eta Irungo biztanleen beharretara egokitze beste baldintza guztiak zehaztuko ditu haranaren lurraldearen multzo osoari begira.

Gainera, Babeserako Plan Berezi honetan jaso beharko dira haran honetako erabilera nagusiarekiko, hau da landa-erabilerarekiko, bateragarri diren erabilerak eta jarduerak bultzatzeko errespetatu beharreko oinarritzko baldintzak, bai eta iraunkortasuna zaintzeko baldintzak ere, erabilera eta jarduera horien ondorioz ingurumenean, ikusgarritasunean eta paisaian eragina duten inpaktuen sorrera eragoztearren.

Kontuan hartuko dira, halaber, honako puntu hauek: lur-sailen banaketa tradizionala aldatzeko baldintzak, ingurune horretakoak ez diren eraikinen debekua, erabilera horietatik sor daitezkeen trafiko eta aparkaleku-premia guztien erregularizazioa, eta abar.

Ildo honetatik, Plan Nagusi honek aukera ematen dio Olaberria harana Babesteko Plan Bereziari honek berezko dituen irizpide eta irizpide zehatzez gainera, inguru fisiko naturalaren multzoaren ingurumenaren azterketatik abiatu eta harekiko koherentzia bermatzeko xedean, irizpide osagarriak proposatu ahal izateko, oraingo honetan Urbanizagarri Ez Sektorizatu gisa sailkatzen den zoruaren garapenari begira betiere. Era berean, erabilera motak eta aprobetxamendu onargarriak zehaztu ahal izango dira.

Plan Nagusi honek, gainera, aukera ematen dio aipatutako Plan Bereziari, Urbanizagarri Ez Sektorizatu gisa sailkatutako zoru honi begira, ingurumenara biltzeko neurriak zehaztu ditzan, baita esparru honetan, aipatutako sektoreari atxikirik, onargarriak diren garapenei zerbitzatzeko zerbitzu, hartune eta besteen azpiegiturak, sarbide sareak eta beste egiteko irizpideak zehaztu ditzan ere. Irizpide horiek guztiak aintzat hartuko dira Sektorizazio Plana egiteko orduan.

Honenbestez, esparru honetan Sektorizazio Plana izango da Plan Nagusiaren antolamendu egituratzailea osatuko duen tresna, sektorizazioaren xede den zoruaren mugak jaso eta betikoz zehaztuko dituen, lur eremuak kalifikatuko dituen, hirigintza eraikigarritasuna zehaztuko duena eta garatu beharreko erabilerak eta erabilera bateragarriak esleituko dituen. Eta hori guzti hori lurraldearen garapen iraunkorra ziurtatzeko estrategia orokorrekin eta Olaberriako harana Babesteko Plan Bereziaren xedatutakoarekin bat etorrira.

Beraz, esparru honetako Sektorizazio Plana idatzi baino lehen, aipatutako Babesteko Plan Berezia idatzi beharko da. Babesteko Plan Berezi honi Sektorizazio Plana onartu baino lehen edo aldi berean emango zaio hasierako onarpena.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA

- HIRIGINTZA SAILKAPENA

Zoru urbanizagarri Sektorizatu gabeaazalera: 54.966,34 m²

- KALIFIKAZIO GLOBALA

Sektorizazio Planak zehaztuko du. Esparrua sektorizatuta ez dagoen artean, Zoru Urbanizaezinean, Nekazaritza eta Abeltzaintzarako Landa Eremu kategorian, zehaztutakoa izango da erabilera erregimen aplikagarria.

- AIREKO ZORTASUNAK

Esparru honetako alde batzuetan lur eremuak berak gainditzen ditu Aireko Zortasunak, A-3 "Aireko Zortasunak aplikagarria den legeriaren arabera" planoan eta A-4 "Aireko Zortasunen Xehetasunak" plano sortan ikus daitekeen bezala. Beraz, Aireko Zortasunak urratzen dituen eremu hauetan eraiki asmo den edozein eraikinek larriagotuko luke urratze-maila hori, eta segur asko larriagotu egingo luke, era berean, babestutako eremuen gaineko eragina.

Salbuespen gisa, zortasunak gainditzen diren leku horietan esparrua garatu ahal izango da AESAk egiaztatzen badu segurtasuna bermatuko dela eta ez dela eragin nabarmenik izango aireontzien jardunaren erregulartasunean sustatzaileak aurkeztutako azterketa aeronautikoaren bidez, eta Aenak teknikoki aldeko iritzia ematen badu, Aireko Zortasunei buruzko 584/72 Dekretuaren 7. eta 9. artikuluetan, haren egungo erredakzioan, jasotako salbuespenen arabera.

Esparru hau garatuko duen Plan Bereziaren, Plan Partzialaren edo kideko tresnaren edo, hala behar badu, onartutako plangintzaren berrikuspen edo aldaketaren inguruko iritzia eman beharko du Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak hura Hasieran Onartu aurretik, 2591/1998 Errege Dekretuaren Bigarren Aldi Baterako Xedapenak zehaztutakoaren arabera, 1189/2011 Errege Dekretuak aldatua hura, eta Sustapen Ministerioaren aldeko txostenik ez badago ezin izango da betiko onartu.

Sektorizazio Planean finkatu beharreko hirigintza eraikigarritasunak aipatutako Azterlan Aeronautikoan definitu beharreko altuera gorenaren mugak beteko ditu.

- PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA

Burura eraman beharreko Sektorizazio Planaren arabera izango da esparru honetako programazio eta gauzatze erregimena.

ÁMBITO: EPELE

9.1.02



Plano de Calificación Global

Escala: 1/ 4.000

OLABERRIAKO HARANA BABESTEKO PLAN BEREZIA

HIRIGINTZA ZEHAZTAPENAK:

1.- DESKRIBAPENA

Irungo Plan Nagusiak zehazten du Olaberria izeneko haranarekin bat egiten duen lurraldea Babesteko Plan Berezia. Hiriaren hegoaldean eta hego-mendebaldean kokaturik, lurralde honek, hasierako mugen arabera bederen, Mokokorrotz aldea ere biltzen du bere baitara. Guztira 600 Ha hartzen ditu gutxi gora-behera.

Mugatutako esparru honetako lurraldeari batasun izaera eman nahi zaio, eta bertan, batez ere landa izaerako espazio eta erabilera anitzak diren esparruan, bestelako egoerak gertatzen dira, baina hiritik gertu dagoenez eta irisgarritasuna egokia denez, badira beste erabilera batzuk ezartzeko aukerak. Erabilera berri hauek, aipatutako landa eremuarekin zerikusia eduki arren, Plan Nagusi honetatik zehaztu litekeena baino zehaztapen eta doitasun handiagoa eskatzen dute.

Arrazoi horrexegatik funtsezkoa da Babes eta Zaintza Plan Berezi baten figura. Plan honek udal ekimenaren emaitza behar du izan, eta Plan Nagusiaren antolamendu egituratzailearen garapenean formulatuko da. Plangintza nagusiak eremu honi begira ezarritako zehaztapenak osatzea eta arautzea izango du xede Plan Bereziak, eta horretarako harana egokiro babesteko arau zehatzak ezarriko ditu. Era berean, arau gehigarriak edo bereziak ezartzeko aukera izango du, hala behar izanez gero.

Olaberria haraneko Plan Bereziak, gainera, kontuan edukiko du esparru honetan landa izaerarekin bat ez datozen erabilera batzuei leku egiten dieten eremu batzuk daudela, haietatik batzuk Plan Nagusi honek, aurrekoak bezalaxe, zoru urbanizagarri gisa sailkatutako alde bitan kokatuta.

Plan Nagusia berrikusteko unean, gisa honetako erabilera ez egokiek, nola garatu gabeko esparru urbanizagarrietan hala arestian adierazitakoa gertatzen den beste aldeetan ere, arazoak planteatzen zituzten, ez ziren inguruarekin behar bezala uztartzen, instalazioak abandonatuta zeuden, okupatutako zorua ia ez zen erabiltzen edo/eta oso hondatuta zegoen, eta ondorioz, ingurumen izaerako kalte agerikoak eragiten ari ziren, behar bezala antolatu gabe zeudelako eta eremuarekin uztatzen ez zirelako.

Egoera berezi hauek jarduera koordinatua eta eraginkorra eskatzen eta justifikatzen dute haranaren multzoan nagusi diren ingurumen izaerako ezaugarriekiko begirunea eta egokitzapena bermatuko dituen etorkizuneko antolamenduan beharreko soluzioa, soluzio egokia, eskaintzeko. Ildo honetatik planteatu litezkeen jarduerari ekin baino lehen harana Babesteko Plan Berezia idazteko betebeharra da azaldutako helburuen multzoa lortzeko eta haran honetako ingurumenaren degradazio prozesua iraultzeko modurik onena.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 72. artikuluan xedaturikoaren arabera, eta landa izaerako elementuak biltzen dituzten esparruei, deskribatutako Olaberriako harana bezalako esparruari, dagokienez, Babes eta Zaintza Plan Bereziak Plan Nagusiak osatzea dute xede, planen zehaztapenek xede dituzten elementu naturalak babesteko arauen bidez. Gisa honetako Planek, gainera, Plan Nagusian jaso gabeko beste babes-arau osagarriak zehaztu ditzakete.

Gainera, aipatutako 2/2006 Legearen 3. artikuluan zehaztutako garapen iraunkorrerako printzipioen arabera, Plan Berezi honek naturaren baliabideak zentzuz eta modu iraunkorrean erabiltzea bermatu behar du, lurralde ereduan zehaztu bezala, politika publikoetan zein jarduera pribatuetan, bai ingurumena bera, bai gizakiaren garapena, elkarri ondo uztartu eta egokitu behar zaizkio, guztiona den natura eta hiri ondare hau belaunaldi batetik bestera aurrera joan dadin osasuntsu eta orekan, pertsona guzti-guztiei eman behar die naturaz eta inguruaz gozatzeko aukera, baita kultura, arkeologia, historia, arte eta arkitektura arloko ondareaz gozatzeko aukera ere. Era berean, babestu egingo ditu lurzoruak dituen baliabide naturalak, bai beren balio produktiboengatik, bai erreferentzia izateagatik hirigintza garapen iraunkorrerako tokiko estrategiarentzat.

Babes eta Zaintza Plan Berezi honen helburu nagusia da hasiera batean mugatutako lurraldeko natura, baso eta nekazaritza baliabideak ingurumenaren eta paisaiaren ikuspuntutik babestuz, zainduz eta hobetuz antolamendu integral bat osatzea, esparru honetan planteatu eta onartu litezkeen erabilera eta jardueren aurreko etorkizuneko eskaerak baimentzeko eta haiek egokiro antolatzeko xedean.

Ildo honetatik, Irungo Plan Nagusiak Olaberriako haranari begira proposatutako Babesteko Plan Bereziak ezarri beharreko erabileren antolamendu integratua zehaztuko du, egungo nekazaritza nahiz basogintza erabilerak biziberritu eta sustatuko ditu, eta bereziki babestuko ditu landa inguruak, eremu arkeologikoak eta kultur eremuak nahiz adieraz litezkeen beste zeinahi elementu esanguratsu.

Era berean, Babesteko Plan Bereziak, zoru urbanizaezinen kategoriak arautzeko xedean Plan Nagusiak modu orokorrean aurreikusitakoa sakonduz edo zehaztuz, egungo landa izaerako eraikinak mantentzeko eta ibai eta erreken ertzak antolatzeko baldintza zehatzak definituko ditu haranaren lurralde osoari begira.

Plan Bereziak, era berean, oinezkoen/txirrindularien zirkulazioarekin bateragarriak diren bideen eta xendren nondik norakoak zehaztuko ditu, egungo errepidearen ezaugarriak eta alde honetan ezarriko diren erabilerak eskatuko dituzten sarbideekiko bateragarritasuna hobetzeko eta zehazteko baldintzak eta inguru hau hobe sustatzeko eta Irungo biztanleen beharretara egokitzeko beste baldintza guztiak zehaztuko ditu.

Babesteko Plan Berezi honek, gainera, batik bat landa eremuaren izaera duen espazioan bateragarriak diren erabilerak eta jarduerak mantentzeko eta sustatzeko baldintzak ezarriko ditu, haran honetako eremu jakin batzuetan ekipamenduetarako erabilera jakin batzuk, aisialdirako nahiz kultur eta kirol izaerako erabilerak, pribatuak

nahiz publikoak, zehaztuko ditu, eta erabilera eta jarduera hauetatik eratorritako ingurumen, ikusizko eta paisaia izaerako inpaktuen sorrera galarazteko iraunkortasun baldintzak zehaztuko ditu.

Era berean, lursailen sare tradizionala aldatzeko baldintzak jasoko ditu, inguruarekin uztartzen ez diren eraikinak altxatzeko debekua, aipatutako erabileren ezarpenetik etor litezkeen trafikoak arautzeko eta sor litezkeen aparkaleku beharrei erantzuteko baldintzak eta behar diren beste baldintza guztiak zehaztuko ditu.

Gehigarri gisa eta Urune eta Epele esparruetako zoru urbanizagarriei dagokienez, Urbanizagarri Ez Sektorizatu gisa sailkatuak direnei dagokienez, Olaberriako harana Babesteko Plan Bereziak, berezko dituen irizpide eta irizpide zehatzez gainera, inguru fisiko naturalaren multzoaren ingurumenaren azterketatik abiatu eta harekiko koherentzia bermatzeko xedean, aipatutako eremu biak garatzeko irizpide osagarriak proposatu ahal izango ditu, baita eremu haietan onargarriak izango diren erabilera eta aprobetxamendu motak ere.

Plan Nagusi honek, gainera, aukera ematen dio Babes eta Zaintza Plan Bereziari honek, Urbanizagarri Ez Sektorizatu gisa sailkatutako zoruari begira, ingurumenera biltzeko neurriak har ditzan eta aipatu esparruan onargarriak diren garapenei zerbitzatzeko sarbide, zerbitzuen azpiegitura, hartune eta beste sareak gauzatzeko irizpideak ezar ditzan, beti ere aipatutako eremu sektorizatuari begira. Irizpide hauek guztiak aintzat hartuko dira, nahitaez, geroagoko Sektorizazio Planak egiteko orduan.

Honenbestez, aipatutako esparru urbanizagarri bietako Sektorizazio Planak idatzi eta onartu baino lehen, edo aldi berean, idatzi eta onartu beharko da Babesteko Plan Berezi hau, eta Plan Bereziak berak zehaztuko duena izango da haren betiko muga.

Udal ekimenari jarraiki gauzatu den Babes eta Zaintza Plan Bereziaren formulazioari dagokionez, Plan Nagusiak ez du beharrezkotzat jotzen hari hasiera emateko epe jakin bat ezartzea, nahiz eta Plan Bereziaren garapenera jasotako jarduera jakin batzuk premiazkotzat jotzen dituen burura eraman beharreko ekimen batzuk egokiro bideratu ahal izateko xedean babes eta antolamendu izaerako neurriak hartu ahal izateko.

Tramitazioari dagokionez, eta indarrean dagoen Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen arauzko xedapenen eta 97.1 artikuluan xedaturikoaren arabera, Plan Bereziari hasierako onarpena eman eta gero, Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen organoari igorriko zaio, honek ingurumen inpaktuaren baterako lehen ebaluazioa egin dezan. Era berean, aipatutako Legearen 97.4 artikulua arabera, Plan Berezi honek zoru urbanizaezina ukitzen duenez, Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txosten bat idatzi beharko du.

Edukiari eta zehaztapenei dagokienez, antolamendu xeheak eta bila diren helburuei egokituriko dokumentuek definituko dituzte, eta gutxienez, Plan Partzialek berezko duten garapen maila izango dute. Plan Berezi honetara, gainera, ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren araudiak eskatzen duen dokumentazioa jasoko da, urbanizaezin gisa sailkatutako zorua ukitzen baitu.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA**- HIRIGINTZA SAILKAPENA**

Olaberriako Harana Babesteko Plan Berezi honek, gutxi gora-behera, etorkizunean zehaztu beharko baita, 600 Ha hartzen ditu. Batez ere Zoru Urbanizaezina biltzen da bertara, Urune eta Epele esparruak izan ezik, hauek 110.736,91 m²-ko guztizko azalerarekin. Urune eta Epele esparruak, beren aldetik, zoru Urbanizagarri Ez Sektorizatu gisa daude sailkatuta.

- ESPARRU ARAUEMAILEA

Lurralde honetako esparru arauemailea, hasiera batean Plan Nagusi honetara bildua, areago zehaztu eta definitu behar du Babes eta Zaintza Plan Bereziak.

- PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA

Babesteko Plan Bereziak berak zehaztuko du programazioaren definizioa eta ondoren gauzatzeko garapena.


4.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHEA

Olaberriako Harana Babesteko Plan Bereziak zehaztuko du.

- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK

Aurrekariak eta haranaren egungo egoera kontuan izanik, eta esparrua antolatzeke helburu nagusiak baldintzatzeko ez baizik eta bermatzeko xedean, aurreikusitako Plan Berezia onartzen den arte ez da onartuko, ez eta behin-behineko izaera batez, materialak edo hondakinak, lur betegarriak eta harri naturalak barne, biltegitatzeko, gordetzeko edo/eta deuseztatzeko instalaziorik.

PLAN ESPECIAL DE PROTECCIÓN DEL VALLE DE OLABERRIA



Plano de Delimitación

Escala: 1/30.000

IBARROLAKO HARANA BABESTEKO PLAN BEREZIA

HIRIGINTZA ZEHAZTAPENAK:

1.- DESKRIBAPENA

Irungo Plan Nagusiak zehazten du Ibarrola izeneko haranarekin bat egiten duen lurraldea Babesteko Plan Berezia. Haran hau hiriaren hegoaldean dago, eta ondoz ondo Ibarrola – Errotazar – Irugurutzeta – Aitzondo izenak hartzen dituen errekaren inguruko isurialde bietako ibarbideak biltzen dira hartara.

Meakako auzoan dago esparru hau, eta alde batetik haranaren gibeleranzko sarrerarena egiten du, eta aldi berean trantsizioarena egiten du Aiako Harria eta Txingudiko Garrantzi Komunitarioko Lekuen (GKL) artean. Esparru honek, guztira, 300 Ha hartzen ditu gutxi gora-behera, eta Plan Nagusiak esparruaren hasierako mugak zehazten baditu ere, Plan Bereziak zehaztuko ditu betikoz, harana egituratzen duten ibarbideak eta aurreikusiko diren jarduera eremuak barne.

Batasun izaera handiko lurraldea da esparru hau, bereziki babesturiko zoruekin bat egiten du, non balio handiko esparruan antzeko egoerek bat egiten duten nagusiki landa izaerako erabilerekin. Baina hiritik gertu dagoenez eta irisgarritasuna egokia denez, badira beste erabilera batzuk ezartzeko aukerak, aisialdi eta olgetarako erabilerak esaterako. Erabilera berri hauek, aipatutako landa eremuarekin zerikusia eduki arren, Plan Nagusi honetatik zehaztu litekeena baino zehaztaperen eta doitasun handiagoa eskatzen dute.

Plan Nagusiak, ingurumen izaerako balioak zaintzeko eta aipatutako GKLaren arteko artikulazioa sendotzeko helburu nagusiak bere eginez, beharrezkotzat jo du udal ekimenaren bidez Plan Nagusiaren antolamendu egituratzailearen garapenean Babes eta Zaintza Plan Berezi baten figura osatzea. Plangintza orokorrak eremu honi begira ezarritako zehaztaperenak osatzea eta arautzea izango du xede Plan Bereziak, eta horretarako harana egokiro babesteko arau zehatzak ezarriko ditu. Era berean, arau gehigarriak edo bereziak ezartzeko aukera izango du, hala behar izanez gero.

2.- ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 72. artikuluan xedaturikoaren arabera, eta landa izaerako elementuak biltzen dituzten esparruei, deskribatutako Ibarrolako harana bezalako esparruari, dagokienez, Babes eta Zaintza Plan Bereziak Plan Nagusiak osatzea dute xede, planen zehaztaperenek xede dituzten elementu naturalak babesteko arauen bidez. Gisa honetako Planek, gainera, Plan Nagusian jaso gabeko beste babes-arau osagarriak zehaztu ditzakete.

Gainera, aipatutako 2/2006 Legearen 3. artikuluan zehaztutako garapen iraunkorrerako printzipioen arabera, Plan Berezi honek naturaren baliabideak zentzuz eta modu

iraunkorrean erabiltzea bermatu behar du, lurralde ereduan zehaztu bezala, politika publikoetan zein jarduera pribatuetan, bai ingurumena bera, bai gizakiaren garapena, elkarri ondo uztartu eta egokitu behar zaizkio, guztiona den natura eta hiri ondare hau belaunaldi batetik bestera aurrera joan dadin osasuntsu eta orekan, pertsona guztiguztiei eman behar die naturaz eta inguruaz gozatzeko aukera, baita kultura, arkeologia, historia, arte eta arkitektura arloko ondareaz gozatzeko aukera ere. Era berean, babestu egingo ditu lurzoruak dituen baliabide naturalak, bai beren balio produktiboengatik, bai erreferentzia izateagatik hirigintza garapen iraunkorrerako tokiko strategiarentzat.

Babes eta Zaintza Plan Berezi honen helburu nagusia da hasiera batean mugatutako lurraldeko natura, baso eta nekazaritza baliabideak ingurumenaren eta paisaiaren ikuspuntutik babestuz, zainduz eta hobetuz antolamendu integral bat osatzea, esparru honetan planteatu eta onartu litezkeen erabilera eta jardueren aurreko etorkizuneko eskaerak baimentzeko eta haiek egokiro antolatzeko xedean.

lido honetatik, Irungo Plan Nagusiak Ibarrolako haranari begira proposatutako Babes eta Zaintza Plan Bereziak esparruaren baitan ezarri beharreko erreserba, babes eta zaintza aldeak zehaztuko ditu, baita ingurumena lehengoratzeko, egungo nekazaritza nahiz basogintza erabilerak biziberritzeko eta sustatzeko, erriberetako landaredia sendotzeko eta ibai eta erreka bazterrak antolatzeko, eta landa eremuen inguruak bereziki babesteko xedean.

Era berean, Plan Bereziak gutxienez honako kontu hauek artikulatuko ditu: nekazaritza erabilerak antolatuko ditu, kultura nahiz arkeologia intereseko ondare eremuak, esate baterako meategi eta oletako labe zaharrei leku egiten dieten eremuak, zehaztuko ditu, kultura nahiz kirol izaerako aisialdirako interes komunitarioko azpiegiturei eta ekipamenduei leku egiteko interbentzio zehatzak zehaztuko ditu, eraikuntzak eta erabilerak baimentzeko baldintzak zehaztuko ditu hauek argi eta garbi gizarte interesekoak baldin badira, eta erabilera eta jarduera hauetatik eratorritako ingurumen, ikusizko eta paisaia izaerako inpaktuen sorrera galarazteko moduko iraunkortasun baldintzak zehaztuko ditu. Bereziki, Aiako Harriko Natura Parkearen Interpretazio Zentroaren kokagunea zehaztuko du Plan Bereziak eremu honetan.

Plan Berezi berriak, bere osotasunean, bertan ezarri beharreko erabileren antolamendu integratua zehaztuko du, Plan Nagusiak zoru urbanizaezinen kategoriara biltzen diren zoruak arautzeko xedean modu orokor batez aurreikusten duena sakonduz edo doituz. Xede horretan, haranaren lurraldearen multzoari begira, egungo landa izaerako eraikinak mantentzeko baldintza zehatzak definituko ditu.

Plan Bereziak, era berean, oinezkoen eta txirrindularien zirkulaziorekin bateragarriak izango diren bide eta xendrak zehaztuko ditu, egungo errepide nagusiaren eta alboetako bideen ezaugarriak eta alde honetan ezarriko diren erabilerek eskatuko dituzten sarbideekiko bateragarritasuna hobetzeko eta zehazteko baldintzak zehaztuko ditu, eta inguru hau hobe sustatzeko eta Irungo biztanleen beharretara egokitze beste baldintza guztiak zehaztuko ditu.

Era berean, lursailen sare tradizionala aldatzeko baldintzak jasoko ditu, inguruarekin uztartzen ez diren eraikinak altxatzeko debekua, aipatutako erabileren ezarpenetik etor

litezkeen trafikoak arautzeko eta sor litezkeen aparkaleku beharrei erantzuteko baldintzak eta behar diren beste baldintza guztiak zehaztuko ditu.

Udal ekimenari jarraiki gauzatuko den Babes eta Zaintza Plan Bereziaren formulazioari dagokionez, Plan Nagusiak ez du beharrezkotzat jotzen hari hasiera emateko epe jakin bat ezartzea, nahiz eta Plan Bereziaren garapenera jasotako jarduera jakin batzuk premiazkotzat jotzen dituen burura eraman beharreko ekimen batzuk egokiro bideratu ahal izateko xedean babes eta antolamendu izaerako neurriak hartu ahal izateko.

Tramitazioari dagokionez, eta indarrean dagoen Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen arauzko xedapenen eta 97.1 artikuluan xedaturikoaren arabera, Plan Bereziari hasierako onarpena eman eta gero, Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen organoari igorriko zaio, honek ingurumen inpaktuaren baterako lehen ebaluazioa egin dezan. Era berean, aipatutako Legearen 97.4 artikulua arabera, Plan Berezi honek zoru urbanizaezina ukitzen duenez, Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txosten bat idatzi beharko du.

Edukiari eta zehaztapenei dagokienez, antolamendu xeheak eta bila diren helburuei egokituriko dokumentuek definituko dituzte, eta gutxienez, Plan Partzialek berezko duten garapen maila izango dute. Plan Berezi honetara, gainera, ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren araudiak eskatzen duen dokumentazioa jasoko da, urbanizaezin gisa sailkatutako zorua ukitzen baitu.

3.- HIRIGINTZA ERREGIMEN EGITURATZAILEA

- HIRIGINTZA SAILKAPENA

Zoru Urbanizaezina gerora zehaztu beharreko azalera gutxi gorabehera: 300 ha


- ESPARRU ARAUEMAILEA

Lurralde honetako esparru arauemailea, hasiera batean Plan Nagusi honetara bildua, areago zehaztu eta definitu behar du Babes eta Zaintza Plan Bereziak.

- PROGRAMAZIO ETA GAUZATZE ERREGIMEN OROKORRA

Babesteko Plan Bereziak berak zehaztuko du programazioaren definizioa eta ondoren gauzatzeko garapena.

PLAN ESPECIAL DE PROTECCIÓN DEL VALLE DE IBARROLA





Plano de Delimitación

Escala: 1/20.000

KALIFIKAZIO GLOBALA / CALIFICACIÓN GLOBAL


ERABILERA GLOBALEKO GUNEAK / ZONAS DE USO GLOBAL

 BIZILEKU ERABILERA GUNEAK / ZONAS DE USO RESIDENCIAL (R)

 JARDUERA EKONOMIKOAK ERABILERA GUNEAK / ZONAS DE USO DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS (A)

SISTEMA OROKORRAK / SISTEMAS GENERALES


 BIDE KOMUNIKAZIOAK / COMUNICACIONES VIARIAS (V)

 TRENBIDEAK / USOS FERROVIARIOS (F)


 IBAI IBILGUAK / CAUCES FLUVIALES (C)


 GUNE LIBREAK / ESPACIOS LIBRES (L)


 EKIPAMENDU KOMUNITARIOA / EQUIPAMIENTO COMUNITARIO (E)


 AZPIEGITURAK / INFRAESTRUCTURAS (S)


KOSTEN LEGEKO HIRIGINTZAKO AFEKZIOAK AFECCIONES URBANÍSTICAS DE LA LEY DE COSTAS

 ITSAS LEHORREKO JABARI PUBLIKOKO MUGAKETA
DESLINDE DOMINIO PÚBLICO MARÍTIMO TERRESTRE

 BABES MUGA
LÍMITE DE PROTECCIÓN

 ITSASERTZEKO LERROA
LÍNEA DE RIBERA DE MAR

 I.L.J.P. MUGAKETAKO ENKLABEA
ENCLAVE DE DESLINDE D.P.M.T.

 BABES ZORTASUNEKO GUNEA
ZONA DE SERVIDUMBRE DE PROTECCIÓN

 EMAKIDAK
CONCESIONES

